"... Jaungoikoa edo erlejiñoa ukatzea ez da, lenago lez, oiturazkoa ez dan banakako jazokizuna; gaur, izan be, sarritan aurkezten da ori jakingaien aurrerapenaren eta zeozelako gizabide barri baten eskari lez".

## 3. Jaungolkoa glzonagaz norgelagoka?

Bear ba'da, *eta z'tur* be *esan \e\, 'izan d'ira a\d\ batzuk eta erlejifio agerpen* batzuk, Jaungoikoa gizonagaz norgeiagoka dabillela salatzeko bidea zabaldu dabenak.

Baiña noraifio da egia salakuntza ori?

Edozelan be ez da Biblia'ko gure Jaungoikoa gizonagaz norgeiagoka dabillela salatu leikena. Berakgizona jabetzen izten dau, askatasuna ernoten dautso. Asiera liburuko edestiak ondo agerlzen dabe gizona daia egindako guztien nagusi; eta Jaungoikoa, zeozelan esateko, "etxeratu zanean" gizonaren eta bere ekintzaren aldia aslen da:

"Bibilia'ko ertejifioa gizonaren erlejifio-neurria, gizona eta mundua egiteari buruz gizonak dauan erantzukizuna da. Gizona Jaungoikoaren irudia da, berari lotuta dago, Jaungoikoak asi dauan iana azkenera eroango daualako (...) Erlejiftoa, kasu batzutan, giza-aurrerapenaren galga biurtzen danean, ziur egon geintekez, gizonari buruz biblian dagoan mezua saldu egin dala edo gitxienez bere izakera berezia aiztu egindala[H].

Gonzalez Ruiz'ek "Kristiñautzea ez da gizabKJe bat" liburuan, 97-98orr.

4. Giltzarri dan arazoa

* Ez dago 2alantzarik, fededunak gizadiaren baterako zeregiña betetean dagozela eta egon bear dirala. Baiña giltzarri dan arazoa auxe da: Zelan egon beardaben arto orretan.

Poliiika ta gizarte arloetan arazoa larri agertzen da: Kristiñauak orretara sartzea eztabaidatzen dan bidea da eta orrek iziilluak sortu dauz, Eleizearen barruanbebai. (Ik. XVII, XVII, XlXetaXXgaiak). Baiña arazo au politika-arloan nabarmenagoa izan arren, eta bardin ekonomi ta gizarte arazoetan, izatearen arloguztietan be agertzen da.

* Maritain'ek esandako berba batzuk arluta esan geinke arazoa auxe dala: Kristiñau lez ekin bearda ala kristiñau bidean?

Argiago esateka: Guk kristiñauok pentsabidean geure erakundea euki bear dogu (filosofia, erti-bidea, politikea, eta abar... ) beste erakunde batzukaz norgeiagoka ibilteko? Egin leike kristiñau-bideko filosofia, eder-lana, politikea? Egiteko gauzak dira? A!a kristiñau bidean, geure ebanjelio-balioak eroan gizonak dauken ekintza ta pentsa-bidera, gauza guztiak kristiñau-. izenagaz bateatzen ibilli barik?

5. **Kristiñau-giroko gizabideak**

Lenengo oarra: Au ez da "pentsabide-eskola bat".

' Agertu dogun arazoak burubide au ekarri ieikegu; Kristiñau-giroko gizabidea ailatzen dogunean erakunde zeatz bat, beste filosofi bidekoen antzekoa edo olako burubide barri bat daukagula buruan. Baiña ez dago olakorik: Krisliñau-giroko gizabideak an-or-emen agertzen dira, ia alkarlu barik eta zeregiña bakarrik batera dabela, eta asierea emendik egiten dala. Ebanjelio-ko ikuspegiaz mundua aldat zetik.

**Eta beste** oar **bat: Kristifiau-bidea ez da glzabide bat.**

* Eta ez da au itz-joko utsa edo burutasun batzukaz kuika jolastea. Baiña kristiflau-giroko gizabidearen izatea la balioa agertu ondoren, berbak ondo uiertu bear dira: Kristiñau-bidea ez da gizabidea:

- Kristiñauen erlejiñoa ez doalako aldi bakoitxean diran burubideakaz *norgeiagora, beste* neurri baten dagoalako:-Jaungoikoa urdaukagula zomatzeko bidean.

  Kristiñautzea, oiñarrian, persona bateri eta mezu bateri alkartzea eginik, *ez* dalako filosofi bat, edo jakingai-bide bat, edo gizonen jakituria iturri dala sortzen dan burubude bat, gizonagaz duan artu-emonak dauzan aregandik artzen dogun barria baiño.

- Kristiñaulzea ez da gizona zapallzen daben gauza guztiak alboratzeko urtenbide lez agertzen dan salbamen bat, gizona askatasunean, lanean eta irudimenez aurrera aterateko eskintzen dan salbamena baiño.

Kristiñautzea ezda gizabidea, norbaitegaz alkartzea baiño.

## 6. Agerpçn zeatz batzutan

* Kristiñau-giroko gizabidea zer dan obeto ulertzeko, artu dagiguzan kasu zeatz bi. Biak onartzen dabez edozein gizabideri eskatzekoak diran berezitasunak, baiña beti aragora zabalik dagozeia.

Emen aztertuko doguzanak, pentsalari bi dira, biak Frantzia'koak eta alkarragaz zer-ikusia daukenak: Jacques MARITAIN bata eta Emmanuel MOUNIER bestea. Biak aldi batekoak diran ezkero, aurrean dauken egoerea be bardiña da: Gauza-giroa, zuzengekeri-egoerak eta gizonak onuratzea, gizaldi aretan ziran burruketan ez egoan kristiñau-pentsaerarik, Eleizea zaiantzan egoan beragandik bank kanpotik etozan jokabide guztiai begira.

## Jacques **MARITAIN (1882-1973)**

Esku-zurien sendikoa eta politika-arioan erkal-ezkerrekoa zan sendikoa da, ortik etorri leikion Eieizearen aurkako pentsabideen indarra etorrela, gizaldi onen asieran Frantzian ziran jokabideen inguruan. Eta federa uneratzeko bidea, Bergson eta Leon Bloy'ren tankerako gizon pentsalariak izan ziran. Fede ori Eleiza katolikuaren barruan bizi izatea eta Eleizea mundu-barrura sartu daiten bide barrien billa ibiltea izan ziran bere lanaren elburu biak.

### * Maiilak maillaka

Aurrera joian gauza-giroko bidearen jazokizuna ikusita, Maritain'ek ondoren au atera eban: "Kristiñau-giro" Darri bat sortu bearda, kristiñauak eta Eleizea egoera barri baten aurkitu daitezan. Eta giro ori ez da izan bear, ez Erdi-Arokoa (emen fedea ta Eleizea izan ziran jakintza eratu ebenak) eta ez Buru-Argien aldikoa (emen fedea ta Eleizea jakintzaren aurrez jarri eta urrindu eginziran).

Jokabide edo egoera barriak aurreko jokabideak, atzean itzi bear dauz eta **maillak maillaka** artu: Lur-giroa ta gogo-giroa ondo bereizlu ezkero, bien artean alkartze barria sortuko da, alkarrari itzaltasuna dautsela.

Baiña gogo-maillea, azkeneko erlzean eta azkenengo aldietan be bai: goragoko lez eta gauza-maillaren azpiratzaille lez agertu da, bigarren au azkenean galtzeko gauzea dala.

### * Glzabldе osokorra

Maritain'ek kristifiau-bideari "gizabide orokorra" esaten dautso, kristiñautzea dalako bakarra gizonaren bizitza osoari erantzuna emon leikiona. Baiña kondairan bizi izan danak argi diñotso kristifiaulzeak ezin leikiola ezarri munduari bere ikuspegia (erdi-Aroan jazo zan lez), orrelan egin ezkero lurreko balioak aurka jarten diralako {ori jazo zan buru-argien aldian).

Orregaz ez da esan gura kristiñauak ez dauzala benetan artu bear munduko arazoak eta gizonen izaerea. Bestera, fededunak antxe agertu bear dau bizitzearen ikuspegi guztietan baiña ikuspegi orreitara jokabide-giroa sartzendauala.

Ikusi dagigun jokabide ori, Maritain'en berbak artuta eta politika-arloa gogoandala:

1ª Zuzena izatea naikoa da betiko biziizea irabazteko, baiña ez da naikoa zuzena izalea gudaldiak irabazteko edo beingoan politikako ondorenak lortzeko.

2n Gudaidiak irabazteko edo beingoan politikako ondorenak lortzeko, ez da bearrezkoa zuzena izatea; ifioz zuzena ez izatea orretarako onurakorragoa izan deiteke.

3n Bearrezkoa da, naikoa izan ez arren, zuzena izatea lurreko alkarteetan politika-bide ona eta aurrerapen iraunkorra lortzeko ta aurrera aterateko.

("Gizabideko politika-bideak")

Kristinaua bizitzearen arlo guztietan.

* Fededunen egoerea

Arlo onetan Maritain'ek bereizketa gogoangarri bat egin eban, beretzat ez zan bardin "kristiñau bidean" jokatzea eta "kristinau lez jokatzea". Bigarren era onek eleizea eleiza lez sartzen dau arazora ekintza bakottzean. Baifia lenengo ereak ez: eta orrelan laikoak askatasun aundia euken eleizearen barruan, erri-arazoak eratzeko buru-jabetza aundiaz garatzen zirala.

Aldien joanak egin dau Maritain'en burubideak "maillak-maillaka" eta "kristiñautze barria" ondamendira jaustea. Baiña bere ikuspen argi asko gaur be balioko dira, berak banatuta egoana batzeko egin eban alegifla aundia izan zan eta kristiñau-arloetan berak izan eban ikutua, ez txikia.

**Emmanuel MOUNIER (1905-1950)**

Ikastetxe IMagusi-girokoa, sendi kristiñau baten bizi zana, inguruko munduari begira arduratua eta eskuzurien jokabide guzlien aurka bizi-bizia, Mounier fede bizidun gizona, bere bizitzeagaz eta bere Sanakaz iraulketara dei egin ebana, personea salbamenera eroateko ekintzetara sartua; "Oraindiño gaur be ba-dagoz gizonak: Zenbat geratuko dira gizaldi-erdiko baietza emotea igaro ondoren?" Batera ez egotekoa zan eta kondaira-zentzuna eroian aldean, adimen -giroan bizi zan baiña eskuak zikintzeko bildur barik, bere pentsamentu bakarra Jaungoikoa eban laikoa zan... Bere burua eskintzen dauan gizona izan zan, eskintze ori ukatu be egin leikean, baiña ez iñoz maillego lez besteen eskuetan jarri". Esaldi oneik Bernanos'enak dira eta Mounier'eri egin jakon argazkirik ederrena dirudie.

## * Norki-jokoa

Mounier oso-osoan eskiñi zan bere batera-ezari adimen-munduko erakundea ezarteko. Folosofuen ikuspegitik, gogo-zaleen eta gauza-zaleen erdian dago, baiña ez erdibide baten geratzeko, jokabide barria billatzeko baiño. Bere filosofia eta bere jokabidea norki-bidea da.

Antxiñako gogo-bideak agertzen eban gorputz-arima bitasunaren aurrean Mounier'ek au izango dau: "gizona dana da gorputza eta dana gogoa".

Bizi-gaiak eta ekonomi-arazoak goi-maillan ipinten dauzan gauza-bidea-ren aurrez, Mounier'ek argi esan eban: "Ekonomi-arloko iñorenganatzearen azkena ez da ifiorenganatze gutzien azkena",

Eskuzurien banaka jokoaren eta Marx-zaleen alkarte-jokoaren aurrean, Mounier'ek, bide bi orreik azpiratzeko norkiaren burubidea lortu eban.

Baiña ezin aurkitu Mounier'egan norkia zer dan azalpenik. Bere ustez ezin zeaztu leikez norberagandik kanpora dagozan izakiak baiño: "Norkia, izan be, gizonaren izatea bera dan ezkero, bere azkenengo berezitasuna. ezin zeaztu lei zeetasun osoagaz". Geienean be, norkia zer da irudiz agertu lei. Eta batez be, bizi. Norki bizitza bizita baiño, ezin leiteke eldu norki izateak zer esan gura dauan ulertzera: Norki-bizitza irudiz agertu baiño ezin geinke, orrelan baiño ezin geinkez agertu norkiaren erak, bideak, ela gero orretarako deiaegin".

## Norkiaren neurrlak

Mounier'entzat "norkia"ren aurkakoa, "banakokoa" da eta burutasun onen barruan dagoz norki-girokoak ez diran bizi-era guztiak. Norkiaren iru neurriak dira burutasun bi orreik bereizten dabezenak, banakokoak orreik ez dauzalako.

- **Deia:** Asiera sortzaillea da eta orren aurrerapenak (ori litzake eziketea) bere baidintzak jarten dautsoz bere barrutik eta bakoitxari, izan bear dauana izateko. Barruko jokabidea da egite guztiak bateratzen dauzana. Barruratzeko alegiña eginda baifio ez da lortzen, bizitzearen joanean, batera-tze ori argitzea.

Argrtzea "Norkia gi2onagan gunean bertan aragituta dago aragiagaz nastauta. baiña aragora begira, ardaua uragaz bat egiten dan antzera barru-barruan bat eginda. "Eta arazoetara sartzearen bidez baiño ez da itxartuten benetako norki-bizitzara".

Alkartasuna: Norkia ezin eldu leiteke norki izatera alkartean baiño: "Alkartea norki barri bat da, norkiak biotzaren bidez alkartzen dauzana". Banakako batek, besteak "zeozer" lez ikusten dauzanean, ezin sortu leike alkarterik. Benetako alkartea lortzeko, norkien alkartasunera eltzeko, besteak "norbait" lez ikusi bear dira. Alkartean baiño ez dira eltzen personak norbait izatera.

Norklaren berezitasunak: Norkiaren berezitasunak izango dira, ez neurriak: Askatasuna, ardura artzeagaz batera lotuta, aragora begiratzea, balioaren burubideagaz lotula: Balioen mailladian Jaungoikoa dago txuntxurrean: "Mailladi au, gutariko batzuntzat aragokoa dan Jaungoikoagaz eta bere izateagaz barruan menperatuta dago eta kristiñau-balioen menpean dago, eta gure ingurukoak be ez dabe agertuko goitik zarratuta dagoanik".

## Mounler eklntza-glzona

MounieTek, lankide batzukaz "Esprit" aldizkaha sortu eban. Aldizkah ori bide zala, bere aldiko polttika-burruketara sarlu zan, sekula alderdi politiku batera sartu barik. Bera izan zan "lekuan dagoan egokieza" gogorren salatu ta zigortu ebana": Domu-zaleen eta esku-zurien aginpideak daukanik kaltegarriena gizonak eriotzara bidean ipintea da, gizonik geienakan bizitza errukarriaz eta esku-zuri laburrak izateko gurariagaz, norkiak izateko almena ta poza kentzen eta itoten dauzalako.

Vichy'ko aginpideak auziralu eta espetxeratu ebana, agintaritza gogorren eta osakorren etsai izan zana, laguntzaille gogotsua izan zan eriotzaraifio askatasunaren alde jokatzen dabenakaz. Eriotza ori biolzeko aldienak ekarri eutson 1950'ean.

Norkiaezdagauzea.

## 7. Gaur diran krisliñau-giroko gizabideak

* Olako gizabiderik gaur be ez dago, penisabadirako ta ekintzarako erakunde egiñak lez. Baiña bai ba-dago kristiñauen jokabide zabal bat euren burubideak e!a euren bizia gizabide-aurkakoa ez dan edozein gizabidera eta onen arloetara eroateko (IK. IV gaia). Eta olako kristiñau askok ez dabe uste "kristiñau-giroko gizabidea, gizabidea eta gizona bera benetan ez artzea danik. Orregaitik askok ez dabe nai euren fedea dana dalako, fededun lez izen-datuta agertzerik eta besterik ez dabe egiten gizonaren alde lan egin baiño, eta esan naiz esan ez, euren fedea eurakaz doa.

X gaian ikusiko dogun lez, Jaungoikoaren salbamena bizs leike giro sekularreko ekinbideak indarrez alboratu barik eta berbaz agertutako fede-autorzera jo barik. Olako zerbait esan nai dau Batikanoko II Batzar Nagusiak:

"Gure aldiko gizonen eta batez be txiroen eta neke-artean dagozenen pozak eta itxaropenak ba-dira Kristo'ren jarraitzaiileen pozak eta itxaropenak, goibeltasunak eta larritasunak be. Ez da ezer benetan gizabidekoa, biotzak bereoiartzuna ez ba'dauko... Eleizeak gizadiagaz eta onen kondairagaz barru-barnjan eta benetan alkartuta ikusten dau bere burua"

Gaudium et Spes, 1.

*P T* T* T*^P

Gaia zabaltzeko

1[2] IDAZKIA

Beste Erka! edo Errepublika batzutan, aurrerakoak eta loretsuak izan *anen e\a* gosez iñor be il *ez* arren, alegiña egiten dabe, geiago euren erosotasunak lortzeko erkalaren onereko baiño; eta bear-izanak batzutan bearlu egiten dau olako ekintzetara, ez orrelakorik Utopia'n, emen dana da guztiena *eta* orregaitik iñork *ez* dauko bildurrik bear-izanez ilteko, erriaren gaitegiak beterik dagozelako eta oneitatik guztiai emoten jake zuzentasunaz bear dabena. Txirorik bat be ez dago, iñok norberarenik ezer ez daukalako eta guztiak *batera* abensak *diraiako* (...) Utopia'n diru-zalekeria oso-osoan *aiboratu* dabe eta ez dabe dirurik ezertarako be erabilten, orrelan ardura asko kendu eta sustraitik txarkeria ateraten dabela. izan be, nork ez daki zenbat iruzur, lapurreta, ostute, naste, *zarata, asarre, matxinada, iiketa,* saldukeri eta pozoitze (oneik geroago ta ugariagoak dira, kentzeko ezarlen diran zigorrak naikoa ez diralako) eta ori dana alboratzen dala dirua aintzat artzen ez ba'da Gaiñera diru-gurariak txirorasuna kentzeko lanak eta *ardurak sortzen dauz,* txirotasuna azpiratzeko bide bakarra aberastasuna ba'litz lez (...). Ni ziur nago, aberatsak ondo dakiezela eta ulertzen dabezela olako gauzak eta ziur dagoz obea izango litzakefa bear dan ezer falta ez danaren egoerea, bear ez dtran gauzetan uger bizitearena baiño, eta orrelan kalte asko alboratuko litzakezala aberastasunez tnguratuta biziaz baiño obeto. Ziur nago bizitza zuzenerako zaletasuna eta Kristo gure Safbatzailleaganako maitasuna, onek beronek jakiturtaz eta ontasunaz bere gizonentzat onena zana eskintzen ebalako, mundu guztia eroango leukela onelan bizitera, arrokeria sortu izan ez ba'litz, izan be arrokeriak ez dauz maite norberaren gauzak besteenen beste eta poztu egiten da txiroak traintzen, ez daualako neurtzen eta arautzen erosotasuna bere onurak begiratuta, besteen txarrak zenbatuta baiño.

Tomas Moro'k"Utopia" liburuan.

^v***

## 2n. IDAZKIA

Gure ikuspegiaz gauzea ikusi ezkero. Jaungoikoari ta gizonari batera saldukeria egitea da, kondaira Jaungoikoaren Erreiñurako bidean doala ez ulertzea eta Erreiñu ori etortea ez nai izatea. Baiña ez dauko zentzumk au uste izateak: Kondairan etorriko dala (Erreiñua).kondairan ona ta txarra banandu ezineko eran nastatuta dagozelako. Kondairaren aurrerapenak eta gizakiaren lanak eta ardureak, eta oneik be kondairan egiten dira, Kondairaren azkenean etorri egingo da, berbizluen aldian esan gura dot, orduan gauza guztiak ara joko dabelako.

Kristiñaua, egia esateko, iñoz ez dago naikotuta. Berak uriari buruz daukan pentsabideak aldean dakar negar-erri au konpontzea, zoriontasuna aundia ez ba'da be benetakoa lortzea, alkartzen dan giza-moltzoarentzat; alkartearen bizitza erakunde ona ta bizigarria lortzea, zuzentasun-egoerea, adiskidetasuna eta oparotasunaren giroa orrelan norki bakoitxak bere elburua lortzeko aukerea izan dagian; orretarako lurreko uria eratu egin bear da, kideko guztiak izateko, lanerako eta euren bizitzearen azkuntzarako eskubidea benetan kontuan artzeko eraz. Eta berak gaurko erri-bizitzaren aurka ziri antzera bialtzen dauan ezezkuntza aztunagoa da, egia esan, gizartezaleen edo komunisten ezezkuntza baiño obeto sustraitua, ez da izan be lurreko alkartearen zoriona bakarrik, gogoaren biziizea be ba-da, norkiaren gogo-elburua be bai, erri-bizitza onek zemaipean jartzen dauana.

Jacques Mariatain'ek"Gizabide Osokorra" liburuan.

3n IDAZKIA

Mounier'en idazki batzuk

"Ba-dago norkiarengan griña ezikaitz bal, jaungoikozko suaren antzera garretan dagoana. Gora jagi eta zarata egiten dau, morroitzaren zemaiaren usaiña artzen dauanean eta naiago dau bizia baiño lenago bere bizitzako duintasuna zaintzea (...) Olako gizonak ez dira asko. Gizon-moltzoak naiago dabe morroitzako ziurlasuna askatasunaren arriskua baiño, naiago dabe gauza giroko landare-bizitza giza-ametsena baiño. Baiña, ezia izatearen aurka jagitea, zapalkuntzari aurka egitea, ezereza izatea alboratzea, oneik norkiaren iñorendu-eziñeko eskubideak eta norkiaren azkenengo eskariak dira, mundua bere erreiñuaren aurka jagiten danerako"

"Itxarotekoa litzake nortasun-giroa, *nork'ta,* zeaztuten astea. *Balfta* zeazfu ezin egin leikez gizonagandik kanpoan dagozan gauzak ete bere begien aurrean jarri leikezenak baiño.

"Izan be norkia ez da.gauza bat. Geiago: norkia da gizon bakoitxagan gauzalezartu ezin leikena (...). Izateadaukenakezdiraarriak.zugatzat, piztiak eta norkiak, oneik ibilli dabiltzan zugatzak eta zurragoak diran piztiak izango iitzakez. Norkia ez da munduan dan gauzarik baliotsuena, beste gauza batzun antzera kanpotik ezagutu leikena. Norkia barrutik eta batera ezagutu eta egin egrten dogun izaki bakarra da. Leku guztietan dago baiña non ez da emoten".

"Esku-zuriak ez daki aurka dagoan errukarrienak eta txikienak zelako kurutzea daroan egunero. Bere inguruan gauza ederrak daukoz, bere emaztearen antzeko ederrak, gauza atsegingarriak Oitura onak eta kontzientzi ona sortzen dauz beragan: ondo bizi dan bat da. Baiña moztasuna, pekatua, eriotzea... olakohk ez dago bere bizitzan; bakartadea gitxiago: Lagun asko daukazan gizona da. Eta ukatzerik aitatu be ez egin: Ukatzea ez ete da ez eukitea? Ori ez da egokia esaten eban Peguy'k, ez pekaturako, ez grazirako, ez miñetarako eta ez pozetarako. Gizon osasuntsua, gizon zoriontsua, onerako gizona: bere neurriak ondo artu dauzan gizona. zori txarreko izakia".

*****

**EGIN GEIN-KENA**

**Irakurri...** 1² idazkia. Zenbatu zenbatetan agertzen dan "gizabidea" itza. Zergaitik orrenbeste? Esan ete geinke idazki oso gizabidekoa dala? Eta oso kristiñaua?

**Esan labur... 2n.** idazkiaren gaia eta sartu gaiaren barrura, beragaz batera Maritain'en pentsabidea ondo ulertzeko.

**Irakurrl...** astiro Mounier'en idazatiak (3n. idazkia). Eurakaz, gaian esandakoaren parean **ipiñita,** ulertu obeto pentsabidea.

**Billatu**... ber-jaiotzako **beste** gizabide batzuk **(Eguzkiaren uria,** Campanella'rena), **Atlantida** barria, (Bakon'ena).Zertandatoz batera.

**Aurkftu...** esandako gizabidean ametsezkoen eta "Robinson Crusoe'Yen **(Au** Defoe'rena) **artean** dagozan **bardintasunak eta aldeak, "GuHiber"en** ibillaldiak" (Au Awft'rena) "Mundu zoriontsua" (Au Huxle/rena).

**Eztabaidatu**... ikas-gelan Kristiñau-bideautopikoadan.

**Parekatu...** Marx-bideak, izate-bideak eta norki-bideak gizonari eta Jaungoikoari buruz daukezan burubideak.

**Egln...** Mounier'en pentsaerearen laburpena gaian eta idazkietan esaten dana batuta. Gero eztabaidatu: Baliokoak dira pentsabide orreik **gaur?**

**Idegi...** ikas-gelan eztabaida-aldi bat politikako kristifiau-bete-bearrari buruz: "Kristiñau lez eta kristiñau-bidean?'

**Gertatu... taktean itaun batzuk** politikan diarduen kristiñau bateri edo batzui egileko. Ekarri euren erantzunak ikas-gefara. Al ba'da esan baten bateri etorte-**ko...**

**Ekln**... **Ebanjelio-liburuetan billaketan eta aurkitu** Jesus'ek gizonen **aurrean izan eban jokabidea,** arazoetara sartzekoa **izan zan, ala arazoetatik** iges egitekoa, ala politika utsa, ala gogo-arlokoa beste **barik...**

**Egin... gaiaren** laburpena orrialde baten.

**Azaldu...** gaia beronen laburpenean oiñarrituta.

# VI. GAIA

## BAIÑA, ZER DA ERLEJIÑOA ETA ZERTARAKO DA?

(Bizitzearen liorabidea ta gizonaren erlejiño-maillea.
Gaurko sekularizatze-çriroan, o;ai onen larriunea)

Zertarako **bizitzea?**

Fedea gure munduan eta gure arazoakaz ezagutzeko bidea artu dogu. Orregaitik begiratu dogu jakitea, trebebidea, geu bizi garan mundu onetako pentsabidea. Baiña gure mundu onetan ba-dago **erlejiñoa be, erlejiño-arloa gauza bat** dogu: eta oneri be begiratu egin bear, Orrelan lortuko dogu geroago zein dan kristiñau izateak, gure fedeak, dauan berezitasuna, ikustea.

Ona emen zer aztertuko dogun gai onetan;

* Erlejiño-arloa gauza lez: erlejiño-jazokizuna.

* Erlejiño-arloak gizonaren eta gizartearen **bizitzeari** norabidea emoten dautson *a\a* ez.

* Gure mundu sekularizatu onetan be zelan sekularizatu eta garbttu dan erlejiño-arioa eta orrelan batzuntzat *arazo* bereziak sortu dauz.

## ERLEJIÑO-ARLOA GAUZA BAT DA

ndu-bidea * Buda-bidea * Kristo-bidea * Juda-bidea
"* Islan-bidea * Antxiñako erlejiñoak *Beste erlejiño batzuk

## ERLEJIÑO-BIDEAREN ZEREGIÑA

| | |
|---|---|
| Norabidea emon gizonaren eta gizartearen bizitzeari | Aikartu gizona ta mundu au besteagaz |

| | | |
|---|---|---|
| Fedeagaz bizitzak esangurea dauko. | * Fedeagaz bizitzeak **norabidea** dauko. | * Erlejiñoak alkartu egiten dau gizona ta mundua beste zerbaitegaz eta zerbait ori gorago dago eta ezaugarriz baiña benetan agertzen da. |

## ERLEJIÑO-ARLOAGAUR SEKULARIZATU EGIN DA:

Sekularizatzea:
erlejiño-arloa urtutea ala garbitzea?

**Sekularizatzeari erantzunak:**

| | | |
|---|---|---|
| *Fedeo gaidu* | *Fedea* ta gaurkotasuna alkartu barik. | Fedea gaurkotasunagaz alkartuta. |
| * Jainko bakoak<br>* Dana bardin | *' Larritzen ez dana<br>* Fedean estutzen dana.<br>* Erdibituta dagoana | * Dana batzen dauana.<br>* Dana ulertzen dauana |

1,- Erlejiño-arloa or dago.

* Gure inguruan diran erlejiño-agerpenak ba-dakigu zeintzuk diran: gure munduan eta gure jakintzan, kristiñau-bidearen agerpenak dira. Sakonak naiz azalekoak, artezak naiz okerrak, baiña erlejiñoaren, kristiñau-bidearen agerpenak dira.

Baiña ez dira kristiñau-bidekoak erlejiñoaren agerpen bakarrak: Beste lurralde batzutan eta beste jakintza batzukaz, ain ezbardiñak diran ezkero, antxe be ba-dago erlejiñoa. Sarritan danera sartzen da.

+ Auxe da esan gura doguna: Erlejiño-arloa or dago eta agertze ori ukatu-eziña da.

Guk jakitea ta trebetasuna begiratu doguz gure munduaren eragille lez, eta gure munduaren pentsabidea be aztertu dogu, baiña orain begiratu dagigun erlejiño-arloa, au be gure mundukoa da-ta.

Baiña ez fede-bideko ikuspegiagaz (ori barrutik begiratzea litzake) begiratu dagigun "kanpotik": aurrean dagozen gauzak jakitearen ikuspegiaz begiratzen diran lez, bildur barik, makurkeri barik. Eta orrelantxe begiratuko dautsagu kristiñau-bideari be, beste erlejiño bide batzui begiratzen dautsegun antzera, naizta guk ondo jakin ez dala "beste erlejiño bat". Egoa da, erlejiño-bidea iñoz be ez da ondo-ondo ulertzen "barrutik" izan ezik, fedetik bertatik baiño. Baiña aurrean dagoan gauza lez begiratze au bear-bearrekoa dogu: Gure fedea obeto ulertzen lagunduko dausku eta kristiñau bideak dakarren berezitasuna zein dan ikusiko dogu (Ikusi VII, VIII,IX ta X gaiak); eta gaiñera gure mund-uari begiratzeko ikuspegi zabal bat eukiko dogu.

2.- Erlejiño-arloa askotarikoa da.

* Erlejiño-arloa aztertzen dogunean lenengo agertzen jakuna auxe da: erlejiño asko dagozala, erlejiño-arloa era askotara agertzen dala. Geroago, gai onetan berton, aztertuko dogu agerbide asko orreik ezer ete dauken guztietan bardiña danik, ori zer dan eta gizonagan eta gizartean daukan ikutua zein dan. Orain labur-labur,

begiratu dagiguzan, an-or-emen. (Gai au zabaltzeko begiratu bigarren zati onen eraskiña, "eHejiñoak" idazpurua oaroana).

Antxiñako erlejinoak

Erlfijiño arloa, gaurko, erlejiñoak baiño be ienayokoa da. Munduan izan dan lenengo gizona, on' gauza ziurra da, Neanderthal izan zan eta onek geroko bizitzearen ardura aundia eukan: bere illobietan, gorputz iliaren ondoar, bere gauzak ipinten ebezan, beste bizitzarako lagungarri izan dakiozan. Pentsetakoa ez da ba, gizona une baten "ei lejiño gizona" izaten asi zala, gizona beti izan dala" erlejiño-bidekoa" baiño.

Antxinako gizonak bere inguruagaz eukazan artu-emon bizietan, enengo momentutik itaunak egiten dauz, ez berak erabilten ebazan gauzai buruz bakanik, edo bere nekeai buruz, baita gauza orrein iturri ta jatorriari buruz be. Eta ez dau eriotza osoa onartzen: "ez gizona dana ilten" ori antxiñako kulturak, lenengoak naiz geroagokoak, batera dauken gauzea da. Gauzen atzean antziñako gizonak "indairak" ikusten dauz eta indar oneik zelan edo alan norki biurtzen dira.

Gizona eiztaria izan zan aldi areitan gizonak gorago dagozan izakiak iruditzen dauz eta oneik piztien jaunak dira eta iñoz piztien antza be ezarten dautse; lurralderik lurraldera ibilten ziran artzaiñen giroan, erlejino-arloa ortziagaz alkartzen da; gizonak toki bst artu eta lurgin biurtzen danean, erlejiñoa izadiko jazoerakaz eta ugaritasunaren misterioagaz alkartzen da. Eta beti, gizonak alegiña egiten dau, gorago dagoala uste dauan mailla orreri ikututen eta orregaz artu-emonak izaten,orretarako bide lez aztikeria, oikuneak, otoitzak eta opariak artuta. Iñoz agertzen da Goiko Jaunaren burutasuna be, baina beti da gizona erlejiño-bidearen jarraitzaille argia,

Uste izan geinke lenengo gizona (eta betiko gizona be bai) bere indar guztiakaz dabillela, bere izaera guztia orretara bultzatuta, bere larritasuna ta egarria baretzen.

## Mistika-giroko erlejiñoak

Izen au ezarten dautsegu indu-bideari ta Buda-bideari, bide oneitan Jaungoikoa ezkutatua ta geldia dalako eta gizonak izaki aske orregana eltzeko, izaki ori, norki bat izan be ez da-ta, ez dauka beste biderik bere nortasuna galtzea eta bere izatea urtutea baiño, orretarako mistika *ta* ezkutu-bidez bere burua ezereztuta.

Indu-bidean (au zabalago ulertu nat izan ezkero begiratu zati onen azkeneko eraskiña) gizona bake-billa doa, orretarako izadiagaz bakeak eginda. Egizaletasuna, oogorkeririk eza, biziari itzaltasuna... bide orretatik doaz. Gizona, berez osotu-bakoa, bizitzarik bizitza osotasunaren billa doa, ber-gizatzeak egiñez. Yogaren bidez gorputza menperatzen dau eta gogoa askatu, bere nortasuna be galtzen dauala, orrelan nirbanara eltzeko edo Nortasunik ez dauan osotasun orretan urtuta geratzeko.

Buda-bidean (ikusi eraskiña) gizonak nai dauana nekeetatik askatua izatea da. Eta nekeak gurarietatik sortzen dirala uste izanik, iturri ori kendu bear da ondorena kentzeko: Gurariak kentzea da' Buda'tarren guraria. Orrelan lortzen da isiltasuna, ezereza, zoriona.

Norberaren burua artu, ezereztu...
eta orrelan zoriona lortu.

## Igarie-erlejiñoak

Izen ori emoten jake alkar-izketearen eta itunaren bidez gizonaren eta Jaungoikoaren arteko artu-emonak argitzen dabezan erlejiñoai. Onein Jaungoikoa ez da geldia, gizonen kondairara sartzen da eta nortasunduna da. Naikoa ezagutzen doguz Juda-bidea ta Kristo-bidea eta Islan-bidea. Sakonago ezagutu nai izan ezkero, irakurri eraskiñean.

Islan-bidea oso-osoan Jaungoikoa bakarraren bidea da eta Jaungoiko bakar orreri makurtzen jako guztiz. Bere oiñarria Jaungoiko bakarra autortzea, otoitz- egitea, baraua, limosnea ta ibillaldi santua dira. Jaungoikoak dana dauka erabagita eta gizonak naikoa dau

agindua betetea Ez jako geratzen leku aundink askatasunan eta munduaren alde egin leiken lanan.

### 3.- Erlejiño-bidearen berezitasuna

* Gure azterketan gi2ona erlejiño-girokoa dala aurkitu dogu, baiña ainbeste erlejiño dagoan ezkero, uste izan geinke ezbardintasun ori, gaia bera illuna ta zeaztubakoa dalako sortzen dala eta onegaitik erlejiñoa ez dala bearrezko gauzea: gurari ametsezko baten antzekoa dala eta izatenk ez daukan ezkero, gurariaren antzekoa izan daiteke, guraria izan arren ez dauka zertan oiñarritua izan.

Baiña ori ez da orrelan. Erlejiñoak ainbeste eta erlejiñoa agertzeko erak ugariak diralako, galdera au egin daikegu: "Zein da erlejiñoak daukan eta bere-berea dauan berezitasuna?". Itaun orreri erantzun ezkero, ondo berezituko dogu erlejiño-gaia bera zein dan, beiak dauzan agerpen zeatz eta ugarien gaiñetik naiz azpitik, agerpen ugar, orreik daukan ugaritasuna gizonari eta bere jakintzai dagokiena dala jakiñik.

* Orain billatzen doguna ez da erlejiño-gaia egia dan ala ez, **bere zeregiña,** berak beteten dauan egitekoa, gizonaren eta gizartearen bizitzan zein dan baiño.

Beste arazo bat da erlejiño-gaiaren egia. Ort ez dogu aztertzen emen eta lortu be ezin leike egin "barru-barrutik" baiño. Baiña zeregiñaren arazoa, erlejiño-gaiaren egttekoa zein dan jakitea, "kanpotik" be ikusi leiteke eta orixe da gai onetan egin gura doguna.

* Erlejiño-gaiaren askotasuna eta askotarikoa izateari egin dautsagun begira-aldia amaitzeko auxe aurreratu geinke: Erlejiño guztiak batera daukena eta gai onek dauan berezitasuna olako *zer*bait dala:

— Biziari, gizonari ta gizarteari norabidea emon.

— eta ziurtasun au: Izatearen norabide osoa ezin daitekela argitu Beste baten, beste zeozeren eta norbaitegazko artu-emon barik, Beste ori goragokoa eta ezbardiña dala.

4.- Erlejiñoak bizitzeari norabidea damotso

* 8izitzearen norabidea billatzea ez da erlejiñoen arazoa bakarrik, gizabideak be orixe billatzen dau (ik. III eta IV gaiak) munduko izatearen norabide osoa. Arlo onetan au be esan geinke; Gizabide guztiak rjirala erlejiño-girokoak; edo erlejiño guztiak dirala gizabidekoak, naizta erlejiñoak dauken dana olakoa izan ez, gizabideak eurak be beti ez dabe jokatu gizonaren eta bere duintasuna*ren* alde: batzutan gizarteko jokabide okerrai emon dautse indarra, (esaterako gizonak oparitzat eskintzea ta morroitza ta olakoak aldeztu dabezenean).

* Zer da bizitzearen "norabidea"? Norabidea berbea esangura bitan artu lei: bizitzearen "esangure'lez edo bizitzearen "bide'Mez. Eta biak erantzuten dautse gaurko gizonak ardura aundiaz egiten dauzan oiñarriko itaun biri eta (jizonak estutasun bardiñagaz bi!latzen dau erantzuna: "Zer naz, edo gara? itauntzen dau gizonaren eta munduaren bizitzeak zer esan gura dauan jakin nai dauanean; "nondik nator/gatoz" eta "nora noa/goaz" itauntzen dau gizonaren eta munduaren bidea norantza doan jakin gura dauanean,

* Erlejiñoak gizonaren eta munduaren norabideari erantzuna emoten dautse, bai bere esangura-arloan eta bai norabide arloan. Bai bakoitxaren bizitzeari begira eta bai munduari eta gizarteari buruz,

* Ulertu-eziñeko gauza lez agertzen dan bizitzeak, esangura barria artzen dau eta ezerezaren antza galdu, itaun orren larritasuna baretzen dauan erlejiño-pentsabide osora sartzen danean.

Gizona beti dago aldatzen, beti doa bidez, etorkizunerako egiña da, griñatsua ta guraritsua, bide-erabagiak artzen dauz eta sendo doa etorkizunerantza eta erabagiak bere guraria baretu egiten da nondik datorren eta nora doan jakin ezkero, erlejiñoagaz,

Freud'ek uste izan ebanaren aurka ba, gure aztertze onetatik, eta aztertze au egiteetan oiñarritua dala uste dogu, au ateraten dogu: Gizonak erlejiñoa bear-bearrekoa dauala bere nortasuna jauste barik osotzeko. Orrelan izan ezik, gogo-jausterik larriena sortzen jako.

* Erlejiñoak, gizonaren norki-bizitzeari osotasuna ta norabidea emon ondoren. munduari eta bera bizi dan gizartean be emote bardiña egiten dautso. Gizonak egiten dauan galdera bakarra ez da bera zer dan eta nora doan, gizarteak eta munduak dauan norabidea be jakin nai dau.

Ez da beste barik, erlejiñoak laguntza emoten dauala gizartearen arazoak osotzeko ta argitzeko, eta orretan ez dago zalantzarik, batez be gauza argia da, erlejiñoak kondairaren eta izadiaren norabidea (eurak zer diran) agertzen dauala, mundua ta gizartea dagozan irrgurua eta iparra nondik dagoan, konortea, (bidea zein dan eta zein bideri jarraitu bear jakon argitasuna) eta baltoak nondik norakoak diran orrelan gizonari eta izadian buruz jokabideak aurreratzeko (Ik. XI gaia)

> Erlejiñoak, Erlejiñoa,
> gizonarentzat eta munduarentzat
> norabidea dira eta gizonak eta munduak
> estu ta larri eskatzen dabe eta bear dabe
> erlejiñoa.

**5.- Erlejmoak beste arlo batzuk agertzen eta euretara bialtzen dau,**

* Gure jakitszko mundu onetan eta gure burubideakaz, egia esan nai ba'dogu, argi ikusten dogu dana ez dala jakite-bidekoa ta burubidekoa: ba-dagoz eta beti izango dira arlo asko orrelan agertzen ez dirariak, bairia benetako arloak.

Gaurko gure mundu onetan, gaiñera, "zientzi edo jakite"-bidea atzean geratu 03, gaur olerki bidea da nagusi, ezkutuan dagozan gauzak aitatzen dira, ezaupide barriak gauzetara urreratzeko bide barriak billatzen dira (yoga, drogea, alkarteak, Indiara osterak... egiten dira, beste jakintza batzuk baliokotzat artzen dira... Labur esateko, arako Comte'k agertzen eban positibismoaren baztertzea ez da onartzen (Ikusi II gaia).

Eta danean agertzen da gaur zabal dabillen burubidea: Gauza asko dagozela, gizonak bere zentzumenen bidez eskuratu ezin dau-

zanak. Izaki orreik ez dira burubidezkoak, ez dira agertzen berbakaz; baiña benetakoak dira *eta* bizitzara *sartuta* dagoz eta ezin leikez *b'iz'h* tzatik banatu. Buru argiaren bide orretan eta jakite-bide orretan ez dagozan izakiak dira eta irudibidekoak edo sinbolikoak esaten dautsegu.

Irudibideko izakiak
burubidekoak ez diran
gauzak dakarskuez burura.

* Irudibidekoa ezin daiteke agertu eta ez da agertzen berbaz eta burubidez. Olakoak irudien bidez agertzen dira: Irudiak izakl sakonagoetara garoez eta izaki oneikaz artu-emonetan jarten gaitue, orreik dira irudletan agertzen diran gauzak. Askotarako balio dabe, ez dira ain zeatzak, berbak eta burubideak zeatzagoak d(ra, baifla orreik be esanguraz beterik dagoz glzonari begira; eta orrein esangurea "esangura asko" izan daitekez. Baifla ba-dauke eurak ezagutzeko bidea, ez buru-bidez, baiña bal benetakoa eta egitezkoa euren Izatea ezagutzekoa,

Bakoitxaren bizitzara ondo begiratzen ba'dogu laster ikusiko dogu irudiz edo sinboloz beterik dagoala eta gure blzitzako gauza asko (maitasuna, adiskidetasuna, gogoa...) ez dirala agertzen irudien bf-dez Izan ezik. Gure ingurura ondo begiratzen ba'dogu, laster Ikusiko dogu munduaren arlo asko, gizartearen sallle asko, (alkartasuna, txarkeria, ontasuna, kondaira...) ezin leikezela eskuratu irudien bidez izan ezik. Irudibideko ezagutze au ezin alboratu leike bakoitxaren eta gizartearen bizitzatik.

Gaiñera, beste gauza bat be ikusten dogu: Irudiak ez dauala iñoz agertzen iruditu danguztia, irudiak barruan dauan izakia, askoz aberatsagoa da agertzen dana baiño...

* Erlejiñoa ezkutuan dagoan, berbak eta burutasunak baiño arago dagoan izaki orren billa doa. Erlejiñoak zuzen eta bitarteko barik "bestea"ren billa bialtzen gaitu. Eta "bestea" irudi zeatzen bidez agertzen dausku (mitoak, oikuneak edo ritoak, ezaugarriak...) Jakiña irudi zeaztu oneik, dauken baiño balio geiago emon ezkero, billatzen dogun izaki ori aurkitzeko bide izan barik, galbide biurtzen

dira. Ba«ña zaantza bank mundutik kanpoan dagoan izakira doaz. izaki on ez da "nundukoa. ez da gizona, eta irudiak agertu egin gura dabe. ikututa oamo ez ba'da be. Erlejiñoa gizonak emengoa ez dan eta goiago «zaki bategaz dauan "artu-emona" da.

Eta auxe da erlejino-arloko beste berezitasun berezi bat, gizonari eta munduan emoten dautson norabidearen gaiñera; "artu-emonak sortu". "barnro alkartu (re-ligar) gizona ta mundua Besteagaz. Jaungoikoagaz £z dogu uste izan bear ba. erlejiñoa dala gizonari ta munduaii buruzko edozein pentsabide: "Alkartze" ori egiten dabenak baiño ez dira erlejiñoa, gizona bera gorago dagoan izakia-gaz. Jaungoikoagaz, aikartzen dauana.

Erlejiñoa. erlejiñoak
irudietara bialtzen dabe
baiña irudien bidez. benetan,
gizonagana eta munduagana zuzen-zuzen
emengoa ez dan eta gorago dagoan izakiagana
izaki orregaz gizona ta mundua alkartzeko
eta alkartze ori agertu egiten da,
irudi-bidez baiña benetan.

## 6.- Er!ejiño-gaia sekularizatuta.

Jazokizun barri **bat:** Sekularizatzea

* Aztertu dogu erlejiño-gaia zer dan. Baiña gaur. gure mundu onetan, erlejiño-gaia era barri baten biziten da, ez lenago lez, eta ez gure aitita-amamak bizi izan daben lez be:

— erlejiño-ekintzak urritu egin dira;

— batez be gazteen artean erlejiño-gaiak lotsea sortzen dabe:

— abadea ez da guztien aurren itzalgarria;

— Goi-maillako eleiz-agintariak gizartearen aintza galdu dabe eta euren onu-bideak ez dabe ainbeste indar (ume-iltea. ezkontza-austea. sortze-aurkako jokabioeak...)

— orain egiten diran eleizak aundikeri bakoak dira eta ez dauks lenagoko Gotzain-Eleiza aundien antzik eta ez dagoz erriaren erdi-erdian;

— Eleiz-deituak urritu egin dira

— erlejiño-arazoan dana bardin izatea geitu egin da, sarritan ezer ez sinistea bera be bai;

— dana sagaratua dala eta danean Jaungoikoa agiri dala uste izatea galdu egin da eta orren ordez jakite-gaiak sartu dira.

Gauza guzti orreitan argi ikusten da, erlejiño-gaia dana dala, aldakuntza aundia sortu dala gure munduan erlejiñoari begiratzen eta berau bizitean.

Zer da sekularizatzea?

* Sagaratutzat artzen zan mundutik sekularizatua, "mundutua" dan mundura igarotea da sekularizatzea. Sekularra esaten dogunean, "mundu onetakoa" lurtarra, gizabidekoa esan gura dogu eta zerutarra jaungoikotia dan "beste mundu" baten aurrez dago au. Sekularra ez zan mundua, jaungoikotua ta sagaratua zan: orduan dana zan, ordukoen ustez, jaungoikozko beste mundu orregaz zer-ikusia ebala eta mundu sagaratu orrek beti eukan bere ikutua mundu gizati onetan. Mundu sekularra "mundu mundutua" da eta emen dana pentsaten eta biziten da emendik gora begiratu barik, izadiz-goitiko ezer barik eta Jaungoikoagaz zer-ikusi barik. Mundu sekularizatuan:

. — Munduaren ardatza gizona da, ez Jaungoikoa;

— Gizonak mundu onen ard.urea dauko, ez "bestearena";

— Bakoitxaren askatasuna Eleizearen naiz Jaungoikoaren aginduak betetea baiño gorago dago;

— Fedearen lekuan buru argia ta jakitea ezarri dira;

— Trebebideak bideratzen dau len otoitzak eta aztikeriak bideratzen ebena.

Trebebideak bideratzen dau
len otoitzak edo aztikeriak bideratzen ebena.

x Ekonomi-arloko autrerapenak eta politika ta gizarte a^lokoak ekarri dauan oraingo gizartearen egunetatzeak (Ik. BUP'eko 2n. urteko Erlejiñoan, V gaia) gizon-eredu barri bat sortu dau: aztertzailleagoa ta biziten dakiena, mundua ta kondairea beste era batera ikusten dauzana.

Fedea ta erlejiño-bideak (lugin-girckoa ta jakite-aurrekoa zan erri-giroan sortu eta aurreratuak, ori zan izan be orduko giro bakarra) gure egunetako munduan larriune aundi batera sartu dira.

* Erlejiñoak ordezko zeregiña eukan, jakitea, trebebidea ta politikea atzeratuta egozanean. Orduan, mitoakaz azaltzen ziran gaur jakiteak argitzen dauzan iSlun-uneak; otoitzak eta opariak Jaungoikoari eginda uste izaten zan bideratu bear zirala gaur trebebideak bideratzen dauzan arazoak; eziketa ta osakidetza-erakundeak egiten ebezan orduan gaur erriak berak bere arourapean artzen dauzan gauzak.

Beste era bateko mundu aretan Aleizeak egiten eban "ordezko" *\ana* egiñez, gaur *err'ttarren* alkarteak egiten *dauzan zereg'iñak. Mun*duak Eleizea ta beronek egiñak batera ikusten dauzanean (Eleizeak egin ezik, egin barik geratuko ziran-eta) mundu orrek gaur Eleizea alperrekoa dala uste izaten dau, len egiten ebazan gauzak egiten ez dauzalako.

**Erlejino-arloa ezereztu ala** garbitu?

* Ona eldu arte ez dogu besterik egin sekularizatzea zeaztu baiño. Orain zer esan nai dauan ulertu dagigun.

**Erlejiñoa oso-osoan** galtzera **ete doa?** Ori orrelan ba'litz, sir.istebakoak uste izan lei erlejiñoa amaitu egingo dala antziñako zarkeri guzttak amaitu ziran antzera. Eta sinistedunak sekularizatzearen aurka ekiten asiko litzakez, bere erlejiñoa alboratzea billatzen dalakc.

**Ala sekularizatze-bidea, erlejiñoa garbitzerako bidea ete da?** Ori orrelan izan ezkero, sinisledunarentzat sekularizatze-bidea ona da, erlejiñoaren bigarren maillako gauza batzuk alboratu baiño ez duala-ko egiten (eta gauza orreik gure munduan fedearentzat eragozpen dira) erlejiñoaren ardatzari ikutu barik.

* Bigarren ulerbide au ziurragoa dala dirudi. Sekularizatzea ez da bide kaltegarria, oiñarriko gaiak kentzen dauzan sekularizatze ba-tera eldu ezik.

Eta zelan ulertu erlejiño-fedea aldatu egiten jakula sekulariza-tzeagaz, baiñg ardarz-ardatzekoa galdu barik? Eragille bi dagoz orre-tarako:

— Orain-artean bete dauzan gizarteko zeregiñak aurrerantzean bete ez arren, erlejiñoak ez dau galtzen bere izan-bearra. Zeregin orreik barik, erlejiñoak gizonaren **bizitzeari norabidea** emon leikio, gizarteari be bai; eta gaiñera, bere oiñarria **agerpen** bat da, len euki ebazan ordezko lanak oana ez dirala.

— Erlejiño-fedea aldi bakoitxeko pentsaera ta oituretan ager-tzen da eta bizi da. Eta pentsaerak eta oiturak aldatu-arren, ez da aldatzen: Agertzeko erea da aldatzen dana. Sekularizatzea jakintza-arazoa da, bizierai ikututen dautse baiña ez erlejiñoaren oiñarri ta ardatzari.

Sekularizatzeak bizierai
ikututen dautse, ez oiñari.

## 7,- Sekularizatzearen aurreko jokabideak

* Ez dabe guztiak sekularizatzea ikusten guk esan dogun eran. Sekularizatzeari begira jokabide oso ezbardiñak ikusten dira. Esan dagigun zeintzuk eta zelakoak. Zalantza barik, zelakotze onek ez dauz batzen giza-jokabide guztiak; jokabideak eurak gaiñera "legor-tu" egiten dauz: Jokabideak eurak eta gu gizonok, or agertzen diran erak batño biziagoak gara; Geienetan gizon bakoitxak olako jokabide bat baiño geiago dauka eta gaiñera giza-berotasuna daroe. Baiña zela-kotze orrek ikuspegi osoa ikusteko lagundu egingo dausku, naizta

zelakotze bat be azin aurkitu norki baten garbi-garbi.

* Oiñarn-oiñarrian, sekularizatzearen aurrean, jokabide oneik agiri dira: Erlsjiño-fedea galtzen dabenak.

— Jainko-bakoa: onek edozelako erlejiño-fedea alboratu egiten dau. Batzutan bai eta beste batzutan ez. bere bufutasun orreik eta sinistedunen egiteak mundutik alboratzeko iana egingo dau. Bere ustez, gaurkotasuna ta fedea alkartu-eziñak dira. Baiña jainko-gabearen parean janita, sinistedunak bere nortasuna argitu egin lei. Beste alde batetik, jainko-bakoak oraindiño badaukaz artuemonak fededunagaz, naizta ezetzerakoak izan, fedea ukatzea dalako, orregaitik alkar-izketarako btderik ez da kantzen.

— Bardin dautsona: Onek fedea ez dau argi-argi ez onartzen ez alboratzen. Bere bizitzan sinistuko ez ba'leu lez jokatzen dau, baiña iñoz ez dau argi-argian esaten jainko-bakoa danik. Jokabide au sortzen dauana, mundu sagaratutik gaurko mundu sekularizatura dagoan aldea da: fedea balioko gauzea dala uste dabe. baiña gaurko mundu onegaz ezin leitekela alkartu. Ez da au buru argiz eztabaidatzen dan arazo bat, buru-aldetik, azkenengo pinkadea ez da besterik, erabagirik ez artzea baiño. Baiña egiteetan eta bizitzan mundu sekularraren bidea artzen da, erlejiño-arazoetan baietza eta ezetza indar bardiñagaz artzen dirala. Dana bardin dautson au, benetako jainko-bakoa da, naizta Jaungoikoa ukatu ez, aundiagoa da egiten dauana: Arazoa aztertzera sartu be ez egin, Jaungoikoaren eta erlejiñoaren albotik "igaro" egiten da.

Fedea gaurkotasunagaz alkartu barik daroenak

— Ikara-bakoa: Bere fedean jarraitzen dau, mundua aldatu ez ba'litz lez. Mundua barriak ez dautso ikuturik egiten eta, geienez be, mundua zoratuta dagoala uste izaten dau. Giroa ez jako barruratu, edo orretarako almenik ez daukalako (zarrak) edo inguruko munduak ori egiten izten ez dautsolako (sendi zar-zaleak, lugin-arlokoak...) Ortik zar-usaiñeko erlejiñoa sortzen da, olakoen fedea ezin onartu izaten da buru sekularizatua daukenen aldetik, euren aldian ez diralako bizi. Jokabide orrek, kristiñautzearen lekuko

izateko almena be kendu egiten dau gaurko munduan. Barru-barrian sustraituta dauken ardurabakotasuna itzalgarria da, iñori kalterikegiten ez dautsolako:

— Fede-estua: Ardurabakotasuna arnaitu jako, ez da bizi ikara barik. Onentzat mundu sekularizatua bere fedearen arerioa da eta bere fede orreri eutsi nai dautso danaren gaiñetik. Orregattik, munduaren aurrean burrukalaria ta estua da, alkarrizketarako eta bestea ulertzeko itxia. Eta egoera ori sortzen jako, aldakorra dana eta oiñarria dana ez daualako bereizten fedean. Orregaitik eutsi gura dautse jauskorrak diran fede-gaiai eta arazo barrien onartzea oso-osoan ukatzen dau. Bere burrukalsritzak kaltegarri biurtzen dau olako gizona, alkar-joterako gorakadea indartzen daualako.

—• **Erdibitua:** Onek gaurko burubidea onartu dau, baiña batera fedea antziñako erara bizi dau, ezer aldatu ez ba'litz lez: Ez dauz gauza biak alkarren parean ipinten eta gizonagan gorde-mailla bereziak ba'legoz lez bizi da. Ulertzeko gauzea da eta orren iturria, errazoi-oiñarria ez billatzea da, fede-arloan sakontze aundirik egin *ez* izatea. Bizitzan barruko alkartu-eziña daroa, {barru-barruan persona bat barik bi doazela esan lei, oneitariko bakoitxak bere burubidea daroala) eta lentxuago edo gerotxuago, barruko ondo-eza, barruko aurkaketa agertzen jako. Kanpoan iztilluren bat sortzen danean, erdibitu onek fede elduago baten bidera joko dau, fede neurtu batera, edo dana itzi edo dana bardin izatera.

Gaurkotasunagaz batutako fedeari eusten dautsoenak

— Dana batu dauana, fededun eta sekularitzatua da batera. Baiña, orretarako, erlejiñoak gaurkotasunagaz ezin alkartu dauana dana alboratu egin dau, bere fede-autorpena kontuan artu barik.

Onen fedea, bere gauza bat da, ez alkarteko gauzea, eta "bere erara" bizi dau, ezelako eieizeagaz eta erlejiño-taldeagaz alkartu barik. Orren iturria, fede ta erlejiño sakonean dago eta gaurkotasuna be sakon artu dau, bakoitxaren askatasuna eta ekintza-bidea, beste gauza au txartzat artzen dala: "Zer" pentsau edo zer egin agertzen dauan edozelako taldeagaz iotuta agertzea. Ori ta guzti be, sortu leiteke erlejiño bazkun bat, baiña bazkun onen erlejiñoa iñon agiri ez

dana izango titzake: Norkiak erlejiño-zaleak izango litzakez, baiña euren fedea banan baiño bizi ez dabenak, euren artean alkartu barik eta eleizarik sortu barik.

— Fede-ulertzaillea: Olakoak bere kontura alkartzen dau fedea sekularizatuen bideagaz. baiña bere erlejiño-taldea itzi barik. Berak taldearen erlejiño-bidea onartzen dau bere erara, fedeari ta munduari zintzotasuna ukatu barik. Bere erlejiño-taldeak daukazan utsak eta neurri laburrak euki arren, fede-ulertzailleak ba-daki taldeak daukan eta bizi dauan fedearen ardatza baliokoa dala; eta orregaz batera, fede-ulertzailleak, ondo daki fedea bakarrik eta banaka ezin leiteke-a bizi: Taldeagaz alkartuta egotea bear-bearrekoa da bere fedearentzat. Bera aztertzaillea izan arren, fede-ulertzailleak ez dau galtzen bere taldearen erlejiño-aberastasuna; eta taldea be aberastu egiten da ulertzailleak dauan ikuspegiagaz, au taldearen gaurkotzerako lagungarri dalako, baina taldekideak banak eta bai talde lez be.

8,- Gu, gure mundua, gure fedea

* Knstiñaua, fede-gizona eta gaurko munduko gizona dan neurrian, eupada baten aurrean dago. Eupada ori ez da erantzun errezekoa, eta estu bizitea eskatzen dau.

Lengoaren eta oraingoaren arteko estutasuna: Zintzoa izan alde batetik, lendik datorkun erlejiñoari begira, Jesus'en experientzia apostoluekandik asi eta gizaldirik gizaldira datorkula jakinik; eta zintzoa izan beste alde batetik, gaurko munduari begira, arazo barriak, agerbide barriak eta ekintza barriak, lengoengandik urrin dagozenak daukazala, baiña gaurko kristiñauak kontuan artu bear dabez zertzelada orreik, XX gizaldiko gizonak izateko eta kristiñau jarraitzeko Itzi bearrik ez dagoalako.

Estutasuna taldearen eta norberaren artean: Zmtzoa izan alde batetik Eleizearen aurrean, beronek ekarri aauskulako feaea eta au biziteko alkarte-giroa eskintzen dauskulako; eta zintzoa beste alde batetik, norberaren urrean, fedea norberak artu bear daualako eta gero norberaganatu askatasunaz.

Estutasuna fedearen eta buru-argiaren artean: Fedea illuna da baiña ziurra; errazoi-bidekoa da (lk. VII eta VIII gaiak); eta fedea ez dau urritzen gauzak buruz ulertzeak edo obetzeko alegiñak. Bestetara esan bear:

Eta estutasun au, gaiñera, ba dago gaurko yiroaren eta bidez garoazen etor kizunaren artean be...

Estutasuna.

GEIAGO EG!N GEIIMKE

1go. Idazkia

Antxiñako kristiñauen erlejiño-bizitzeak, sagaratua izatea Jaungoikoaggndik sortutako gauzea dau. Gauza bat sagaratua edo erlejiñokoa izateko. Jaungoikoagaz zer-ikusia bear dau. Personea erlejiñokoa da, Jaungoikoagaz zer-ikusi berezia dauanean. Erlejiño girokoa, sagratua, danak, beti dakar Jaungoikoagazko zer-ikusi berezia. Baiña ba-dagoz antxiñatiko erlejiño-oiturak be, Jaungoikoaren izenik edo irudirik ez daroenak, esaterako antxiñako Buda-bidean, eta benetan erlejiño-giroko jokabideak dira. Orregaitik billatzen dogu izen barri bat, guk jaungoikoa esan eta beste erlejiño batzutan beste izen batzuk daroazan gai ori agertzeko, naizta beste erlejiño-bide batzutan izenbakoa izatea edo irudirik ez eukitea izan berezilasuna. Izen barri ori ezkutukia edo misterioa litzake.

Izen barri onegaz agertzen doguna, gizona baiño gorago dagoan eta lenagokoa dan izakia gogoratzen dogu, izaki ori bere toki bizian lez agertzen da gizona giro sagaratura sartzen danean eta gizona bere mundua ta bere bizitzea era barri baten eratzera beartzen dauanean. Ez da ba, gizonak aurkitu edo ulertu ezin dauan egi bat, ori ulertzen da, esaterako, (rutasun Santuaren eskutukia edo Misterioa esaten dogunean; ez da ezkutauta dagoan zeozer, ori ulertzen dogu "izadiko ezkutukiak" diñogunean; izen barri onek dauan esangureak berezitasun bi daukaz: Lotura barik goikoa izatea, oso-osoan mundutik kanpokoa, eta bakoitxari barru-barruan, oso-osoan eta azken-azkeneko lez, ikututea.

Ezkutukia (misterioa) ezin zeaztu lei zuzenean, ez dago zer dan jakiteko beste biderik gizonagan izten dauan oiñatzaren ezaugarria baiño.

Guztiz goikoa ta lotura-bakoa dalako, ezin esan zuzen ezkutukia zer dan. Ori egin ezkero, gizonen esku legoke eta mundutik kanpokotasuna galduko leuke. Orregaitik daukagu bide bakar bat misterioa zer dan bere goitasuna galdu barik, agertzeko. Izten dauan piñatza da. gizonagan beteten dauan zeregiñaren ondorena; bere oiartzuna entzuteak, gizon erlejiñodunean izten dauan ondorena. Rudolf Otto'k, ospetsu biurtu dan zeazketa baten, onelantxe diño labur-labur: "Ikaragarria ta Iilluragarri3 dan ezkutukiaren bizi-ikasia",. Ikaragarria ta lilluragarria ez dira berezitasun bi edo zelakotzaille bi, misterioa zer dan esateko, gizonak Jaungoikoaren aurrean edo Misterio orren aurrean, izaten dauan erantzunak dauzan izaera bi baiño.

Ikaragarriaren oar-ikasia

Ikaragarriaren oar-ikasia "barrumin" bat da -ez norberaren zomapen ulsa- eta bildurraren barrumiñaren bidean dago, naizta, dauzan berezitasunak dauzalako, arlo orretan be osoan ezin sartu.

Bildurraren edo ikarearen zomapena danean, norbera arrisku baten aurrean egoten da eta arrisku ori zemai bat izaten da norberarentzat. Ikaragarriaren zomapean, geien agiri dana eragillearen eta artzaillearen arteko ezbardintasuna da. Paskal'ek au idatzi ebanean: "Toki zaba! aundien isiltasunak izututen nau", ez da bildurra agertzen dauana. Arrituta geratzea da agertu nai dauana. toki zabal-aundiak beragan sortzen daben nora-eza, aunditasun orren aurrean norberaren txikitasuna ikustea, norberaren burua galduta lez ikustea da. Olako zerbait somatzen dogu gure barruan oraindiño, trebebideak ekarri dauskun izadiaren menperatzea ikusi izan arren, izadian guztiz aundiak diran gauzak ikusten doguzanean: Gau illun isilla, basamortua, goiera aundiko mendi-erpiña, bakartadea ta abar... Olako barrumiñen giroan dago ikaragarriaren sentimentua, erlejiñodun gizonaren barruan sortzen danean. Olako giroan, gizona ezerez lez agertzen da bere bizitzara sartu dan giroaren aunditasun neurri bakoaren aurrean. Gizona "izututa" geratzen da ori "beste bat" dala eta bere pentsamentuen neurri'ra ez dala sartzen ikusten dauanean,

ori danaren goitik dagoala, dana, dana daukala beragan eta dana dauala berea jakitean. Olako barrumiña agertzen eben Abraan'ek edo Job santuak Jabe'ren aurrean "autsa ta erre.autsa" zirala esaten ebenean.

J. Martin Belasko'k
"Zer ete da erlejiño agerpena" 3. Agiritza. Ceniec.

2n. Idazkia.

Orrelan ba, azkenean burutasun au datorku: Ezaugarri batek ba-daukala ori eta indar geiago, neurria au izan daitekela: Jakintza ta erlejiño iturrien sakontasun astuna daukala eta bere sustraiak irudi-era baten sartzen dauzala, era egokian esangurea agertzeko. Orduan, gai ori zenbat eta zabalago dagoan, zabalagoa ta osoagoa da ezaugarriak dakarren ondorena, gizon bakoitxagan zer-ikusi barruko bat egiteko ikutua dauala.

Michael Meslin'ek
"Eiiejiñoen jakintzara urreratzea" liburuan.
Cristiandad. Madrid. 1987.

3n. Idazkia.

Iges egin gura danean, erantzuna bigarren maillakoa da. Ezaugarrien mundua azteitzeko mitoa bear da, berau dalako gizonak izakiakaz eta Jaungoikoagaz dauzan artu-emonak aurkitzeko ezaugarriaren bidea. Egia esan, bide batez, sarritan aurkitu dogu mitoaren arazoa, erlejiño-agerpenari buruz billaketak egin doguzanean eta barren-barrenean. Mitoa, izan be, gizonaren izkera berezia da, ez irudimenaren ondorena aspaldion uste izan danez eta orrelan eskatu daualako buru-argikeri legortzailleak, mitoa lenengo ta zuzen datorren eta gizonak biozkadaz artu dauan gauzearen agerpena da. Orrelan, mitoa guk antxiñako jakintzetan artu dogunez, osotasunaren agerpena dala esan lei. eta orrexegaitik erlejiño-arloko agerpena, munduaren aurrean gizonak daukon lenengo bizi-ikasiaren agerpena. G. Gusdor'ek ondo esana da mitoa "egiaren era bat, buru-argiaren bidean

egon ez arren biotzaren eragiña artzen dauana, eta munduan dan izatearen izakera jator bat aurkitzen dauana" dala. Eta orixe da izan be "mythos" berbearen esangura berezia gerkerazko idazki zarretan agertzen dan lez, jazokizunaren egia, berbaz agertua; eta esangura ori bari iro aurkitzen dogu, esate baterako, itxas-aundiaren barruko jakintzan. Orregaitik, antxiñako gizarteak obeto ezagutu doguzalako, mitoaren esangurea eta beronek gizartean daukan zeregiña zabalago ta sakonago ezagutu doguz.

Michael Meslin'ek.
"Erlejiñoen jakintzara urreratzea" liburuan.
Cristiandad. Madrid 1987.

4n. Idazkia.

Begiratu dagigun orain, astiro, geure ezker-aldian dagoan marrazki au,. Zer agertu gura dogu marrazki orregaz? Or gizon bat agiri da, solo-artetik datorrela eta trenera doala esan lei. Trenagaz uri aundia agertu gura izan dogu. Baiña zelan bizi zan gizon ori soloetan? Gizon au bere errian mezara joaten zan, Jauna artzen eban. katolikua zala esaten eban eta ori ez zan gauza arrigarria. Bere ibar aretan bizi ziran beste gizonen antzekoa, erlejiñodun gizona *zan. Ba'iña* etdu da urira eta zer jazo jako urira eldu danean?: Mundu barri bat aurkitu dauala. Urira etorteak askatsun barri bat emon dautso, len errian ez eukana, orain bere etxekoak ez dabe bultzatzen, bere auzokoak be ez, len arrigarria ez zana eta guztiak egiten ebena, aldatu egin da, bere ziurtasunak makaldu egin dira eta, zeozelan esateko, erlejiño-zaletasuna bere errian itzi dau, txapela itzi dauan antzera. Erlejiñoa an geratu da, eta Txamartin'eko geltokian otña ipiñi dauanerako, len izan ez dan lakoa izaten asi da, erlejiño-bakoa, erlejiño-egintzak itzi dauzana: Zer jazo jakon? Otñarria bear ba'da, onetan dago: gizarteko aldakuntza aundiak eta ariñak arauai garrantzia kentzeagaz batera ziurtasunak be kendu egiten dabez. Erriaren eta uriaren artean dagoan aldea aundiegia izan da eta oiturak baiño ez ziran bere egiteari ezin eutsi, fedeko ziurtasunak ez ziran ekintzak galdu. Fedea ez da etorpidekoa, etorpidez etorten dana erlejiñoa da. Jaun ori erlejiño-arloan betezaillea zan, bere erlejiño egiteak egiten ebazan, baiña fedea, bear ba'da, ez zan bere bizitzan ikutu aundia eukan

gauzea, Fedea ez dator etorpidez. Gizon ori ba-zan erlejiñoduna, egin-bearrak egiten ebazan, ziur. Sinistedun eta fededun izatearen esangura sakona aztertu bear litzake.

"Fedean ezi".

6n. Laburpena, gurasoen ikasturtea. ECCA.

## 5n. *Idazkia.*

"Alde batetik ezin ukatu lei gaurko mundu onen biotzean bertan berezitasunik aundiena daukan jazokizun bat agiri dala: Sekularizatzea. Emen ez dogu artzen sekularizatzea egin bear dan alegin lez, alegin zuzena ta bidezkoa. Fedeagaz eta erlejiñoagaz batera joan leitekena. Alegin ori mundugintzan eta gauza bakoitxean edo munduko jazokizun bakoitxean, jabetza neurri bategaz beteten diran legeetan agertzen da, baiña barru-barruan ziurtasun au dala: Egilleak or bere tegeak ipiñi dauzala. Oraintsu egin dan Eleiz-Batzar Nagusiak argi esan eban, arlo onetan, jakintzak bere jabetza daukala, > batez be jakin-gaien munduak. Emen benetako sekulartasuna agertzen da: Mundua ikusteko era bat baiña mundua azaltzeko bera naikoa dala, Jaungoikoagana jo barik: Jaungoikoa alperrekoa litzake ba eta kaltegarri be bai, bear ba'da. Sekulartasun ori, gizonaren almena aintzat artzeko, Jaungoikoaren gaiñetik doa eta bear ba'da ukatu be egiten dau.

Ortik era barri bateko Jaungoiko-bakoak datozela esan lei (gizona ardatz dabenak, ez burubide utsezkoak eta pentsabidekoak, egiterakoak eta ekintzailleak baiño). Jaungoiko bako sekularizatze onegaz alkartzeagaz batera, egunero daukagu begien aurrean, itxura ezbardiñetan, gauza-zaleen erri-bizitza, atseginbidea balio nagusia izatea, aldun eta jabe izan-gurea, askotarikoak diran norkeriak: "Gizabide" onek dauzan jokera gizati-ezak dira.

Beste alde batetik, eta au ulertu-eziña da, gaurko mundu onetan, ezin ukatuak dira asieraz ebanjeliokoak eta kristiñauak diran balioak, or dagoz gitxienez, bizirik eta amets lez. Ez litzake izango

larregi esatea. mundu ori ebanjelioa artzeko dei aundi ta larri bat egiten dagoala"

VI Paulo'k.
"Evangelii Nuntiandi" Aolku Idazkian 55 zk. 1975.

EGIN GEINKENA

**Ulertu...** ondo 1° idazkia, gaiaren argitasunaz.

**Irakurri...** eta batu *"2* eta 3 idazkiak" eta, ortik asita, eztabaidatzea egin.

**Irakurri...** ikas-gelan 3n. idazkia. Gaira sartu.

**Banatu...** taldeetan eta talde bakoitxak erlejiño bat aztertu eta ondorenak ikas-gelan agertu. Ikusi (99) orrialdean Eraskiña.

**Artu-emonak izan...** beste erlejiño batzutakoakaz. Ikas-gelara be etorri daitekez,

Asmau... entzun-ikusi gai bat erlejiñoai buru (Claret)

**Agertu...** al danik jakinbiderik onenagaz bakartasunaren barrumiña. maitasunarena, asarrearena. Esan ekintza orrek gaiagaz dauan zerikusia zein dan.

**Esan non dagozan...** gure gizartean sekularizatzearen bidea agertzen daben ikuspegi zeatzak.

**Btllatu...** erlejiño-arloko gaiai buruz ardurarik ezak sortu dauzan biziera bereziak.

**Egin...** gaiaren laburpen bat. Gero, orri baten idatzi labur

**Egin...** laburpen zabal bat lenengo zati osoari buruz (I-VI gaiak).

**Egin... talde-lan** bat: Talde bakoitxak **gai baten laburpena egin, gero talde bakoitxak agertu ikas-gelan laburpen ori. Kopiakiñaren** bidez zabaldu geinkez.

**3" DE BUP**

## VII. GAIA

## OI.AKOXEA DA GURE FEDEA

(Gizona Jainkoagaz artu-emonetan aurrez-aurre)

Fedea personen arteko artu-emona da.

**Gu bizi garan mundu onek eta gu Jaungoikoaren** seme-alaba garalapen-tsateak, **gure fedean ikutu** egilen dautsoe, Baiña, **zer da fedea? Itaun oneri erantzuna emotean barru-barrura sartu baiño lenago, geure** buruari egin bear **dautsogu itaun ori. Gure denporako kristiñauak izan gura ba'dogu, gizon eta andra elduak,** benetan andra eta gizon kristiñauak izan nai ba'dogu,

**orixe da aztertu bear dogun** gaia.

- Fedea bera, benetan, **zer dan**
- Kristiñauen **fedea,** zeatzago esanda, zertan dagoan.
- Kristiñauen fede au uiertu-eziñeko nastea ala errazoizko gauzea dan.

**SINISKEREN MUNDUAN BiZIGARA**

Zeozer **edo** norbait *s'misiea onañzen* dogu;

- **sinisgarria** danean,
- errazoizkoa danean.

**FEDEDUNAREN GAURKO EGOERA**

- **Zalantzak**.
- **Onurea" balioko**.
- **Erlejiño-g/roa galfzer»**.
- Aurrarapenaren larrialdia.

s/

**FEDEA PERSONENARTEKO ARTU-EMONADA**.

/f\ /N

**JAUNGOIKOAK EZAUGARRIAK ERAKUSTEN DAUZ**

o Z**ergaitikdan fedea errazoiazko gauzea**.
- **Onarlzen dogun** teztigantzea.
- Erreiñuaren ezaugarriak

**PEDEAREN 8AREZITASUNAK**

- **Ezagutze** *ta* ***maitasun*** bideko egitea
- **Ilfuna**
- **Ziurra**

® **Beti billaketan**
- *Zerba'it eskatzen dau.*

## 1. Siniskeren munduan *bizi gara*

- **Ez gara ugarteak: gure bizitzea, alkar-bizitzea da**. **Eta,** alkar-bizitzeko **bes**teengan uste **ona bear** dogu. izan be, dakiguzan gauzarik geienak, beste batzun esanaren testigantzatik artu doguz: Gure Laterriko Nortasun-**T**xartelean daukaguzan **jakingarriak *onartu egiten doguz edo* j'akintza *ta* jakituri-giroko jakingarnak be geuk** eztabaidatu **barik artzen doguz, aurrean** daukaguzan **agiriai edo sendiari edo libururen bateri edo irakasleari sinistuta** ... Orrelan ba. bizitzeak berak eskatzen dau smistea. beste batzuk esan dauskuenean uste ona eukitea.

- Siniste ta usle ona eukite onek ba-dauz bere oiñamak;

- Persona bera sinisgarria izan daitela, Zoro baten, guzurti bateri edoez-jakin bateri ez dautsot smistuko,

- Esaten daustena gauza *simsgania izan daitela: Ez dot sinisten* errazoizkoa ez dana, baiña lagun batek bere urte-eguna dala gaur esaten ba*daust. ez dautsat eskatuko nortasun-agiria.

Baiña gauza berezi bat izan ezkero. eta gauza on' lege-giroan ziurtatu bearba'dot, aurretiaz ziur jakiten dot.

- Orrefan edo antzera jazoten da gure *erlejiño-bizitzan be.* Gu umegiñanean, beste batzuk esanda artu genduan fedea. baiña eidu biurtu garanean, gauzea sakonago aztertzen dogu. Gure sinismenaksakontzea egitea eskatzen dausku eta ikusi:

- Testigantza bera sinisgarria dan (fedea iragarten daustenak, fedea nigaz banatzen dabenak eta iragarte ori egiteko erea, sinisgarriak diran).

- Gure fedea errazoizkoa izatea (sinisten doguna zientzi-bidez agertzekoa^ez da izango. baiña bai ikusi bearko dogu entzuten doguna "errazoizkoa", "sinisgarria" dan.)

Orixe da "erlijoñolik federa" bidea egitea, erlejiñoko egite batzutatik bizitzearen zent2una norberak ulertzera eltzea; ume-fedetik, gaurko arazoai erantzuteko gai dan eldu-federa eltzea.

**2. Sinistedunaren** gaurko egoera

- Fedea, lenengo ta bein. bizitzearen aurrean artzen dan egoerada: Bizia eta norberarena. Eta. bizitzea bera dan lez, fedea be arriskuak eta arazoak daukazena da. Arazo oneik etorri daitekez:

- Zalantzetatik. Adiskidetasunean apurtzea egin barik arazoak izaten diran antzera, fedean be izan lettekez galtzea egitera eldu **barik** datozen zaiantzak. Zalantza oneik ez dira fedeagaz alkartu-eziñak. fedea bera ikututera eltzen ez ba'dira, baiña milla zalatzak be ez dabe balio ziurtasun baten beste...

**"Onureari" balio** larregi **emotetik.** Augaurkoguregizartegauza-zalea-**ren ezaugarria da. Agiri-agirian onuragarri ez jakuna, alboratzera edo** balio **bank iztera joten dogu**.

**Gizarte-egoeratik. Gaur erlejiño-giroa gattzen doa (Ikusi VI gaia)**. **Eta** inguruan dogun barri-zaJetasunak egia ez daia gauza barna **baiño *eta*** *gaurkoa* **edo gaur egunerako ez dana, guzurra dala sinistu**-**erazoten dauskun**.

**Norberaren aurrerapenetik. Gorputzez eta gogoz**, **guk**, **une batzutan** ezaguerearen larrialdiak **izaten doguz**. **Erlejiño-arazoetan eta gure fede-**giroan **be aurrerapena egin bear dogu, eldu egin bear gara, gorputza ta** gogoa **eltzen diran lez**.

- Zeatzago esateko. **gazletxuak garanean,** batioai dagokien mailladia per**sona lez elduago biurtzen dogu (Ikusi XI gaia)**. **Eta balioen mailladi onetan, oraindiño** gizarteak **mailladi ori alborat2ea lortu ez dauanean, zuzentasun-zentzuna, egi-zaletasuna,** ***onena be*** **egin leikela usle dauan amesa eta biotz zabala dogula eiburuetara jotea, azken-lorpena izaten da. Eta orixe izaten da nortasun garbiaren** ezaugarria.

  Gorputzez azten goazen artean eldu be egiten gara, bai gorputzez eta baigogoz, **etagurefedeakbeaziegin** beardau. **fedeoritxikietaume**-**giroan geratfea gura ez ba'dogu beintzat**. **Orixe da sasoia** fedea sakon aztertzeko, fedearen errazoitasuna biJJatzeko egiaren, zuzentasunaren eta biotz zaba**laren** bidetik.

**Fedea** personen **arteko artu** emona da

**Bein baten bidez joiazaia Alfontso ta Klara alkartu egin ziran**. **AJkarren-**tzat atsegmgarri izan eta **akarrizketa bat egitekotan geratu ziran.** Geroago ta **obeto alkar ezagutu eben eta alkarren barrua agertu be bai. Bakoitxaren** mugak ezagutu **eta alkar osotzen ebeia uste izan eben. Alfontso'k Klararen zelakotasuna ta izaerak ezagutu**-**ala. au beronegan ustea jarteko lakoa zala uste izan eban. Antzera jazoten jakon Klara'ri be. Biak alkarrengana urrera-t2en joiazan eta alkar laguntzeko ta maitatzeko** gogoa sortu jaken, Egun baten alkarragan uste osoa izan leikeeia uste izan eben, baita alkar eskiñi **eta onartu eta oso**-**osoan euren bizitzak bateratu be bai; orra or bizitza**-**alkartzea ta** aska-**tasunezko maitasuna. Lotsea *ta* biJdurra *alboratu* ebezan,** ***zalantzak kendu eta*** **arriskuak artu, batak besteagan uste** osoa eukeiako.

Bem bafen Nazaret'eko Jesus'en barria izan neban eta nortasun arnesgarria eukala iruditu jatan. Bera obeto ezagutzea erab-agi neban. Berari buruz irakurri neban. Ebanjelioetara urreratu nintzan eta oneik bere nortasuna argi agertu eusten. Maitasunean. egian, zuzentasunean eta askatasunean oiñarritzen zan bizia aurkilu neban beragan Urragofik ezagutuala. beragandik urrago ikusten neban neure burua. nire bizitzeak beste zentzun bat artzen ebala igarri neban eta zoriontsuna nintzan. Bere berba ta jokabideetan Jainkoa aurkitu neban eta berak Jainkoari uste osoagaz "aitatxu" esaten eutson eta neu be jaungoikoaren seme nintzala konturatu nintzan. Jesus'ek esaten dauzan gauza asko ez dodaz nik ulertzen, baiña sinistu leiola uste dot. Beran jarraitzea erabagi, bere ikasleen tatdera izena emon eta, bere bizikerea neure bizkera biurtu neban

Onalantxe ikusten dot mk neure fedea

Giza-gtroko fedea

- Beti ez dauka gutzai esangura bardtña "smistu" berbeak. Nik au sinisten dot" esaten dodanean. nire adimenagazgauza bat onartzen dodala esaten dot. Baiña "'simsten dautzut" esaten dodanean, personea onartzen dodala esan nai dot Bigarren kasu onetan, -auxe da benetako fedearena- maitasuna izan bear dot gidari eta sinisten dautsadan persona orregan nire uste ona jarn bear dot. Sinisteko era bi oneik ba dauke alkarregaz zer-ikusia: Persona bategan ustea jarten dodanean, arek diñoana sinistu egiten dot.

- Persona batek esan dauzalako sinistu dodazan gauzak, geroago neuk neure oarmenez ezagutu neikez, edo zientzi aldeko errazoikaz be ziurtatu neikez. Eta orduan onartzeko errazoia ez da beste baten testigantza, norberak adimen-bidez ikusi izatea baiño.

Baiña persona-giroko onartzea. alkar-bizitzatik eta alkarrari barriak emotetik dator. Ezm ezagutu nemke. eta onartu gitxiago. persona baten barruko bizitzea, berak agertzen ez ba*daust. Nik. gogo-azterketak bide dirala, edo beste bide batzutatik. persona baten barrua, berak nat izan barik. indarrez. ateraten ba'dot, persona on adimen-btdez ezagutuko dot. baiña ez onartze-bidez. Eta besteagana ezm nemteke eldu ezaugarnen eta gorputz-oarmenen bidez baiño. Orrelan. eztn nemteke eldu persona baten barrura. kontzinetzira. bere

askatasuna egosten dan lekura. bere egiteen bidez agertzen ez ba'jat. bere siñuakaz. berbakaz eta bere testigantzaren bidez aurreratzen ez ba'jat.

Persona-giroko onartzea alkar
bizitzatik eta alkarran barrfak
emotetik dator.

Erlejiño-giroko fedea.

- Orrelakotxea da erlejiño-giroko fedea be: Ez da. beste barik. esalen jatan egi bat sinistea. egi ori diñostan personea onartzea da. Fedea adiskidetasunetik urrago dago jakitetik baiño. Maitasuna eta alkarren arteko artu-emona geiago da gauzak jakitea eta barri batzun moltzoa baiño.

- Fedea Jaungoikoaren emoitza da. Ez da nik Jaungoikoari emoten dautsadan zerbait. berak niri ernoten daustan zerbait baiño. Oanaren asiera jaungoikoagandik dator: Berak atrapau bear gaitu eta guk atrapaten berari itzi. Jaungoikoa bera da niri bere *barruko* bizitea *agertzen daustana. Eta bera* gure artean bizi dana. Fedea, gizonai agertzea nai izan eban Jaungoikoagandik dator.

Jaungoikoak, bere ontasunak eta jakituriak eraginda, bere burua agertu gura izan euskun. bere naimenaren misterio aundia erakutsi euskun: Gizon egindako Berbea dan Kristo'ren bidez. Espiritu Santuaren laguntzaz, gizonak eldu leitekez Aitaganaiño eta Jaungoikoaren izatearen kideko izan leitekez.

Agertze onetan, Jaungoiko ikusi-eziña. maitasunak eraginda. gizonakaz, adiskideakaz lez berba egitera dator. gizonakaz artuemonak dauz. eurai dei egin eta eurak lagun lez artzeko.

(Batikano'ko *U* Batzar Nagusiak. *Oei* Verbum, 2.J

- Agertze au Jaungoikoak berbaz eta siñuz egiten dau, gizonen kondairan edo *istorian berak* dauan eragiña *bide* dala. Berak *bere* oiñatzak itzi euskuzan egindako gauzetan eta persona lez be agertu zan asiera-asieratik (gure lenengo gurasoen aurrean).

Geroago Abraan'en agertu jakon (As. 12 eta ...) Guk ez dakigu zelan, baiña Abraan'ek barru-barruan asmau eban Jaungoikoak berba egiten eutsola. Jaungoikoak bere lengo bizitzea alde batera izteko eta bere etxetik eta bere lurraldetik urteteko eta nora jakin barik joateko agindu eutson. Ortxe asi zan fedearen kondanrako jazokizun amgarria: E(a asi, dana asi zan Jaungoikoagandik. Saiña Abraan'ek deiari erantzun egm eutson eta orrelan asi ziran Jaungoikoagaz berak izan ebazan artu-emon sendikoiak, Abraan'ek ondc ekian Jaungoikoa bera zala beragaz artu-emonetan ebillana eta Jaungoikoa bere bizitzara sartzea eta au osos-osoan aldatzea onartu egin eban

Abraan'egandik sortutako erriak be fede orretan kidekotasuna izan eban Orrelan sortu zan Israel erria, "Jaungoikoaren erria" deritxona. Moises izan zan aukeratua erri orretako kidekoen artean (Urt. 3. eta . ) fede-bizitza on sakondu zed'm. Berau izan zan Jaungoikoaren eta Erriaren artean bitarteko, erriak Jaungoikoa obeto ezagutu egian, egun baten Jaungoikoaren eta Erriaren arteko Alkartasuna izanpetu-arte (Urt, 19 ta 24). Igarleak alkartasun au ezkontza-itunagaz bardintzen dabe. Erriak bere zalantzak izaten ebazan, bere okerkeriak egiten ebazan, baiña ez eban aiztuten Jaunaren bizitzan sartuta egoala. Orrelantxe artu eban bere izakerea, bere bizikerea, bere fede-bidea.

"... eta illunetarantza urten eban".

## Kristiñauen fedea

Jaungoikoak geroago ta getago sarlu gura dau gizonen bizitzara. Jaungoikoaren Semea gizon egin zan: Auxe da Nazaret'eko Jesus, Abraan'en ondorengoa eta Jaungoikoak agindu eban salbamenaren ekarlea. Ikuspegi onetatik, fedea ziurrago biurlzen da. Jesus'ek alkartasuna barriztau egin eban (Lk. 22,10), bere odola orretarako bide zala eta alkarlasun ori mundu guztirako gauza biurtu eban: Israel-erriaren mugen gaiñetik, gizon guztiakana zabaldu zan. Kristo'ren berbizkundea izan ondoren, Apostoluak eta lenengo sinistedunak argi ikusi eben Jaungoikoa bera izan zala berba egin eutsena eta gizon guztiai Barri Ona zabaltzako bialtzen ebazana. Eta iragarpen au lur guzlikc bazterretaraeldu da.

o Ordunk ona (argi-uneak eta illun-uneak ugan izan dtra kondaira luze onelan) gizonak fedeagaz onartzen dabe gizonak eurak maite dauzan Jaungoikoa. Berba asko ta ziñu asko dagoz gizonak ulertu be egiten ez dabezenak eta bemtzat noramoko esangurea dauken gizonak neurtu ezm dabezanak. Baiña'gizonak ondo dakie euren uste osoa emon daikeoela Nazaret'eko Jesus 'eri eta bera da!a Jaungoikoaren Aurpegia. Izan be. Jaungoikoaren agertze oneri. gizonaren aldetik emon bear jakon erantzuna fedea da eta fedearen bidez gizona askatasunaz eta oso-osoan eskintzen jako Jaungoikoari personen arteko artu-emonen giroan

» Orain ulertzen dogu fedea ez daia lenengo ta bein egi batzuk sinistea, fedea agertzen jakun Jaungoikoa oso-osoan onartzea dala. Maitasuna da jakitera garoazena eta maitasuna ta jakitea personuen egite osoan besarkatzen dira. Persona bat ezin daikegu ezagutu ta onartu bere iragarpen batzun bidez, iragarpen oneik guganaiño eldu-arren: orretarako alkarren arteko artu-emonak bear dira.

**4**. Jaungoikoak **ezaugarrien bidez ziurtatzen dau bere agerpena**.

Sinistedun garanok Jesus Jaungoikoaren Aurpegi lez onartzen dogu Baiña ete da errazoizkoa ori egitea[9]

• Jesus Berbiztu ondoren Pedro'k ernari berba egin eta Jesus daia Jaungoikoak onarlu dauan gizona esan eutsen eta orretarako ezaugarriak egin ebazala (Ap. Eg. 2.22) Paulo'k Antiokian beste auesan eban: Jaungoikoak, berak gurasoai emonrfako berbea bete egin ebala, Jesus berbiztuaz {Ap. Eg. 13, 21-33). Biak, ikusten dan lez, Jesus'en miranak eia beragan bete zirian antxiñako iragarpenak dakarrez Jesus Jaungoikoak bialdua dala ziurlatzeko ziurgam lez.

Jesus'ek. Bateatzaillearen itaun baten erantzuteko, berak egiten dauzan eginkizunak gogoratzen dauz: "Hsuak ikusi egiten dabe, errenak badabiltz, gaisoak osasuna lortzen dabe eta txiroai Barri Ona Iragarten jake" (Mt. 11,2-6) Or argi dago bere eginkizunak aitatzen dauzala. baiña egite oneik. bide batez, Isaias Igarleak iragamtakoa beteten dabe (ls. 29,18-19). Juda'tarren zuzendariak Jesus'eri itaun au egin eutsoenean: "Noiz arte eukiko gozuz zalantzan? 2u Mesias ba'zara esan egiguzu argi ta garbi". Jesus'ek auxe erantzun eutsen: "Esan dautzuet eta eta ez daustazue sinislen. Nire ziurbideak, egiteak dira, nik Aitaren izenean egiten dodazan egiteak"(Jn. 10,24-25).

© Jesus'en egiteak tkusi ebezan bere aldiko batzuk. ez eben beragan **sinistu egm ebazan egiteak** egtn **izan arren**. **Jazokizun berezia tkusi** eben **baiña ez eben aurkitu jazoktzun orren esangurea: Alatza (rniraria) ezm** daike aintzat artu fededunak baiño (emoitza emoitz iez artzen da, adiskide-**tasuna**dagoanean. **Ezagutzen ez dogun** batek emoitzaegingo ba'leuskigu, **zer pentsau emongo leuskigu. baiña ez emoitz orretan agertzen dan adfski-detasuna)**.

* **Jakitunentzat ez dago alatzik (mirararik): Jazorikua dan ala ez ziurtatu bear dan zerbait da**. **Izan be. jakituriaren** gaia ez **da munduko gauzen iturnak** billatzea. Jakitunak ez dau egiten bestenk **izadiak bere legeak** daukazala eta bete egiten dauzala esan baiño, **baiña jakttunak iñoz ez dakie ziur iza-diaren lege guztiak ezagutzen dabezen**. **Orregaitik ezin dabe esan jazokin berezi bat "izadiko legeen kanpotik" jazo dala. Esan leike. au bat, gaur egun ez daukala jakituri-giroko erantzun argirik emoteko**.

**"Ladara-jakitun bateri emon** dagiogun lora **bat eta jakitun lez eran-tzungo dausku: "^Zer da au?" Aztertu egiten dau, landaren artean bere** lekua **emoten dautso,** ezagutzen **ez ba'dau, ez da geldituko bere lekuazein dan aurkitu-arte,**

Gazte **batek bere ezkongaiari lora bat emoten dautsola egin dagigun**. **Onek lora orretan mezu bat aurkitzen dau. loreak oneri zerbait esaten dau-tso.**

O**nentzat itauna ez da "Zer da au? Lorea bat bera izan arren. kasu bakoitzean esangura-mailla ezbardiña dauko. Ikuspegi bi orretk, ain** ezba-diñak **izan arren, ez dira alkartu-aziñak: Landere-zaleak be maitemindu lei-**tekez.

• **Gaiñera, Jesus'ek ez dauz gogoratzen bere mirariak, bere Jaungoikozko egia "zirutatzeko"**. **Fariseoak ziurbide bat eskatzen dautsoenean, ezetz biribilla emon eutsen {Mk. 8.11-12) Mirariak "ezaugarriak" dira** eta Jesus'egan **sinistea errazoizko** gauza lez agertzen dabe,

Zer esan nai dau onek?

Baiña Jaungoikoak bere aldetik, gure askatasunan itzattasuna izaten dautso eta onartu egiten dau. Alatz edo miranak bide-erdian izten gaitue. argitasun osotik eritxi utsera dagoan Bideareri erdian. Ebanjelioan irakurten diran miranak ez dabe iñor beartzen Jesus benetako Jaungoikoa dala smistera. Jaungoikoak bialdua dala sinistera be ez. 8aiña berak egiten dauzanak ikusi ondoren, errazoizkoa dala esan let ori sinistea. Fedearen lenengo elburua Jaungoikoa eta berak bialdu dauan Jesuknslo smistea da. Beste egi guztiak eskutukirik sakonenak eurak be bai, errazoizko biurtzen dira, Jesus ek iraga-Tiak diralako.

• Mirariak, batez be, Jaungoikoaren Erreiñua gure artean dagoala guri agertzeko ezaugarnak dira. Orixe esan eban Jesus'ek berak, Nazaret'eko sinagogan egmdako berbaldi ospetsuan. Berbaldi au Lukas ebanjelanak bost berbatan labutzen dau: "Gaurbetedaidatzitakoau" (Lk. 4,16-21). Orregaitik. Jesus'en mirariak beti izaten dira onerako egiteak (ez txarrerako, noizean bein Itun Zarreko Miranetan jazoten dan lez). Jesus'en mirariak beti dauke gizona onaren elburu lez

## 5. Fedearen berezitasunak

e Fedea, ezagutze ta maitatzezko egmkizuna da

Eta on gizonak bere burua oso-osoan eskintzea dalako. Persona bat zelakoa dan jakiteko ez dago beste biderik gogobideko alkartzea baiño, alkartzegiroko ezaugarria, maitasuna ta alkar-ezagutzea batera doazela: Persona oso-osoak emoten dautso bere burua ezagutzen eta maitaizen dauanari.

Olan ba, sinismen-eginkizuna persona batek beste bateri emoten dautson erantzuna da. Eta orrexegaitik da ezagutzearen ela maitasunaren egintza, batasun ausi-eziñean: Persona osoagandik sortzen da.

• Fedea illunada

Fede-eginizan norki bat agertzen jako beste baten: eta ori beti izaten da gauza Uluna. Norki bat ezin daike ezagutu uts-utsean, maitasunaren atea da bide bakarra. Baina maitasunaren atea beti da ate illuna.

Gaiñera, illuna da fedea, Jaungoikozko norkia agertzen dalako gizonezko baten egiteen bidez. Egia esan, testigantzak argitzendau. ela testigantza orretatik dator gure argia. Baiña ez dau agertzen Jaungokoa ezkutauta dagoan norbait lez baiño. eta ondoren lez, gure adimenetik kanpoan dagoan izaki lez agertzen da, oso-osoan ez ba'da be, Fede-egintza adimenetik urrin dagoan gauza lez, beste gauza bat lez agertzen da.

Ba-daukoz illuntasun onek beste laiño batzuk be. Federako jaioten dana, jausita dagoan norbait da eta bere fedea Jainko-billatzea da, eta Jaungoiko on ez dago atsegm-baratzean lenengo gizonagandik egon zan bestean ur. Orrelan obeto ulertzen da Agustin deunak esana: "Fedearen begiak" dira Jaungoikoa ikusten dabenak eta "tedearen eskuak" illunetan dagoan norbait ikututen dabenak.

• **Fedea ziurra da**

Ziurtasuna aurrean dagoanaren ikusgarritasunada, baietzaren sendotasuna. Fedea ziurra da, beragaz egia eukitean ziur nagoalako. Baiña fedeagaz "ikusi ez dot egiten"*, Zelan da ba orduan ziurra? Ikusten dauanagaz bat eginda nagoalako.

Esan dogun on errazoi-bidean dago. Fedearen oiñarriak egiak ez ba'dtra, eta gugaz alkartzen dan norkia ba'da oiñarria, norkia da egiak ikusten dauzana eta gure ezagutzea sendotasun osoaz ziurtatze osoaz ziurtatzen dauana. Fedea Jaungoikoan geure burua ezkintzea da, Jaungoikoa persona lez artuta. Eta persona uts-eziña, gaiñera. Fedearen ziurtasuna ez da izango argitasun aundiagokoa beste egtena baiño, baiña bai sendotasunez aundiagoa.

© Fedea norberak biMatzea da

Bat edo bi bizitzearen bidetik batera doazenean, euren aikar-ezagu-*Izea* be aurrera doa, ez da otza, bizia baiño. Eta alkar onartze onek euren buruak alkarran eskintzera daroaz geroago ta geiago, maitasuna be geroago ta aundiagoa dalako. Fedea be personen arteko artu-emon argi-argia da. Eta persona orrein artean alkar ezagutzea ta maitatzea aurrera doaz: bide luzea ta etenbakoa da, onaren atzetik oinkadak emotea, eta on eziun izan beste personabat baiño.

• Fedeak eskatzen dauana.

Fedea onelan ulertu ezkero. ez da bein lortu eta betikoa dan gauza. Fedea bizi egm bear da. eta bizite onetan dago bere izatea :

- Arriskua da, aikartzea bera be eriotzarako epaia artu eban baiegaz egiten dalako. Era 'ikaslea ez da izango irakaslea bamo aundiagoa".

- Berbea betetea eskatzen dau. Norberari egiten jakon deia da eta norberaren erantzuna emon ebar jako. Jaungoikoak erri bat sortzeko egiten dausku dei: Erriagaz balera neure berbea emoten ez ba'dot. ez naz Jaungoikoagaz be berbatuten.

- Aurrerakoia da. Fedea ezin gorde lei bitxi eder bat gordeten dan antzera Jaungoikoa onartzea. bera ezagutzean beti aurrera egitea da, berari geroago ta obeto erantzutea. Ez dago fedea egon-leku bat lez artzenk. Adiskidetasuna, maitasuna. aundi egilen ez ba dira il egiten diran lez. antzera fedea azi egiten ez ba'da il egiten da.

- Alkarte-girokoa da. Jaungoikoaren deiari erantzuna emon bear dautsona bakoitza izan arren, Jaungoikoak erri bat osotzeko egin dausku dei: Fedea neure gauzea bakarrik dala esatea, neure ta Jaungoikoaren arteko gauzea bakamk daia uste izatea, norabiderik ezdaukan erilxia da. Fedea, bakoitxak Jaungoikoari emoten dautson erantzuna izan arren, alkartearen bidez izan bearda. Elaatkartea. Jaungoikoaren Erna. Eleizeadaflkusi liburuonenatal onetan azkenean datorren eraskiña).

Bakoitxaren fedeak
alkartean dauka bere bidea.

Gaia **zabaldu dagjgun**

**1°.** idazkia

Ulertu dot ondo fedea ez dala uts-utsean eztabaidatu ieiken gauzea, biziten dan edo biziten ez dan gauzea dala. nik asieran buruzko galdera bat egiten

neban baiña egun baten konturatu ninlzan otoitzak errazoi zuzenagoak ekarten daustazala. Baiña otoitza bera be asikeran lar zeaztubakoa zan. Ni ezaguna ez dan Jaungoiko baten aurrean nengoan eta auxe esaten neban: "Zu ñon ba'zara. emon egistazu argitasuna".

Ba-dago beste gauza bat be lagundu dauslana' Jaungoikoa ba-dagoala agertzeko zionk ez egotea. Jaungoikoa ezkutatua da. Zio orreik ez egotea. orixe da nitzat ziorik aundiena. Jaungoikoak gizonari itzaltasuna ba'dautso, gure aldetik gogoz beragana joatea nai daualako da. ez dau nai, beragan sinisteko gu beartuta egotea.

G.H. Clouzot. "Fede-irudiak" 142

2n. Idazkia

Bear danean zalantzan jarten be jakin egin bear da, ziurtasuna agertu bear danean besteen menpean jarten be bai. Orrelan jokatzen ez dauanak, ez dau ulertzen adimenaren indarra. Batzuk iru gauza orreik ez dabez aintzat artzen edo dana argi agertzekoa dala uste dabetako edo dana zalantzan jarten dabelako eta noz menpean jarri ez dakielako eta beti menpean jarri eta noiz aztertu ez dakielako. Nerberaren burua menperatzea eta norberaren adimena erabiltea. orixe da benetako kristiñautasuna.

Paskal. Pentsamentuak.

3n. Idazkia

FEDEA EZ DA Jainkoan buruz gizonak dauan azagutze aundiago bat.

Ez da gizonak Jaungoikoari buruz egiten dauan pentsaldi baten ondorena. Olako edozetn kasutan, fedea gizonen gauzea eta pentsatzaille aukeratuen gauzea litzake.

Fedea Jaungoikoa gugana etortea da.

Jaungoikoa gizonaren adimen-barrura sartzen da.

Gure gogoa besteen antzekoa dan baiño gorago jaso eta argitzen dauan Jaungoikoaren argia.

Bera ezagutzera eta bere izatean kideko izatera. berak dakiana jakitera gizona ekarten dauan Jaungoikoa.

FEDEA EZ DA BESTE BARIK. erle|iñozko jokabide bal, ainbesle gauza ezbardin bere barruan artzen dauzana, ez da bakoitxak nai dauana eukiten dauan kutxa baten antzekoa, ez da barru-berotasun edo ziurtasun zeaztubako bat, norberaren egoera bat Ja.mkoa bat-batera artze bat.

FEDEA jazokizun au onartzen dauan gizonaren baietza da:

JAUNGOIKOA MUNDURA ETORRI DA

JESUKRISTO GURE JAUNAGAN

ETA BERBA EGIN ETA IRAKATSI EGIN DAUSKU.

KREDOA da kristiñauaren baietza emoteko berbea

Fedea ez da ordaingarn bat eta egiteko eder bat

Fedea jaungoikoagaz eta bere berbeagaz alkartzeko jakabidea da. SiNISTEA ez da biozkada bat.
edo erlejiño-egite bat,
edo jakm-eza,
ez da adimenaren utsa.
edo baietzaren ekiña

SINISTEA adimenaren baietza da
naimena mdartzaille dala,
Jainkoaren berbeari amoten jakon baietza.
"Fede-irudiak" 10

4n. Idazkia

Baiña fedea Jaungoikoak gizonan egiten dautson ustegabeko emoitza da, Izan be, biziaren maiilak aitatzeko, landareak biziteko eskubidea ba'dau -

orrelan izan ezik ez litzake landarea, minerala baiño-; abereak bere zentzunen eskubidea ba'dauko eta bere kino-eraskunde aundi edo txikiagoa dagokio -abere *izalea ori* dana *dalako-; gizonaren berez'ñasuna geien bere* penlsamena ta adimena ba'dira eta gizona dalako orretarako eskubidea ba'dauko. ez dauko ez iñondik eta ez ezelan. Jaungoikoagaz barru-btzitzaren ateak zabaltzen dautsozan fedearen gei igarn arrigarna lortzeko eskubiderik. Fedea gauzak Jaungoikoren begiakaz ikustea da, berak emoten dausku bere begiramen sakona.

"Fede-irudiak" 10.

5n. Idazkia

Jesus'ek geiago aitafzen dau *iedea. maitasuna* batño. Fedea Espin'tu Santuaren doia da eta fedearen bidez garan guztia emoten dautsagu; gu baiño aundiagoa danari eta bere mezuari baietza emoten dautsogu. Fedea ez da egiten arrazoiz doan adimengaz; orrelako fedea baietz otza litzake, ez fedea. Ez da azaleko sentimen utsa be federa goroazena. orretarako adimenaren eta errazoien sakontasunean sakondu bearko genduke. Ez. fedea maitasunez eta. sakontasunez alkartzeada. jazokizunak aurrean dirala, Israel-erriak egin eban *anlzera edo Nazarel'eko* Jesus'ek eta Eleizeak bere kondatran egin daben antzera. Kondairako gauza guzti oneik batera artuta. testigantza bat dira eta egin bear dan aukera baten aurrean jarten gaitu. Gure adimenak gauza orreik aztertu egiten dauz. Baiña testigantza emoten dauan Jaungoikoak auxe aldarrikatzen dau' Ezelan be ezin eldu federa aztertzea egin barik, baiña "ni nor nazen benetan jakin gura ba'dozu, zeure burua neuri eskintzea eskalzen dautzut". Fedea jauzi bat da. baiña bere errezoia aldean daroan jauzi bat. Geure burua eskintzean aurkitzen dogu ortxe dagoala bizia, aundiagotzea ta bidea. Gauzea zenbakiz neurtu at ba'litz, ez litzake izango gizabidekoa ta bizia dan benetakooarmena.

Nagusientzat Katekesi-liburu barria
"Herder Arg. 8atzelona , 1969.

6n. Idazkia

Eskerrak zun. Aita Santua.
Jesus zure Semeagan agertu dauskuzulako
ezagumena. iedea la illezkortasuna.
*Ainlza* Zuri *gizaldietan.*
Zeu zara Maisu alguztiduna.
zure izenaren amtzarako egin zenduana
eta gizonari janaria emon dautsazuna.
orregaitik eskerrak emoten dautzuguz
Baiña guri gogozko janaria emon dauskuzu
eta betiko bizitzea Jesuknsto zure serbitzailleagan.
Aintza zuri gizaldietan.

Didache. II gizaldiko kristiñau-otoitza

Egin geinkena

AURKITU ... 1° idazkiko oiñari-gaia. Agertu ori lerro baten.

ULERTU ... ondo 2n. idazkia.

3n. IDAZKIAK ... labur azaltzen dau fedea zerdan. Egm *laburpena edo* lauki-bateratua.

AURKJTU ... eta sartu gai onetan 4n, IDAZKlA'ren gaia.

ALKARTU ... 6n. IDAZKIAREN gai osoa ikaskizun onegaz.

EGIN ... laburpena gai onen asieran dan laburpenetik asita.

OSOTU ... 2n. puntua 1° ta 2n. gaian dan gaurko fedeari ta erlejiñotasunan buruz esandakoagaz.

KONDAIRABAT...gizonaren. fedearenaurrerapenagazbardintuta.onxe da 3n. puntuan agertzen dana. Billatu beste giza-kondaira batzuk (maitasunezkoak. adiskidetasunezkoak, alkar bizitzazkoak ...) Billatu zertan diran bardiñak eta zer dan euretan oiñarnzkoa. Konparatu gero esan diran personen arteko artu-emonetan eta (idearen aurrerapean diran antzeko gauzak.

JAKIN NON DAGOZAN ... fedebako persona batzuk edo bat eta egin eukaraz bere fedenk-ezari buruz alkar-izketa bat. Ondorenak ekarn ikas-galera eta egin eztabaidatzea.

AURKITU ... gure inguruan eta geure bizitzan ezaugarnak. Jaungoikoa agertu jakula eta agertzen jakuta *agenzeko.*

AZTERTU ... ikas-gelan eta ulertu ondo Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren "Dei Verbum'' agiriaren 2 zenbakia.

BAKOITXAREN EKINTZA ... 5n. puntuan agertu diran fedearen berezitasunak ezarri ondo ezagutzen dozuzan persona batzui (bakoitxari be bai).

ERANTZUN ... itaun oneri; "Fedea 2elan izan datteke batera illuna ta ziurra"'?

ITAUNKETA ... izenik artu bank: "Zemtzuk dira fedearen aurkako zalantzarik aundienak"[9] Erantzunak ikas-gelan azaldu.

EGIN ... gai onen laburpena ingurraztian.

AZALDU ... gaia, asikerako laburpenagaz.

## **VIII.** GAIA

### JESUS'EK AGERTU DAUSKI'N JAUNGOIKOA
(Zergaitik sirmtu.
Oanen gaiñed'k Jesus. Fedea ufert/era doa>

Fedea ez dago begiak itxita: Ulertzera doa.

Jaungoikoaren gaia ez da onura-giroko gaia. (Bear dogulako? Ondo datorkulako?) Egiaren girokoa da {Bear ez ba'dogu be, ba-dago? Zelakoa da?) Esatea lez, Zergaitik sinisten dogu Jaungoikoa eta zelakoa da guk sinisten dogun Jaungoikoa.

Gai au aztertzean urrats oneik emongo doguz:

- Jaungoikoan dagokion burutasuna errazoiz-aurkakoa da ala ez; Bera badagoala jakilera eldu *a\ geinieken aia ez dagoaia ta errazo't* bidekoa *ez* dala agerlu al dauskuen

- Nondik nora joan geintekez Jainkoagana?
- Eltzen garanean aurkitzen dogun Jaungoikoa zelakoa dan.

### **ELDU GEINTEKE**Z JAUNGOIKOAGANA?

URRERATZEKO BIDEAK.
- Ezin ziurtatu ba-dagoala.
- Jakitunak ezin *6au* ziurtatu Jaungoikonk ez dagoala
- 8aiña *errazoi-btdez* eldu *gemtekez* beragana.
- Eta bera ezagutu be bai.

**Mundu** onetatik
Jainkoagana eltzeko
bideak

- **Izaki igarokorrak berez dan izakia eskatzen dabe**
- **Munduan diran egokitasunak** eta **eiburuak** izateak, adimendun izaki bal izatea eskatzen dabe.

Gizonagandik Jainkoagana eltzeko
bideak

- **Gizona. egiten eta bitfatzen dabiilen** izakia.
- **Gizona, zorion-billa** dabillen **izakia.**
- **Maitasunaren** indarra.

**JESUKRfSTOREN JAL/NGOIKOA**

- **Jaungoikoa gizonagazdago**
- **Jaungoikoak gizona askatu egiten dau**

- **Jainkoak gizonari bidea damotso**
- **Maitasunaz askatzen dau gizona**

- **Jaungotkoa Jesus'egan agertzen da**.

**1. Guk bear ete dogu Jaungoikorik?**

- **Gure denporetan sarritan entzuten da erlejiñoa ez dala besterik antxiñatik** ***elomlako gauzen ondakiña baiño.*** **Len** ***edozein lekutan aurkitzen zanJaungoikoa.*** **errez: esaterako.** jakitunak ulertu-eziñeko zerbait aurkitzen **ebenean**. **Gaur ez dogu bear Jaungoikorik lur-ikara bat zer dan azaltzeko edo**

legortasuna kentzeko, onetarako ur-aska aundiak egiten doguz. Baiña Jaungoikoak ez ete dau gizonaren bidera urteten gaur[9] Ala Jaungoikoan buruz euki dogun eritxia aldatu egm bear ete da?.

- Knstiñauen pentsamentuan agertzen danez. Jaungoikoak berak egin eban mundua eta gizonen eskuetan itzi eban, oneik mundugintza-iana jarraitu dagien. Baiña gure ingurura begiratzen ba'dogu. laster konturatuko gara zein dan gaurko persona askoren pentsakerea:

"Jaungoikoa ez jaku arduragarn". Gureardurea, etorkizun obea edodirua eta ospea... izatea da.

"Jaungoikoa alperrekoa da". Gizona bakarrik naikoa da!a uste dabe.

"Jaungoikoa ez da gaurko gauzea". Orregaitik, bera barik aurrera doaz.

"Jaungoikoa ez da onartzekoa" Alboratu egin bear da, antxiñakoa da-ta.

"Jaungoikoa gizonaren aurka dago". Biak alkarren aurka dagoz. gizona*ren* aide *dagoana, Jaungoikoaren aurka dago.*

Eta pentsabide guzti orren oiñarn'a bat bera da: Bear ete dogu Jaungoikorik?

- Baiña ez da au be *itaun zuzen-zuzena: Jaungoikoari buruz* pentsabidea ezin daiteke onura-bidean jarri, egi-bidean baiño. Jaungoikoa ez da guk ara ta ona erabilli geinken gauza bat. ezm esan daike, guk bear ba'dogu Jaungoikoa ba-dago eta guk bear ez ba'dogu ez dago. Bear naiz ez bear, guk jakin bear doguna badagoan aia ez dagoan, orixe da.

- Gu kristiñauen giroan jaioak gara eta gure inguruan kristiñauak sortutako jakintza daukagu. Gu Jaungoikoaren smistera gurasoen eta ezitzaideen bidez, fede-bidez eldu gara. Eta orain beste itaun bat egiten dogu: Eldu ete geintekez Jaungoikoagana aztertze ta pentsabidez? Itaun oneri erantzutea izango da gai onen eiburua. Ulertzera joten dauan fedea *da. Errazoibidean* dagoan fedea.

2. Jaungoikoagana urreratzeko bideak

• 'Bideak" esaten dogu. ez "ziurtatzeak". Zientziaren bideak ezin dabe agertu Jaungoikoa ba-dagoala. Saiña ez dagoala be ezm ieikee ziurtatu

• Batikanoko I Eleiz-8atzar Nagusiak (Ik. 8UP'eko 2n. urtean V gaia) ertz biren erdiko lekua artu eban. alde batetik errazoi-zaleena (oneik Jaungoikoa ba-dagoala ziurtatzen dabe) eta bestetik fede-zaleena (oneik Jaungoikoa ezagutzeko bide bakarra bera agertzea dala diñoe. Ertz bi orrein erdian Batzar Nagusiak auxe diño: Gizonak errazoi-bidez ezagutu leikela Jaungoikoa. egindako gauzak argibide dirala.

• Baiña Jaungoikoa smisten dogun geienok, ez gara siniste orretara eldu pentsabidez edo ztentzi-bidez. Gure bizitzan norabidea dogun Aren ondora beste bide batzutatik eldu gara. Guk ez dogu sintsten gure fedea errazoibidez ziurtatzen dalako. Jaungoikoaren grazia da sinistera dei egiten dauskuna. Baiña fedea be ez da oiñarri bakoa. errazoibidekoa da. ez da errazoiaren aurkakoa.

3. Munduan asten diran Jaungoikoaganako bideak

Bearrezko-eza izatea.

« Anlxiñako jakinzaleentzat, aurrean diran izakiak bearrezko-ezak izatea. diran lez. izan-ez izan leitekezela. izatea eurakandik ez datorkela. onxe da bidearen asierea. Izaki orreik berez ez litzakez izan bear... euren artekoa ez dan batek emon bear dautse izate ori.

Ortik ateraten dabe izaki-bearrezko-ezak bearrezkoa dan bat izatea eskatzen dauala. bearrezkoa dan bat bear dauala, bera baiño goragokoa ta ienagokoa... Ori adieratzen da erri-giroan au esaten danean: Ez dago erlojurik iñok egin bakorik. Gizonak berez uste dau mundu onek asierea izan ebaia (ori guztiz antxiña izan dala uste izan arren be). Eta orrelan eltzen gara danaren lenengo iturn bat izan dala uste izatera.

• Baiña ba-dira jakitun eta pentsatzailleak oin-gaia edo materia (gaur obeto esana litzake indar-gaia edo energia) betikoa dala diñoenak. Eta zientziak

eurak be entxi onen alde agertzen dira (indar-gaia, energta ez da sortzen edo gattzen. aldaiu egiten da), Enlropia esaten dautsoen arauak ostera. mdar-gaia galtzen doala diño eta egunen baten ezin aldatu izango dala Munduaren azkena gogoratu bearko dogu ba. Eta azkena ba-dator asierea be izan zalako da... Eia orrek zeozer esan gura dausku. Oramgo zientzi-gizonak munduak zenbat urte dauzan be esan egiten dabe, bost milla milloi urte mguru. Ori orrelan izan ezkero. munduaren kondairan lenengo minutuaren aurrean dan uts-aldira eldu geintekez: Zer jazo zan orduan"? Zergailik asi zan izaten? Ez ete da errazoizkoa, izatea emon eutson Lenengo Egillea izan zala esatea?

Zergailik asi zan izaten[7]
Errazoi-bidekoa da lenengo egillea izan zala uste izatea?

• Errez ikusten da pentsabide oneik zientzi-bidekoak baiño aurrerago doazela: Matadsika-giroak dira. Eta emen aurkilu daike fededunak bere fedearen errazoi-bidea.

» 8aiña esandako au ez da dana. Izakien lenengo sortzaille ori Bearrezko izakia da, gorenko izaki askea, mugabakoa. 8aiña ori ez da egin-egiñean oraindiño kristiñauok sinisten dogun norki dan jaungoikoa. Ori pentsa-gai bat da edo atera dan ondoren bat, baiña ez oraindiño persona bizi bat, aintzat artzen, maitatzen eta gurtzen dogun norbait.

## Munduko egokitasuna ta elburuak izatea

» Mundutik asten dan orretarako beste bide bat. munduan aurkitzen dogun egokitasuna ta elburuak izatea. au batez be bizidunen artean, dogu. Izaki txikietatik aundietara, bizibakoetatik bizietara aurrerapen bat dagoala ikusten dogu eta aurrerapen ori norberaren burua ezagutzean amaitzen da. Eta ezin sinistu bizien urrengorik urrengora agertze au norabidebako naste bat danik. Munduko aurrerapena dana batera begiratu ezkero, goi-maillako bizia sortzera doala argi ikusten da, argiago esateko, gizona sortzera,

Jaungoikoa, Knsto'çan gizabicleko arriskuak bnragandu ondoren, dei ngiten dausku gcuk be airisku orreik geuganatu eta kondanako gure lana bete dagigun.Otoitznk.gu Jaungoikoagaz sustraitu ondoron, bultz egiten daLiskri bizitzan Rerak eskini/en dauskun salbamena bete-leko Eta saki amentuetat'i argi agertzen dan Jaungoikaaren grgziak eutsi egiten dausku lan on'-tan. Grazia ez dogn lortzen geure alegi •~ikaz, Jaungoikoaren emoitza da (grazia duan emofra) "munu'uijintza barna'en" lana bete dagigun.

5.- "Emen" ala "an"?

* Jaungoikoaren Erreiñua ez da b'zitzeagaz zer-iktisirik ez dau-•,ji\ gauzea, ez da beteten gure eguneroko bizitzeagaz zer-ikusirik ez daukan toki baten. Ez cla bizitzea baiño "arago" bakarrik aurki-tzen dan zerbait, emeñ asten dana baiño, Erreiñuaren balioak emen 'nartzen dauz eta giza-lan biurtu.

* Orregaitik emen lortzen diran zatizko salbamen-eskuralzeak (emDn, orain eta astiro-astiro lortzen diranak) gi'zonai emongo jakezan Jaungoikoagandiko nzken-satbamenaren ezaugarriak be ba-dira. Baiña ezaugarriak banio geiago be bai: Erreiñna bera be aurreratu egilen da-be.

Jesus'ek ezaugarriakaz markatzen dau erreiñuaren etorrerea, eneiñu onen asierea, gaisotasunaren eta kanpotiko indar arduraga-rrien gaiñetiko garaipena aslen dalako. Geiago oraindiño, Jesus'ek •''''ena dauko, aaiñera, pekatua dan gauza ezkiMu orretatik gizona as-!<• - cko parkamena iragarri eta ekarri egiten dausku. Baiña, bide

halez, Jestis'ek mundo onetako egunak banVi arago dagoan Erreiñua-ren neunia nagailen 'lausku: ("Nire Aitarr i etxean bizi-leku asko dagoz" Jn, 14, 1-3, "Gaui nigaz izango zara paiadisuan" Lk. 23, 43. Esan geinke ba, salbamena "emen aslen dala" eta "an amaitu". Emen a<den cla fededijna alclatu pta bizitzan ezezkorra dan yuztia aldatzen dauanean, pekatua bere gizarte ta banakako agpjpon guztiakaz ken-Izen ciauanean; efa *3n* amailzen da, asilako aun prapenak azkena ijaukanean, peisoneak aurierapen oirotara sarUi efa Etreiñua egiteko J^sus'on cleia boi e gauza hmrtzen dauanenn.

O rrerjai l ik, eloikizuna sinisten rlauanaron aldia da: "Ez dau-ktiyu i>men ui'i iratmkorr ik, gerokoaren liiUñ gabil2" (tbcit. 13, M) Ela oiaiña atboratn barik. okerl.o:ia ouaiiu barik, oiain erjilen dogu-uak efa bizi dogunak be/e eiburua izango dau.Bidc onotal ik.sinisiei'u-•:p'P.tzat eioikizuna oraiña biuilzen Ua: A I ; I ' <ivkcia baten azkenak dauan pozaien antzekoa dan etoi kizuna...

6.- Oraindiño be itxaron?

* Knstiñaua, itxaropena claukan andrea odo gizona da. Efa itxatofea, gure bizitzea egin eta ekitea gura dogunoi, gafx egiten jaku ulertzea.

Zelan ulertu lei itxaropena? Egote ulsa bera ete rla? A'a zer di-ñon leoloji-iztecji bafek:

> "Ifxaropena lortu-eziña ez cfan haiña gaitxa dan etorteko ondasun bateri buruz izaten da. Naimenaren indar egitea da eta graziaren laguntzagaitik lortu leike. Indar ori dala-ta gizonak, Jaungoiko Alguztidunagan itxatopena jarrita, betiko bizitzea eta au lortzck<: kguntzaf itxaroten dauz. Itxaropcna ibillari dnn gizonarcn (in safatu viatoris} onoimena da"

* llxaropena ekintza da ba. ez egote ufsa. Orrolan bizilzea obetzeko itx aropenaren antzekoa cla. Jaungoikobako argi agertzen duan yizabide askok dauken itxaropcnai en anlzekoa. Baiña krisli-ñauen itxaropena arago doa, eta onago bo ba-cialor. Arago, istori;)-bk kanpoiakoa dalako, beteten dan akiia baiño "arago" dagoalako.

Onagokoa be bai. gizabideen ekintzak etorkizunera ioan arren. au datorrenean. etorten ba'da, norbera kideko ez dauan gizarte baterako izango dira. Knstiñauen itxaropena, ostera, gizonentzat zerbait itxaroteko bidea da. baiña neurea ta neuretzal dan zerbait itxarotekoa.

## 7.- Zelan itxaron?

* Norbaitek esana da trenari itxaroteko era bi dagozela. bala geltokiko jesarlekuan jnsarnla egonez eta bestea trenaii bidera urtenez. Kristiñauen itxaropena trenari itxaioteko bigarren ereatren antzekoa da. Eta ez uste izan au asmapen utsa danik:

> "Ez da "etorteko dana"ren itxampena bakarrik. sinistedunentzat emen dagoan Jaungoikoaren Erreiñuaren bizi-ikasia da".
>
> "Kristiñauen itxaropen onek gizonok askatu egiten gaitu "dana" egiteko gurari eta arrluiakerit:k ela "ezer"ez egiteko tentalditik".
>
> "Jesus'ek gizonen izatea zapaltzen daben iñorenganatze guztietatik askatzea dan "amesa" iragarri eban munduarentzat; neke-miñetatik, gorrototik. zapalkuntzatik, pekatutik eta, azkenez, eriotzatik be bai askatuko gaituana. Bera gure artean izateak gaurkotu egiten dau mundu onen oiñarrien iraulketea, bere aldiko izkuntzan "Jaungoikoaren Erreiñua" esa'en dautsola".
>
> (Gazte LangiMe Krisliñauak norfzuk diran. Macfrid, 1983}

> "Eskatoloji-giroko ilxaropenak *ez* dautse kentzen gaurko arazoai euren garrantzia, lan ori egiteko indarrari oiñarri barriak emoten dautsoz" (Gaudium et Spes 21.)

Aurkian jesarrita, naiz
bidera urtenda
itxaron lei trena.

8.- Dana zergaitik?

* Gizadiaren ikuspccjia ourrean dauala gizonak beti egin dauan •launa auxe da. Erlejiño guztiai cgiten jal<en eta jakinzale guztiak eran-Izun (jura daban itauna d<j au. Eta, barria izan ez arren. gulariko bakoi-Ixak baiii lez aitzcn donu. z^ozcr eoilen osi ela il.-iun at; ogiten dogu-noam Au (Jana zerlarako da?

* Krishñauen eian'.ZLina emoteko nu hide clagoz eta bide bakoi-txak asik-nian jatoirizko pekatua ipinlen dau eta auxe da lurrean rlan gizonak ezetzciako rlauan jokabideaien asiete.l (Ikusi BUP'eko 1° Lirtean, V I gaia).

— Asiera (iburuan 3n. atalean cfagoan idazkia. gizonarcn jaustea goynratzen dauana, ipuin-antzekoen birjez\ ei lejiño-n udiak bide di-ua'a. auxe agertzeko da: Gizonak borak tlau.-la zali on batcn here gaitxaien eranlzukizLina eia ba-darikala urtonbide bal. Au ondo eta zeatz Lilerlu bear da, albo-bidenk artti bank.

— San Paulo'k alkarren parean ipinten dauz Aclan-berak egiña eta Kristo eta onelan acnailzen dflu: Gizon balen esaneko ez izateak guztiok pekatan eyin gmduzan lez, beste baten esaneko izateak guz-tiok biuitti gaitu zuzen" Errom. 5,19)

Jakingarri oneitatik asita, Teologoak eta Eleizearen iraskaskin-tzak, jatorrtzko obena gogoralzen dauskue, gizonaren zori-txarren oiñarri iez: "Gizonaren kondjiraron asieratik. onek, askatasunak atsi-pctuta, ez eban onartu Jaungoikoaren rnaitasuna, pekatua sartu eban mundura e(a pekatuagaz eriotzea, okerkeria eta neke-miñak" (Gazte-IxLien katekesis-liburua, 215 orr.)

* Pekaki au ez da urtenbiderik ez daukan kale balera, nai ta nai ez, sartzen gaituan adu txar bat. Eleizeak ez dau iñoz onartu gi-zonak lunean dauan egoerean buruz pentsakera ezezkorra. Oi relan izan ba'litz non geratu litzakean gizadia ber-egiteko Kristo'ren lana! Atsegm-baratzean bertan sortu zan ilxaropena, txarra azpiratuko dauan gizadi barri balen itxuraz, pekatuan jaustea izan ondoren: "Asjrreak sortuko dodaz zure ta emakumearen a'toan, zure ondoren-goen eta aren ondorengoen artean: berak zapalduko dau zure hurua, zuk bere oiñazira erasoa egiten dozun arlean ( As. 3,15).

Gizonaren gaiñera txarraren zabaltze-antzeko bat datorrefa egia da. baiña egia da baita Kristo gure artera etorri dala onaren zabaltze baten antzera. Eta txarra azpiratzeko ekiñaldi oneri, dan lakoa dala, sinistedun guztiok emon bear dautsagu laguntza: Auxe da arazoe-' ~;a sartzeko bete-bearra, aurreko gaian aztertu doguna.

9.- Bide^ron a?.ke.oa

* Gizonaren zeregiña eriotzea datorrenean amaitzen da. Eriotzea da personentzat bizi-ikasirik illunena. Eriot zearen aurrean ezin geinhc- ^gin aztuta gagozelakonk {"illa il-obira eta bizi bizi-ogira"), ezin geinke eriolzea umeen antzera begiratu (askok nste dab-? oraindiño San Pedro dabillala zeruko giltzakaz eta txarrena mpernuko galdaretan beroa neurtzen Pedro Botero'ten anlzera. Baiña ez dira pentsaora guztiak ain azalelik dabiltzanak: "Emazteaien oriotzeak urraluta 'i ¯i nindun. Aingeruak lakoa zan cta eriotzeak ankerkeriz rbagi eban bere bizitzea. Nik ben^tan gmtu egiten neban; baiña mailasunaren gaiñetik dago errukia Milla bider naiano izango neban neu iltfa bera illen ikustea baiño, milla bizitza emongo nebazan berearen ordez. Ez dot uste nire sentimentu onetan ezer bereziiik clagoanik. Gunnn zeozer il-eziña dogo eta onek il egin gura leuke ilten danagaz. Bear ba'da oirexegaitik etorri zan Jaungoikoa mundi/ra. Ori pcntsau ezkero, pizka bat baretu egiten naz... Olan be. gaur nigan iñoz baiño geiago bizi da eta batzutan sendo sinisten dot bera barriro eskuiatuko dodala. "Eroapena ta apaltasuna" (Machado'k Unamuno'ri egindako eskutilzetik).

Au bai. au ba-da beste era bat. gizabidekoa ta duintasunez betea, gauzak aztertzeko. Baiña gizabideko arazo-agertzeak, eriotzearen aurrean ez dabe larregi laguntzen. Orregaitik izaten da fedeari galderak egin-bearra.

Jauna! Maiteen nebana kendu zounstan.
Eritzun barriro, Jauna, nire biotzaren aldarria.
Zure naimena bete zan, Jauna, baiña Nirearen aurka.
Jauoa! Orain bakarrik gagoz nire biotza ta itxasoa.

Fedeari galderak egin-bearra rlaukagu.

* 7er da eriotzea Jesus'enlzat? Berak esalen euskun lez, enolzea bide baten azkena da. Eta bide batelik joateko eiak asko dira ela bide-kurutze baten okerrekoa artzea be jazo leiteke. Gairantzia benetan daukana barriro indarrak artu eta bide zuzena billatzea da. Jesus'ek diñoskuna, bidearen azkenean Jaungoikoa bera daukagula itxa-(oten, orixe da, eta berak "sikatuko dauskuzala gLi'e begielako negarrak" eta berak egingo dauskula dei "Jatordura". b' 'i/a osotura, eldulasun batera, zerura. Eiiotzea. lurrera uslelduteko eta izale barri baleii lpl<Lia ernotcko bolaten dan aziaien antzckoa *(^.*

* Izan leitpken gauzca cte *dr\,* bideak a/kona daukala jakinda, eriol zea, ektubakoa izalea, noiberekeiia naiago izatna[7] Jaungnikoa e? tkuslea naiago izal^a? Olakonk ba'lcgo, orrek gaiztokia (inpcrnua) aLikeiatu dau. Baiña Jaungoikoak nai dauana gizona salbatzea da, Reiak pskintzen dauana znrua da, bizitza osoa. Dana dala, JaLingoikoak ez clau, nai ta nai ez, beie gurai ia ezarten. bers aukeiea eskintzcn dau, beiak cloi egiten dausku, baiha itzaltasuna daukula, bcraganako gure askatasunaren agerbiderik aundiena dana kendu barik, beia alboratzcko aLtkerea kendu barik

"* Ez da qauza erreza guk, daukaguzan akbarcn pcnlsabideak eukila, bakoilxarenak diran eriotzen ostean izaten diran uiie oneik zelakoak izan dailekezan irudimenez asmatzea. Eieizearen erantzuna, San Paulo'renagaz batera, auxe da: "Jaunagan lo egin dabenak Jaunagan dagozala" {I Tes. 4,17). Jesus'ek lapttr onnri esan eutsona be aiztu barik: "GaLir egongo zara neugaz atsegin-baralzean" (Lk. 23,43).

Orrek esan gLira dau eriotzea izan eta laster personok Jaungoikoa aurrean daukagufa sentitzen dogula eta bcra aurrean izate oirek bizitzako gure aukerea agertuko dauskula (orrexeri esaten jako eriotza-ostck'o epaikundea). Eta, gutariko bakoilxaren kondairak izan dauan ezetzerakoa dana or agertzen dan ezkero, beti esan dau Eleizeak ba-dagoala Jaungoikoarcn emaitz bat, beste bat. gizona garbitokian jarteko. personeak izan dauan eldutasunik *e.ia.* okerra edo pekatua, bizi barria osoan biziteko eragozpen izan daitekena. bere puntuan ipiñi dagian.

10.- Zeru barna ta-l-tir"barna ikust nebazan

* "Bafriro etoniko naz" (Ap. Eg. 1.11) esan eban Josus'ek Igokunde-aurrean. "Zatoz, Jauna" esaten dogu krisliñauok gure otoitzean.

Gure fedeak diñosku bera bam'ro elorriko d'il-i. E(a gure fedeak *p.7* dau utsik emoten: Jesus'egan uste osoa daukagulako, bera baniio etornko dala ziurtasuna daukagu. Ez len ntorri zan antzera, orain hf?re nortasunaren bairu-barruan agertuko d,-i: Jaunaoikoaran Semea.

* Baiña iñok ez dagiala uste izan au jai-giroko azkena izango dala. Ori ez litzake gauza serioa. Jaungoikoak geiagotzat gaukaz. o/ *da* otorriko gu bera ikusi'a agoa zabahk qeiatu gaitezan. Bora dan l.ikna agertzeko etorriko jaku, ozNako okcr-ulertu barik. bera Mala kondairaren Jauna ikusi dagigun, Alfa ta Omega dala bera (Apok. *?.2.*1 3) eta orrelan gizonak azkeneko onbide lez egin *doguna* eta oke/-bidez egin doguna argi agertzeko: Egin ela egin amaitu dogun kondai-iaii azkena emoteko eta kondaira oiretan gizonak eojindako ekmtzak daben azkeneko esangurea agertzcko. Orrexen esaten *dauisogu* 'azke-neko epaikundea".

Gai onen asieran esan dogu, fededunaren aidia etorkizuna dala: *Oi^'m* ba-dakigu ori zelan dan.

Esan dogu Jesus'en Berbizkundea gure itxaropena dala. Eta ba-dakigu zergaitik: "Guztien beibizkundoa" esaten dautseguna itxaro-tpn dogu eta ordu orretan burrukaz billatzen dogun mundugintza ba-rna osotu eta bere azkenera elduko da. Une orretan persona guztiak eta izadi guztiak esan al *'izdngo dogu* Jaun Deunagaz batera: "Zeiu barria eia lur barria ikusi nebazan" (Apok. 21,1).

'leiago ikasi geinke

1 !da2kia

Oiñarrizko ara/o oirt urtenbidea emoteko etorri *zan Kr'tito-* Txa-*rr^ren* aiazoari eta enolzfnrenari. Onoixek dira gizonaien larritasuna

osotzen dabenak. Jaungoiko gizon egiñak be eroapen aundiagaz eroan ebazan nekeak. Txarra ta eriotzea ez dira iñoren erruari ezarteko gauzak. berak larritasuna ta eriotzea jasan ebazan ezkero. Golgota mendiko gauak orrenbesteko garrantzia ba'dauko gizonen bizitzan, onexegaitik da: IHuntasun aretan jaungoikotasunak, bere betiko eskubide bereziak agiri-agirian itzita, eriotzearen larritasuna sakontasun aundiagaz eta itxaropenbakotasunagaz bizi izan ebalako.

Albert Camus.

2n. Idazkia

Munduan dan txaikeriari buiuz gu errubakoak ete gara? Kristo il f^bnn pta gaui erruhnkoak joten dauzan txarkerian gu errubakoak etc gma? Not da zelnn edo alan muiiduko txarkeria ugoritzen ez daunna? Nok kendu dau, betirako, txarkeria bere hiotzotik? Nok ez rJauz pausuak emoten illuntasunean? Nok ez dau egiten pekatu? Nok[7]

Teofilo Babestreros.'

3n. Idazkia

Nok aukeratzen dau Kristo Kurutze barik? Sortaldeko jakintzak fedeari eutsi gura dautsanean, baiña garbiak izateko, kurutzea artzeko eta arerioak maitatzeko diñoan jokabide sendoa artu barik. Nok aukeratzen ciau kurutzea Kristo barik?. Arau betetzea, gizarte egok'tasuna, nekea, bear dauan baiña Jesus Salbatzaille lez onartzen ez dauan bidea artzen daben Rusia'k eta Txina'k. Jesus kurutze barik barru-min utsa da. Kurutzea Jesus barik. Dachau'ko oiñazea da.

Fulton J. Sheen.

4n. Idazkia?

Gorputz berbiztuen izakereari huruz, auxe da ikusten doguna: Teologoak, gaur daikaguzan gorputzaka/ berbiztuko garala esan

ebanean, orduan gorputza izadi au bairio aragoko gauzea zala, ez izadikoa uste eben; orduan gorputza oiñarriko gaia zan eta ez gaiñean ezarten jakozan geigarriak. Orain, orrexegaitik, arazo au sortu jaku: Fedeko irakatsiak, berbizkundeari buiuz, gaur daukaguzan gorputzakaz salbauko garala esaten dabenean, ez dabela argitzen zelakoa izango dan izadi-giroko gorputz onek, jakitunak aztertzen daben goV putz onek, izango dauan etorkizuna. Baiña irakatsi onek bai emoten dauskula argibide zealza gorputzak dauan erlejiñogiroko balioa agertzeko: Ezin artu geinke gorputza gogoaren parean, espirituaren edo arrazoiaren parean. duintasun gitxiko lez edo gauza oneik baiño galgarriago lez.

Andres Tornos. "Teologoak eta ango bizitza"
Razon y fe. Otxailla 1984.

5n. Idazkia

Teologo asko, gogaikarri izatea nai ez ba'dogu, izadi larrituaren girora sartuko gintzakez geroko bizitzeari buruz itauntzen dauskuenean eta asmo txarrak eraginda esango genduke: "Geroago. Zer baiño geroago? Duintasun -itaura aundi bat artuta diñogu: Kristo etorri dan ezkero ez dogu gerorik, oraiña, emengoa, baiño besterik. Edo arrokeriz beterik esango genduke: "Gero" ori orain biurtu da denpora asko dala. Jesus'en Pazkoa izan zanean egin zan aldakuntza ori eta andra eta gizon askoren eguneroko bizitzan jazoten jarraitzen dau orrek: Jaungoikoaren bizitzea, epaikundea, Jaungoikoagandik aldenduta geratzea...

(»0

Ni neu lotsatu egiten naz Paulo'k artzen eban antzera olako erretolika dizdiratsuak *attzen,* bear ba'da nire fedearen sendotasuna urriagoa dalako. Baiña edozeian be, auxe bai esan gura neuke: Ez egiztazue eriotzea baiño arago edo geroago zer dagoan itaundi, izan beitez zuen itaunak Kristo dan Jesus'eri buruz. Ortxe izaten dabe egiteko tokia egokia itaunak; edo itaundu bere berben, bizitzearen eta eriotzearen etorkizunari buruz.

Joale/, nik acnrcrago ecjindako a/.terketak onant/a joan chra: Botiko gallzca. Knslo'çian agei lu rian Jaungoikoarona galtzea da; salbamena lortzcn Ki isto'gaz egolea eta Ktisto'gaz izatea *ds,* bateoan asi eta "guneiik eguuera batcoa bizilzca aunera aleiatean; Azkcneko epaikunrie oiokona orainlxe ta cmcn ri.igo egiten, bcti kondairan 7cai, gu7tiok Kristoicn salakuntzaclcia auipegiz. auipegi aurkilzen lionuivMn, Auikit/e oirçtan aev?ilzon riagcne makalkeriaren *?0o* 'iizentasi inarcn egiiik aundiena.

*Zo*< ja/oten da rianagaz, enot-'ca rialun cncan[7] Knslo ber biztua-:ja/ jazo Zciii.i hoia, 07 ttala azpuatua i/an, J.iungorkoagan oso-osoan ailua bniño Ferie-nkMik c? nakigu ez Ofiagu [n]la 07 gilxirnio.

Andics Toines. " 1 eologink ota yoioa"
Ra/bn y ke. Otsailln 1984.

•^'i, klazkia

llxuasuna ain aunriin ba'litz, iñok be bcraga/ artu-emonctara sai-' izeko aukerank ez cukrteko bestekoa. orduan geure bnkartasun osoa eukiko gcnacike, bikknra, teologoak "inpernua" esango teuskionena. Ora'm a/aldu yemke berha onen esançjura zeatza: bnkartasuna, maitasuna aitaici bo c-zin egm izaleko lakoa. i/atea bora tjc /nntasun bat ik i7len riauan bakartasuna (. .) Gau/a bat da erjia: ba-rlaeo ezelako abotsik sart/en e/ jakon ilzitasuna daukan gaua: ba-dago ale bal, eriot/earen atea, banaka gu saitzeko dana. Munduan clan bikiui guztia, az.ken balen, bakartasun orren bildurra cla. Orain oncln uiortzcn cloge zeigaihk Itun Zarrean "sbeol" berba beragaz esaten dan inpernua naiz eriot/ea: azkenean, gauza bat dira. Enotzca b^netako bakartndea da, maitasunik artu ezin dauan baknrtnrica: inpcmtia.

Joseph Rai7in(jr;i.

7n. Idazkia

Rci bizkundea Jesus'ek aduaren gairietik iznn clauan garmpen osoa s^nriotza da, Berbizkunrlea bicle dala, Kuruuui ji/ariiak iñoz czaguki

dauan ezauganirik jaungoikozkoena izalera eldu da Gerbizkundea, biziaien azkenengo zabaltzea da, maitasuna esan gura dau. Gu geuretasunean ez gara enotzeak czereztuak izango, laikokerizko eta Marx--zalekerizko gizabideak dinoan lez. Gu ez gara Dana danaren harruan urtuko, l'idu ta Buda-zaleak esaten daben lez. Ez dogu izango lurrean, betiko biiitzearen antzeko bat. slan-daii ak diñoenez. G.y riana guzlientzat eta *danñ* Jaungoikoarentzat izingo gara, geutariko bakoi-ixnren maitasunak sraginda.

"Nagusien Ka'ekesis-Liburu haina"
Herder Argit. Barizelona.

IRAKURRI..... "1, *2* eta 3 idazkiak". Bateratu la/rak alkar osoizen daheia cta sarlu gai oneri barrura.

ULERTU,,. ondo be ondo "4n idazkia". Sartu gai onetara

lAKONOO.,. "5n. idazkia" eta orreg.tz osotLi gaia.

IRAKURRI... "6n. idazkia" ulertu ondo eta sartu gaira.

LA8URTU... "7n. idazkiaren" oiñarnko esangurea.

BER-IKASI... liburu onen lenengo zatia eta biltatu zelako erantzrina emolen daben gizabide ezbardiñak itaun oneri buruz. "Eta gero zer?",

BER-IKASI... Lenengo zatiaren eraskiña (Erle|iñoak) ela ezagulu ondo zein dan auneko ariketan egmdako itaunari emoten dauisoen erantzuna.

IZAN ARTU-EMONAK... Elerti edo literaturako saiileagaz eta enin oierkien esaketa bat edo "eriotzea" aitatzen daben idazkien irakurketa bat. Ipiñi alkarren parean or agertzen diran burutasunak eta kitsti-ñauaena, enotzeari begira.

IRAKURRI... ikas-gelan Tirso'ren "arnzko deitua'ien eta Zornlla'ren Juan Tenorio J[a]ien azkeoengo ekiñaldian, gaian agertu dogun gero-aren burritasuna.

IRAKURKETA AZALDUA... egin ikas-gelan T. cle Chardin'en "Iza-diaren Ereserkia" hburutik artulako zali hat/nk, aurietiaz aukeratuta.

ZATIl U ikas-gelako taldea hilan ela eidi hakoitxak alkarren aurkako, bere zeiegiña aitu Gaian açjerlutakciaren akie edo aiul<3.

LGIN... cj.V'aien labLupcna astftran czani rJan eskernp.i aune.on clala

EGIN... lahurpen aunch ta zafrd bai libuuiaien bigai rt'ii zati au sart^en rtiila. Labrifpen orreyaz n<i t.a egin zali oiv-'ii labtupena iru edo lau curittin.

EGIN... ikasleen artçan ilatinkeU) bat, izenik emon barik, libnruaren zati au baliatzen ciala: Gizouari eta muiKiuari fetlñtik dakattson kristi-ñouen eiant/una. Azalclu erantzunak eta sorizen diron itaunari eian-t/mi.

# BIGARREN ZATIAKl ERASKIÑA

A) Nazaret'eko Jesus

B) Nazaret'eko Jesus'en Eteizea

## A) NAZARET'EKO JESUS

Gure bizitzearen joanean
sarrilan aurkitzen dogu
Nazaret'eko Jesus'en irudia auriean.
BUP'eko 1° urtean, esaterako,
Bera *znn* erlejiño-gai guztien ardatza.

Baiña ez *6a* gauza *erreza*
Oso-osoan Jesus dan lakoa ezagutzea.

Orain emen ikuspegi arin bat aurkeztuko dogu
bere nor-izstea eta bere Mezua agertzeko;
baiña ondo dakiyu ikuspegi osoa izango ez dana.

## ITAUNAK ETA ERANTZUNAK

Izan da Nazaret'eko Jesus'ik? Berari buruz ebanjelio-liburuak diñoskuena egia-egia da? Ala Jesus'en irudi apaindua emoten dauskue?

Itaun onein iturria sinistu ezin dabenen jokoa i?an daiteke eta oneik dana ipuin bat daJa erantsungo dabe edo izan daiteke baietzaren naiz ezetzaren ardura aundirik ez daukenena (ni orren gaiñetik

noa) edo aztertzailieen jokoa (nire fedea zerlan oiñarritzen dan jakin bear dot).

Zentzunduna dan edozeiñek onartzen dau lesus kondairan eta benetan ageitutakoa dala. Baiña Je$L^ ori JaLingoikoaren Semea dala, fede ikuspegilik baiño ezin egin leiken baiezpena da.

Galdera ometk gaiñera, ez dira barriak. Gizakti asko dira olnko jakingurea kristiñau batzLik agei tu ebe'a Eta, erantzuna emoteko, billaketak, crantzunak eta galdera barri.ak egin tlira... jakin-bearrekeak benetan. Zergaitik gara knstiñai-ial< eta danaren gaiñetik daukagu fedea? Nor sinisten dogun jakin. zer sinistcn dogun ela zei^aitik sinistcn *("* gun aztertu. Orrek lan luze bat eskatzen dau eta lan ori egitoan berezituak diranen ondorenak onartLi bearko dogtiz. Baifui gaur ezin *uu* i daiteke gutzat naikoa ebanjelio-liburuak azal-azaletik irakurlea, :.Liltura ta bizitzako beste gauza askotan azaletik ibilten garan ,intzen: Teolojia ez da besterik sinisten dauana obeto ulertu gura dauanak emoten dauan errazoiaren frutua baiño.

## *7~R* DAKIGU JESUS'ERI BURUZ?

Jesus'en' buruz egindako itaunai erantzun asko emon jake. Eta guztiak dira ebanjelio-liburuelatik ateratakoak.

Ebanjelioak sinistedunak idatzitako liburuak dira, fedeak argitulakoak idatziak. Idatzi ebena ez zan Jesus'ek esanak eta egifiak agertzea, beste barik, euren edestian egokitu egiten ebezan, entzuleak nortzuk ziran ikusita: Ebanjelio-liburu bakoitxak idazleak daul-an elburuari erantzuten dautso (ik. 1° BUP, XII Gaia).

Arazo au aldi luze baten ez zan kontuan artu, ebanjelio-liburuak kondairazkoak zirala onartzen zan eta kito. Baiña XVIII gizaldiko argi-atdia ezkero (Ikjsi BUP 2ª, V gaia) arazoa argi ezarri da: Izan egin zan Jesus? Zer da berak egin ebana? Zer benetan esan ebana? Nor da?.

Erantzunak askotarikoak izan dira eta urrengo iru arlo oneitan rv dogu besterik egiten iru moltzotan ipiñi baiño.

a) Jesus'en bizitzearj buruz dana jakin bear da?

1778 urtean REIMARUS'en ikasle batzuk, berau i! eta amargarren urtean, maisu onen eskuzko idazki bat argitaratu eben idazpurua au zala: "Jesus'en asmoa eta bere ikasleak". Or auxe esaten da: Jesus'en asmo bakarra politika-girokoa zala, bera Israel'ek itxarolen eban Mesias askatzaillea izan zala, Baiña Jesus ondatula geratu zanean, ikasleak berbizkundea asmau ebela ondamendi ori garaipen biurtzeko: Jesus ames-girora sartu eben eta bera "Jauna" eta "Kristo" dala zabaldu. Burubide oneri (atsipenaren bide esaten jako) dagokionez, Ebanjehoetako Jesus'ek ez dauko benetan bizi izan Jesus'en antzik be.

Reimarus'en liburu ori bide dala, beste "Jesus'en bizitza" asko zabaldu ziran, Jesus gizon lez agertzen ebenak eta giro orretakoak ez diran ebanjelioetako jakingarriak baztertzen ebezenak. STRAUSS'ek oinkada barri bat emon eban "Jesus'en Bizitza aztertua" idazpurua daroan liburuan (1835/3G(), Lendik izan dan Jesus ikusteko "izadiz goitikoa" dan erea baztertzen dau, baita ikusi dogun "errazoi-girokoa" be. Strauss'en ustez lenengo alkarteaien fedeal< lenagokoak ziran mitoak ezarri eutsoezan Jesus'eri eta Jesus "Kristo" biurtu eben;' orregaitik ebanjelio-liburuak Kristo'ren irudia agertzen dabe, baiña ori ez da benetan izan zan Jesus, olerki-giroko edesti baten ondorena baiño- Ondoren lez. Nazaret'eko Jesus barru-barruan zer izan zan jakiteko, ez dago beste biderik kondaira-azterketea baiño. Ebanjelio-liburuetan mito-usaiñekoa dan dana kendu bear da (mirariak, aldi arelako burubideak eta itxaropenak, ereserkiak, berbaldi luzeak...) Strauss'en pentsabide oneri "mitoaren burubidea" esaten jaUo.

Geroago, "Eskatoloji-Eskolea" deritxonak baztertu egden dau Reimarus'gandik datorren bide au, "Jesus'en bizitzari buruz dana jakin-gurearen bidea". Jesus'en giza-irudia eskuratzea eziña eta ulertu-eziña dala uste dabe oneik: "Jesus'en bizitzea ezin leike idatzi" (Harnack).

b) Fedeak ez dauka Jesus'en bizitzea aztertu-bearrik.

Aurreko burubidearen aurka doa "Fedekeria" deritxon Kaier eta Bultmann'en jokabidea. Lenengoaren ustez jazokizun zeatz batzuk

ezarri leiz, baiña onek ez dauko garrantzi aundirik fededunarentzat. Fededunak ez dau besterik bear jazokizunak dauken fede-giroko uler-'mena baiño. Jazokizuna, Jesus il egin zala da baiña fededunak nai dauana auxe da: Eriotza orrek Gizona Jaungoikoagaz baketzea lor-iu dauala (Kor II, 5.19)..

Bultmann'en ustez, ondo dago Kondairako Jesus ezagutzea, baiña ezin geinke ezagutu, daukaguzan agiriak fede-girokoak cliralako, ez beste sinisgarririk. Eta gu salbatzen gaituana ez da kondairako Jesus ezagutzea, bere Mezua "kerigma" iragartea baiño. Ondoren lez, Jesus'en Mezua al dan neurrian "mito-giro"tik atera egin hfvir da eta berak benetan esan ebanera urreratu. Orretarako "esakeren kondaira" deritxon bide barria asmau eban. Jesus'en berbaldi balen agoz zabaldu eta gero tdatzi zirala diño eta agozko aldi orretan be Idflzki labur batzLik argitaratuta egozala (Ikusi VII gaia, BUP'eko 1° urtekoa); bidezkoa da ba, daukaguzan ebarrjelio-liburuak baiño lenagoko aldira jotea ela Jesus'en irudia agozko iragarpena kontuan dala osotzea.

d) Kondairako Jesus'en bilia jarraitzen dogu.

Bultmann'en ikasleak bere pentsabidetik urrindu egin ziran. "Esakeren kondaira" deritxon bidea aztertu egiten dabe, batez be lenengo aldietako alkartea lar asmatzaille zala diñoalako, fedearen izenean kondaira bera be aldatu egin ebela esanez. Orrelan sortu zan, lanerako oiñarri barri lez, "Idazketaren kondaira" deritxona. Onek agoz eta idatziz etorritako erak ondo bereizten dauz. Bide barri au ebanjelio-liburuen' idazlea^k zelan ulertu ebcn agoz artutako mezua, orixe aztertzen dabe, idazle bakoitzak Jesus'en esanak eta egiñak zelan ulertzen ebazan.

1956'an asita "Jesus'en bizitza" barriak agertzen aslen dira. Ez benetako bizitza izateko, baiña kondaira oiñarri dabela. Orain billatzen dana Jesus bera zelakoa zan da.

JESUS'EN KONDAIRA-GIROAREN AURREAN IRU EGOERA.

Agertu dogu Jesus'er! buruz kondaira arazoa. Eta arazo edo giro onen aurrean egoera batzuk agertzen doguz:

— Batzuk zalantzan. Argi-argi ez dagozan esaldiak esalcn dabez, esaterako, ez dakiguzala ziur Eukaristia irasi ebanean Jesus'ek esandako berbak zeintzuk diran, edo ebanjelioak ez dabela naikoa oiñarri eskintzen Jesus.en bizitzea idazteko...

— Beste batzuk arrituta geratzen dira esaldi orreik entzutean eta antziñatik artutako ulerbideak bnkar-bakarrik artzen dabez, sarritan Guraso Zarrak esan ebezan gauzak eurak be ukatzen dabezela eta Jesus'en esanak magnetofoiz artuak edo takigrafiz idatziak ba' litzakez lez eta ebanjelioko edestiai kronika edoartxibo'ko idazkien antzeko baiioa emolen dautsela.

— Beste b[a]tzuk, azkenez, begiak icfegi eta esaneko albo bi orretara sartu barik gauzak zelan azaldu billatzen dabe* Ebanjelioak kondairazkoak dira izan, bai, baiña ez da uste izan bear Jesus'en esanen eta egiñen ber-esate uts-utsak dirala.

## EBANJELiO-LIBURUETAN FEDEKO KRISTO TA KONDAIRAKO JESUS BATERA AGERTZEN DIRA.

### Ebanjelio-liburuen kondaira-balioa.

Ona emen oiñarri doguzan jazokizunak :

a) Kristiñauen lenengo alkartea ez da izen-bako alkartea, alkarte ondo ezagutua ta bereiztua baiño, ikusle izandako apostoluak zuzendari dirala.

b) Lekuko diran oneik ondo dakie testigantzaz agertu. bear dabena zeatz zaintzeko ta zabaltzeko euren erantzukizuna (Lk. 1. 1-4; Ap. Eg. 2, 32; 3,2-15; 5,32; 10, 39).

d) Ez da naikoa eurentzat zeatz zabaltzea, zabaltzen dana aldatu barik zaintzeko be, begiratu egiten dabe (Ap. Eg. 8,14; Kor. I, 11.23-35; 15, 1-9; Gal. 1. 11).

Lenengo ondorena auxe da: Apostoluak benetako kondairaardurea dauke, naizta izan ez Grezia la Erroma'ko giroan dan kondai-*ra* arrazoitua ta neurtua. baiña bai ba-dauke zintzo ta zealz esateko

ta zabaltzeko asrnoa. Errazoizkoa dan lez, ez dago aurka-jokorik kon-rinira-giroko ta fede-giroko arduren artean, fedearen gurarin Jesus'en esanak eta egiñak *zea\z* agertu ta zabaltzea dalako.

Best[n] afde batetik, eta batera, ebanjelio-liburuetan judatarren ela clendarren artean diran elerti edo literatura idazbide bardiñak aurkez~ten doguz, baiña ida2bide oneik ez doaz esaten dabttna egizkoa iztea-ren aurka. Esan geinke ba, ebanjelioak kondaira-girokoak dirala.

a) Oiñarriko araua: Ebanjelio-liburuak batera datoz oiñarrinn, baiña ez dauke bardintasun oso-osoa.

Orregaitik, ebanjelio-liburuak euren artean doukezan aldeak ikus-ten doguzanean, (batzutan uste izan geinke utsak cltrala edo alknrren nurka dagozela) auxe artu bear da konluan:

— Apostoluak dauken eginbearra, berben esangurea eta jnzoki-zunean rnuiña gitxienez zin^zotasun osoagaz agertzea da.

— Aldeak i2atea indartzen dauana (esaterako "azalpena" izan eta a2altzai11e bakoitxak bere ikuspegia eukitea eta bere idazkeraz idaztea).

— Ori kontuan dala, egiagaz eta astitsu egin bear da billaketea, "Jaungoikoak aurretiaz eukeratutako lekuko" onei sinisteko zio "uztiak daukaguzala aiztu barik. (Ap. Eg. 10,41).

b) Ikuspegi bereziak, ebanjelioen kondnira-balioa zalantzan ipin-Ir-ko, oneixek dira:

— Apostoluak euren edestia Pentekostes igaro eta gero edesten dabela, orduan dauken fede elduak eraginda. Eta ori arriskugarria ""an leiteke edestiak aldatzeko bidean: amets-girora sartu, aldatu. Baiña, ebanjeli-liburuak aztertzen ba'doguz laster ikusiko dogu apos-toluak ez dagozela arnesetan eta gauza onak bakarrik agertzen: Euren arteko bekaitza agertzen da (Mk. 9.33; Mt. 18.1; Lk. 9,46; 22, 24-30), kurutzearen misterioaren aurrean izan ebezan buru-laburkeriak ager-tzen dabez (Mt, 18,22...; Mk. 9,32; Lk. 9, 44; 18,32...); Apostoluen Egiñak liburuan au be agertzen da bein baiño geiagotan: Sanedrin edo

erri-batzak galazo egin eutsela Jesus'en izena iragartea, baiña iñoz ez da agertzen Jesus'en egiñak eta izatea aldatu ebelako saiakuntzarik.

~ Edestiak eta, batez be, irakatsia, entzuleak bear dabezan neurrian agertzen dirala Au be ez dago ebanjeiio-liburuen kondaira-balioaren aurka.

E-ntzule batzuk obeto ulertuko ebezan jazokizun edo berba batzuk, beste entzule batzuk, ostera, beste batzuk; batzui irakatsia berba batzukaz agertuko jaken eta beste batzui beste berba batzukaz; baiña beti onartzen ebezan eta Jesus'enak zirala jakiñik emoten jakezan.

Kondairako Jesus eta Fedeko Kristo.

Zalantza barik, Ebanjelio-liburuak ba-dauke ba kondaira-balioa, baiña batez be Nazaret'eko Jesus'egarl 'dauken fedea agertzen dabe ela Apostoluekaz bizi izan zan Jesus eurak simsten daben Kristo dala diñoe (Ap. Eg. 1,21-22; 2,22-24; 3, 13-16; 4,10; 4,18-20; 13, 27-33...) Orrexegaitik ez da fedearen aurkako ekintza kondairabideko azterpena egitea. Jesukristo Jaungoikoa ta. gizona dala-sLnisten dauanak kondairan eta teo'lojian aurkit£4n'dau Jesus'en nortasun aberatsera eltzeko bide bikotza: Kondairak jazokizunen erakundea ezagutzen lagunduko dautso eta teolojiak erakunde ort jantzi egingo dau azurrai mamiña ta gogo-bizia ezarriaz eta jazokizun orreik gaur bizi garanontzat dirala agertuz.

Ona emen adibide bakar bat:

— Ebanjelro-liburuen azpian dagoan kondairak, Jesus Erreiñua iragartera datorrela diñoskue (Mk. 1.15) oraindiño azten dagoan erreiñua (Mt. 13, 31-32) eta zuzenak pekatariakaz batera barruan daukazana (Mt. 13, 24-30);

8erak bere burua Errege iez agertzen dau, baiña ez dau onartzen erri-aurrean Errege lez agertua izatea (Jn. 6,15); orreian esan gura dau bera ez dala politika-giroko erregea eta ez dauala ezarri nai, besteen antzeko erreiñu bat (J. 18,36); baiña Jesus'ek erlejiño-giroko ikuspegia agertzen dau Aitagazko uste ona oiñarri dala; Tenplua ta Legea ez

dira naikoa Aitaren naia egitean agertzen dan Jaungoikoaren eta urko lagunaren rnaitasunaren ordezkoak izateko. (Jn. 4,38), besteai laguntzeko dn Aitaren naia (Mk. 10,45); ori dana da Jesus erriko zuzendari diran fariseoen aurrean eta aurka jarten dauana; aurka izate au azkenean isillean artzen daben Jesus eriotzara eroateko erabagian amaitzen da; Sanedrin'ek edo erri-batzak lege-austea diran berba ta egiteakaitik epaitzen dau eta eurak eriotzarako epairik ezin-emonik, Erromatarren agintari zan Pilato'gana eroan eben. Onen aurrean beste salakuntza batzuk agertu erlejiño-arloko salakuntzak alboratu eta politika-arlokoak atera ebezan. Pilato'k epaia onartu egin eban eta kurutze balen josila il eben. Oneik dira kondairako jakingarriak eta Biblia'tik kanpora dagozan beste jakingarri gitxi batzukaz batera datoz.

— Fedeak eta teolojiak azaldu egiten dabez jazokizun oneik: Jesus errubakoa da egiten dautsoezan salakuntza orreitan, bere eriotzea onartzen dau ortxe ikusten daualako Aitaren naia, bere bizia Aitari eskintzen dautso gizonen pekatuen ordain lez eta bere eriotzea bide dala gizon guztien eta Jaungoikoaren arteko bakeak egiten dauz, il zana bera, berbiztu egin da.

## JESUS, BESTEEN LAKOA EZ DAN KONDAIRA.

### Jesus'eri buruzko jakingarriak

Urreratu gaitezan bizi izan zan eta il zan Jesus onengana. Ariñeko begiratzea egingo dogu, baiña ez alperrekoa. Izan be ez jakuz orain naikoa lendik dakiguzan erantzunak. Eta Jesus'egana urreratzen gara teolojia'ren ikuspegiagaz sinistedunak garalako. Auxe da, labur-labur, kondaira.

Bi *m'illa* urte *inguru d'ira,* Tiberio Agintari Nagusi zala, *Errorna'ren* agintaritza Palestina'ra be eltzen zan aldian, Belen'en jaio zan Jesus. Judea-aldean, aurretiaz iragarrita egoan lez. Baiña bere ume ta gazte-aroa Nazaret'en igaro ebazan, Galilea-aldean, eta lurralde au, naizta erromatarren rnenpean egon. askatasun aundiagoaren jabe zan. "Aro-(zaren Semea" lez ezagutzen eben eta bere ama Maria zan. Juda'tarra jaiotzaz eta aitaren aldetik Dabid'en Ondorengoa, baiña bizi-lekuz galilea'koa zan. Eta csku-langillea zan ezkero, bere aldiko gizartean erdi-maillakoa edo beragokoa zan.

Gauza gitxi dakiguz bere ume ta gazte-aroad buruz. Baiña ez ain gitxi Juan'ek Jordan ibaian bateatu ebanetik aurrera. Palestina errialde txiro ta azpiratuan Mesias askatzaillea laster etorteko lez itxaroten zan. Bateatzailleak, bere lekaide-giroa itzita, basamortuan antzunazo eban bere abotsa: "Egun aundia dator. Biurtu zaiteze": etaJuan' ek eskatzen eban biurtzearen ezaugarria. Bateoa zan. Jesus bateatu zanean gauza berezi bat jazo zan: Jaunaren Espiritua jatsi zan bere gaiñera. Lau ebanjelariak emoten dautsoe garrantzi aundia jazokizun oneri. Ortik aurrera Jesus'ek bere zeregin berezia asi eban, baiña bere iraga'pena ez zan Juan'enaren antzekoa... Juan'ek itaunlariak bialdu eta Jesus'en bera ete dan Mesias itauntzen dautsoenean, auxe izan zan erantzund (iñok itxaroten ez ebana. naizta bakoitxak bere neurriko Mesias bat itxaron): Zoaze eta esan egiozue Juan'eri znr ikusi eta entzun dozuen; itsuak ikusi egiten dabe, gorrak entzun, ildakoak berbiztu eta txiroai Barri Ona iragarten jake: eta zorionekoa nigan gaizpiderik artzen ez dauana" (Mt. 11,2-6).

## Mesias lez agertzen da

Jesus'ek dakarren mezua ez da Juan'ena lakoa: Jaungoikoaren Erreiñua da (Ikusi BUP'eko 1° urtean VIII gaia). Eta, bateoa artuondoren, "Espirituak Basamortura eroan eban Jesus, txerrenak aztertu egian". Iñoz ez dogu jakingo zeatz-zeatz basamortuan zer jazo zan, baiña lentaldien edestiak argi emoten dausku Jesus'en erabagiaren barria. Jesus'ek auxe agertu eban: Bera ez zala izango Mesias gauza-zalea dirua oiñarri dala, eta ez azti-antzeko Mesias aztikeriak egin eta jentea beraganatzeko, eta ez Mesias politikua be indarra oiñarri dala agintzeko. Eta bere erabagiak eriotzara eroango dau Jesus. Izan be almenaren, diruaren eta atsegiñaren gurariakdira mundua daroen indarra. Jesus bizi zan mundu aretan, almena Erroma-tarrak, abadeak eta talde txiki batzuk euken eta Jesus'en mezua aurrezaurre joan zan onein aurka.

Jesus bizi zan mundu aretan, ekonomi-indarra gitxi batzuren eskuetan egoan eta Jesus txiroen alde agertzen *dñ^e^n,* gitxi orreik laguntzaille izango dira bera iltea eskatzeko. Jesus'en mundu aretan ba-egozan batzuk atsegiña baiño besterik billatzen ez ebenak: Saduzeoak, Herodes... oneik be Jesus'en Mezua alboratu egin eben eta

eriotzea berari ezarteko alegin egin. Eta ez uste izan indar oireik . txarrerakoak ziranik, baiña bai errez biurtzen dirala txarrerako bidera personak gidatzeko norabide eurak bakarrik biurtu eta batzuk beste batzuren menpean *ipinteko* bide *izaten diranean.*

Jesus Mesias lez agertzen da. Baiña ez guztiak itxaroten eben Mesias lakoa. Eta berak, gizon aske lez, aurrera daroa bere erabagia.

Jesus'en berezitasun bereiziak.

Aginpidez egiten dau berba: Bere irakatsiakaz arrituta egozan, aginpidedun lez berba egiten ebaiako, ez idazlariak lez" (Mk. 1, 21-22). Jesus'ek argi agertu nai eban bere mezua, zer diñoan ondo dakian batek lez egiten eban berba, esaten dauana esateko eskubidea daukonak lez. Idazlarien eta Fariseoen esaldiak zuzendu egiten dauz (Mk. 7,9-13). Eta, bera legearen aurka egon ez arren (Mt. 5,17..) zuzendu ta zabaldu egiten dau legea (Mt. 5. 21-48).

Askatasunaz ekiten dau. Bere askatasuna Aita'gonako zintzotasunetik sortzen da. Aita'ren naia ta bere Erreiñua dira arduragarri bakarrak. Orregaitik Jesus askea da:

— personen aurrean: ez da aundikien aurrean makurtzen (Lk. 13,32), gizarteko ikutu-ezin diran gauzak alboratzen dauz eta bere Amabien taldea osotzeko jokera ezbardiñetakoak artzen dauz;

— bere sendiaren aurrean: gurasoai atsekabea emon arren, TenpJuan *geratu zan* amabi *urtekoa zala* (Lk. 2.41...) bere senideak *ez* dabe nai berak bide orretatik jarraitzea (Mk. 3, 29-21); berak bere zeregiña betetea sendia baiño aurrerago ipinten dau (Mk. 3, 31-35). Guztiok gagoz sendiaren menpean eta ondo dakigu gauza gaitxa izaten dala sendiaren aurrez jartea...

— aundikien aurrean. Almena, dan lakoa dala, beti izaten da beste batzuk erabilteko. Fariseoek txerrena daukala-ta salatu eben, Bera txerrenak baiño aundiago agertzen dalako (Mk. 3.22);

Zapatuetan mirariak egiten ebazalako Legea ez ebala beteten salatu ebenean (Mk. 2, 23-28), bere adiskideak ez zirala adu oneko gentea

esan eutsoenean (Mk. 2,15-17), Jesus'ek askatasunaz jokatzen jarraitzen dau naizta inguruak aurka egin. Pilalo bera be Jesus'en aurrean ez zan gustora aurkitzen (Lk. 23, 1-7) eta bere bidean izan daitekezan arazoak kentzeko, Herodes'egana bialtzen dau Jesus Galflea'tarra zan izan be eta azkcnean Jesus ilteko agindua emoten dau, bere erreiñua "mundu onetakoa cz dala" jakin arren: Herodes berak be (Lk. 23,8} eta saduzeoak eta Herodes'tarrak (Mk. 22,15-22; eta 23, 33; Jn. 8, 1-11) eta zeiotak (Mt. 22,21) Jesus eurakana ekarteko alegiña egiten dabe. 8aiña Jesus'ek bere bideari jarraitzen dautso beti. albokoen ekiñai eta maltzurkeriao jaramonik egin barik.

Jesus'en zeregiña ta mezua.

Jesus askea da eta askatu egiten gaitu. Benetako askatzea dakar berak: iege itogarrien morroiUatik askatzea, (Lk. 11,38; Mk. 7. 18-19(. gizona barruan menpcratzen daben esp'tritu zikiñetatik (Mt. 8,16; 28-34), eriotzarako diran gaisoetatik (Mt. 9, 25; Lk. 7, 14-15.) baiña. batez be, pekatutik (Mt. 9. 2-6; Lk. 7, 48} (Jn. 8, 34-36). Jesus katiguak eskatzera eta gizonari galdutako duintasuna biurtzera dator (Lk. 4, 18; Mk. 5,15).

Zuzenbideko mezua. Jesus'ek ondo daki zuzentasun barik ez dagoala askatasunik: Iñor ezin leiteke askea izan, morroitza itzi barik. Jesus'ek okerkeria dakarren diruaren esiak alboratu egiten dauz: Argi-argi agertzen da txiroen alde. (Lk. 6.21...) eta bere deia, Zoriontasunak azaidu ebazanean, niri iragarteko bide argia da eta aberatsen aurk3 agertzen da (LU. 6, 24-26) dirua banatzeko dalako; eta txiroakaz bat egiten dau bere burua (Mt. 25.34...): Nire anai-arreba txikienari egin zeuntzena, neuri egin zeunsten". Aundikieri aurkako bere jarrerea almenik ez daukenen alde jartzea be ba-da. Baiña makalen artean be ez dira guztiak bardiñak. Jesus txiroenak diranen ondoan dago: Samaritarrak, legenardunak, emagalduak, pekatariak, jentillak. zargabatzailleak, bere aldiko alboratu guzliak. Eta emakurnea alboratzen eban gizarte aretan, emakumeen alde jokatzen dau, errez gizonen menpean jaustekoak diralako (Mt. 19, 3-12} eta emakumeai bere taldean be zeregiña emoten dautse.

Mirarfak egiten dauz. Ebanjelio-u'buruetan *agortzen diran* mirariak gitxi edo naikoa gitxi izan arren, (Ikusi BUP'eko 1° urtean X gaia eta urte onetako VII gaia), ez dago zalantzarik Jesus'ek mirariak egite arrigarriak egin ebazala, eta mirarietan onuradunak batez be txiro.ak izaten dira... izan be mirariak Erreiñuaren ezaugarri eta askatzearen iragarpen dira eta argi agertzen dabe erreiñua ez riala itz utsfl, benetan etorri dala.

Maitasunaren legea. Jesus'ek agindu bateri baiño ez eutson esan bei e agindua: Maitasunaren aginduari. Dere erreiñuaren eskari bakarra Jaungoikoa ta urko laguna maitatzea da. Maifasun au orokorra da, guztientzat eta ez adiskideentzat bakarrik (Mt, 5, 43-47) bere Erreiñua be orokorra dan lez. Eta maitasun ori zeaztua da, ez buru ulspzkoa, egiteetan bete-bearrekoa. Agindua au Moises'en legea baizen \irra izan arren, bete-betean agertzen da. Jesus'ek eredu lez bere burua agertzen dauanean: Bera baiño lenago "zeure burua lez" iñoan aginduak eta berak "neuk maite zaituedan iez," esa eban.

Jaungoikoari "Aita" esaten dautso. Juda'farrak Jaungoikoari "Jabe" izena emoten eutsoen, baiña itzaltasunagaitik izen ori ez eben iñoz be esaten eta ordez "Adonai" ipinten eben. gizona Jaungoikoagandik urrin dagoala agertzeko. Baiña Jesus'ek etxeko lez "Aita" esaten dautso. Auxe da Jesus'en berezitasuna. Auxe da ikasleak ainbeste arrituta izten ebazan gauzea, orrexegaitik Barri Onaren liburuak gerkeraz idatzi arren, Jesus'ek erabilli eban Aram-erazko itza artzen dabe: "ABBA". Gure berben artean gien urreratzen jakona, umekeri-antza euki arren, "Aitatxu" da. Baiña berba onek agertu gura dauana ez da umekeri bat etxekotasuna baiño. Orrek esan gura dau Jesus'entzat Jaungoikoa ez dala bere aldikoak uste eben lakoa; eta bere burua be Jaungoikoagazko artu-emonetan beste era batera ikusten dauala: Bere semea da baiaña ez besteak diran moduan. Artuernon berezi au, Jesus'ek bere Aitagaz daukana, alkarren barri sakon-sakon aukitetik dator (Mt. 11,27). Orrelan be, Jesus Jaungoikoagaz artu-emon bartukoian eta jarraikoen dago eta orixe agertzen dauskue Ebanjelioak, otoitz zelan egiten eban diñoskuenean (Lk. 6,12; 11,1)

Kondaira berezia

Jesusen berbak eta bereegiteak aldunen aurrean jarri eben bera: Ez dirua, ez atsegii^a, ez almena. guzti orrek norki batzuren eskuetan

eta gizarte-mailla ezagun batzuren arloan zirala, ezin geratu zeitekezan bare-bare Jesus'en aurrean. Aurka jarte au izan zan Jesus iltera eroan ebana. Ondo dakigu ilte ori zelan etorri jakon (Ikusi BUP'eko 1° urtean XII! gaia). Ba-dakigu baita, bere eriotzeagaz Jesus'ek pekatutik salbau ginduzala, Jesus'en eriotzea ekarteko bide izan zan pekatu orre.attk. Baiña bere arerioak eurek be irudilu ezin ebena, auxe da: Benetako Mesias il ebeia, ez politikua, ez aztia eta ez gauza-zalea ez zan Mesias bat: "Jabe'ren morroia" zan Mesias (Is. 42. 1-4; 52,13-53): Almen bakoa, oso-osoan guztiai laguntzekoa, aundikeri-bakoa eta be-maillakoen aukeran dagoana, gizonen bear-izar>ai buruz arduratua, baiña zabala, Jaungoikoaren ondasunetara la almenera makurtua.

## KRISTO JAUNGOIKOA TA GIZONA.

Jesukristo'ren berbizkundeak dakarren argitasunagaz, gizon eta Jaungoikoa lez agertzcn da. Baiña, zelan alkartzen dira izate bi oneik? Ikusi dagigun, kondairari apui bal jarraituz:

* Lenengo gizaldietan, gauzakia bera "txarra" dala uste ebenean, ezir\ ulertu eikean Jaungoikoa gizon egin zeitekela: eurentzat gizon eg'te ori itxurazko gauzea baiño ez zan. "Doketak" esaten jake (Gerkerako Dokein'etik artuta antza) Kristo'k gizon-antza euka'a esaten dabenai, oneik Kristo'knekeak igaro eta ilten zanaren antza artu ebala diñoe, baiña benetan ez ebala nekerik. ez eriotzarik, artu.

Ez da ori Eleizearen eritxia. II gizaldian esaten eban Antiokia'ko Iñaki Deunak, Jesukristo'k benetan urten ebala Dabid'en endatik, benetan jaio zala Birjiña bategandik eta benetan tzan zala gugaitik bere aragian untzez zulatua.

* Serne-ordekoaren aldekoak, ostera Kristo Jaungoikoa zala ukatzen eben eurentzat gizon bat da, naizta Jaungoikoak era berezi baten bere semetzat artua izan. Eta seme-ordekoaren aldekoak daukan bide bardiñean Arrio'k be Kristo ez zala Aitaren moduko Jaungoikoa esaten eban, naizta Kristo izaki guztien artean lenengo ta osoena izan, ez zan "Lenengo maillako" Jaungoikoa, aitaren mailla beratakoa.

Nizea'ko Eleiz-Batzar Nagusiak (IV gizaldian) Argi agertu eban Eleizearen pentsabidea: "Jaungoikoagandik Jaungoikoa, Argitik argia,

Benetako Jaungoikoagandik benetako Jaungoikoa: sortua, ez egiña. Aitaren izate berekoa".

Apolinai 'ek agertu eban arazo au (IV gizaldian) Eta urtenbidea aurkitzeko aikartu bear ziran bietatik bat kendu egin eban. *Gizona* ta Jaungoikoa izatea, bereak ezin daitekezela izan uste dau. Ori da, Kristo benetako Jaungoikoa dala, baiña ez gizon osoa. Apolinar'ek diñoanez, Kristo'k gizon osoa izateko arimea bear eban eta arimearen ordez Kristo'gan Berbearen Jaungoikozko notiña dago:

Atanasio Deunak diñoan lez, Kristo'k orimarik izan ez bo'leu. ez lilzakean gizon osoa izango. eta gizona be ez: ezin izango eban gizon lez. cz pentsau eta ez maitatu.

* Nestorio'k, beste ertz baten agertu eban arazoa (V gizaldian) eta esaten eban Knsto oso-osoan Jaungoikoa ta gizona zala bo'ña aldc biok beregan bat egin barik eta notin bi zirala. Bere ustez Maria Kristo'ren Ama bai ba-zan, baiña ez Jaungoikoaren Ama.

Efeso'ko Eleiz-Batzor Nagusiak (V gizaldian) argt agertu eban Krtsto Persona bakarra zala: Jaungoikozko norkia izan be. eta onek oso-osoan arCu ebala giza-izakia.

* Eutikcs'ek (V gizaldian) Kristo'k izoki bakar bat eukala esan eban, Apolinar'ek esan ebanari orretan jarraituz. Bere ustez giza-izakia izan ezkero, au Jaungoiko-izakiak beraganatuko eban "itxasoko urak bere gaiñera jausten dan ezti-tantadea" beraganatzen dauan antzera. Oneri "monofisismo" edo izaki-bakar zaletasuna esalen jako.

Kaltzedonia'ko Batzar Nagusiok {V gizaldian) onelan azaldu eban Kristoren misterioa: "...Seme bakar bat bera autortzen dogu, Jesukristo gure Jauna, osoa Jaungoikotasunez eta osoa gizatasunez, benetako Jaungoikoa ta benetako gizona, errazoi-bideko arimaz eta gorputzez osotzcn dana. Jaungoiko lez Aitaren izakide, gizon lez gure izaj<ide, gure antzeko danean, pekatuan *izan ezik.* Gizaldiak baiño len Aitagandik sortua Joungoiko iez, baiña azkenengo aldi oneitan gugaitik eta gure salbamenerako Maria Birjiñogandik jaioa, gizabidez berau Jaungoikoaren Ama dalo".

Labur esateko. Jesus benetako Jaungoikoa ta benetako gizona da. Ikusi dogu zelan, aldien joanean, alde bi orreik alkartzeko gizon batzuk Kristo'ren gizatasuna aldeztu daben, beste balzuk ostera, bere Jaungoikotasuna; eta okerreko bidea artu dabe, btetank bat kentzekoa artu dabenean. Eleizeak bakarrik eutsi dautso eta eusten dautso, Berbizkundeak ziurtatu dauan gure tedeari: Jesus Jaungoikoa da eta gizona be ba-da.

## KRISTO, KONDAIRAREN OSOTASUNA.

Orain, gure guarkotasuna onetan, Berbizkundearen eta parusia edo szken-etorrerearen bilartean gagoz. Teologoak "Eteizearen aldia" esaten dautsoena da au, izan be, gure kondaira Kristo'ren gorputz ezkulua osotzen dan aldia da. Azken-etorrea edo parusia kondairaren azkon-muga da Eta ez da zertan izan azken ondomendizko bat, gizadiaren "iraupenik luzeena"gaz batera amailu daiteke eta orrexegaitik izan daike gizadiak almena, oso-osoan Jaungoikoagana zabaltzeko.

Auxe da Teifhard de Chardin'en oiñarnzko mezua: Izadiaren aurrerapenak bidea egin dau munduaren asieratik (kosmojenesis) gizonarentzat bizitoki izango zan mundua lortzetik. gizonaren asiera edo antropojenesisera edo gizona osotzen dagoan atdira; baiña au ez da azkena: Kristo'ren asierara eldu bear dau eta emen aurrerapena, Jaungoikoaren indarrez. Krislo'gan batzen da eta Kristo'k aurrerapenari norabide barria emon dautso. B\de onetatik jarraiUiz, gizadiaren aurrerapena ez da jazokizun otza edo aurkakoa kristiñauarentzat, bearrezko dan baldintza bat baiño, naizta beste barik natkoa izan ez, Jaungoikoaren Erreiñuaren azken-etorrerara altzeko. Kristiñauak, kristmau dalako, gizonaren aurrerapena biMatu bear dau, jakitunak baiño gogotsuago edo Marx'en jairaitzailleak baiño arduratsuago, edo ..

Baiña itzi dagigun alde batera Teilhard'ek bere ikuspegiagaz agertzen dauan arazoa, arazo korapillotsua teoloji. filosoli ta jakituri-aldetik eta ez daukagu beste biderik au onartzea baiño: bere pentsabidean, jakituria ta erlojiñoa. aurrerapena ta kristiñautasuna, ez dagozela arerio lez alkar begiratzen, eta bai batero billatzen, alkar arrituta. euren ikuspegiak bateratu egiten clirala. Beste batzuk billatuko dabe. eta egokitasunez billatu be, olako alkartzea beste bide batuk artuta.

'Tfiilhard'en ustez alkartasun ori ez da aurkitzen arloak bananduta, dann gizonayan batuta baiño: "Jakituriak bakarrik ezin aurkitu daike Kfisto, baiña Kristo'k Jaktturi-eskolan gure biotzean jaioten diran gurariok bete egiten dauz".

## B) NAZARET'EKO JESUS'EN ELEIZEA

### AU DA ELEIZEA?

Erdr-maillako Ikastegi baten *dirrtn* ikasleai, Eleizeari buruz itaunketa bat egin dautsegu. Erantzunak batukeran, iru gai onein inguruan pillatu leikezela uste izan dogu:

#### Eleizea gaurkotu barik dago

Beti doa jazoeren atzetik eta jokabidecn aurka. Gure muncluan, izan be, jokabide aundi bi dagoz eta euren artean banatzen dabe mun-> dua: Banaka-jokoa ta alkarte-jokoa. Eta Eleizea jokabide bi orreitatik urrin bizi da. Eleiz-agintaritza sendo daukalakn, ezin izan alkarlegirokoa eta bere jokerea itxia dalako ezin lortu bere barruan askatasun osorik.

#### Eleizeak munduari gaur eskintzen dautsonak, ez dau balio.

Lenago eskolak, gaiso-etxeak eta olakoak eskintzen ebazan, baiña orain besle eiakunde batzuk eskintzen dabez orreik. Eta beste alde batetik. Eleizeak eskintzen dauana salbamena ba'da, askok uste dabe gizonak ez daukala salbamen-bearrik, ez dalako errudun eta ez dagoalako kondenauta.

#### Eleizeak ez dau bere burua argitzen.

Oiñoene^, Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik, joka-

bide ezbardin bi sortu dira: Lengoari begira dagozenena eta Batzar Mngusia eginda be, Eleizea ez daia aurreratu bear dan beste, uste dabenak, oneik eleiz-agiriak illunak dirala eta Eleizea ez dala zintzoa ebanjelio-bidean uste dabe...

Alegindu gaitezan arazo onei erantzuna emoten. Baiña, orretarako, gai onetara ezeren bifdur barik sartu bear da, bildur orreik beti izaten dira egia ezagutzeko eragozpen. Urreratu gaitezan Eleizeagana. aurre-usteak alboratuta, dan lakoa bera ulertzeko, bere utsakaz eta bere argiakaz. Bera dan lakoa ikusteko Eleizeagana urreratu, besle barik.

## DIRU-TXANPON BATEN ALDERD! BIAK.

Guztiok dakiguz Eleizearen akatsak eta argitasunak. Norberak zelako jokabidea daukan, alde bata edo bestea ikusiko dau. Baiña egoera baretua artu bear da, utsak eta argiak begien aurrean dirala, batzuk ontzat artzeko eta besteak ezezpenaren bidez aztertzeko.

Orregaitik, asikeran bertan, oar garrantzitsu bat: Eleizea ez da beste barik kondairako jazokizun bat. Egia da. kondairako jazokizun lez "aztertu" geinke. Baiña ori ez litzake izango Eieizea ulerlzeko bide egokia.

> "Gizarte agintariduna eta Kristo'ren Gorputz ezkutua dan lez, alde batetik ikusten dan batzkundea eta bestetik gogo-giroko alkartea dalako, Lurreko Eleizea eta ondasun zerutarrez aberastutako Eleizea, ez dira gauza bt, gai asko dauzan yauza bakarra baiño, giza-gaia ta Jaungoiko-gaia barruan dauzala.
>
> Batikano'ko II, Erripn Argi 8.

Diru-txanpon baten alde bien antzera, izakera bi oneik ezin izan daitekez bata beste barik: Olako alde bateri jaramon egin ezkero, besteari kalte egiten jakola. Eleizeak dauan aurpegi benetakoa ta osoa antz-aldatuta geratzen *6ñ.*

— Batzutan Eleizeak emoten dauzan gaizpideen aurka jarten gara, Eleizea "santuak" osotzen dabela esanda, iguingarriak diran aita santu ta gotzain batzuk zaintzen dabenaren aurka... Orduan Eleizearon utsak, Eleizatik urtenda bete nai izaten doguz... "Bere lekuan czarrita" dagoan Eleizea alboratzen dogu, olakoaren barruan ezin daitekela Ebanjelioa bete esanez eta orduan "gogo-alkartea" dan Eleizara joaten gara, eta or balio, bakoitxak Jaungoikoagaz daukaguzan artu-emonak baiño ez dabe balio... Eleizatik datozen aginduak alboratu egiten doguz, bizitzarako era bakarra ebanjelioa dala esanez...

Baiña ikusten da orren aurkakoa dan jokabide bat be, "agiriko" Eleizeari garrantzi aundia emoten daulson jokabidea. "agiri ez dan" Eleizea baztertzen dauana. Orrelan Eleizea, gure fedeak dauan bizitzari erantzuten ez dautsoen arau eta oiturak baiño konluan artzen ez dauzan erakunde biurtzen da. Aita Sanluak eta Gotzaiñak zamtzen daben alkarte baten barruan gagozela esaten dogu eta aiztu egiten dogu fede-bizitzea Jaungoikoaren berbeaz janaritzen dala eta otoitzaren eta sakramentuen bidez azten dala.

Misterioa dan Eleizea era Erakundea dan Eleizea ez dira gauza bi. bat bera baiño. Gaurko munduan 8arri Ona agertzeko deitua dalako, bere agiriko erakundea izatez-goitiko zeregiña beteteko bear dan lakoa izango da. Eta orrelan, ez da ikusten dan Eleizea alboratzen: Eleizeak bera dan lez, ez dauko izan-bearrik; bere izate osoa Kristo'gaz dauzan artu-emonetatik dator eta berak Kristo'ren misterioa ikusgarri biurtzen dau, bera da mtsterio orren ezaugarri. Bera ezaugarrt zintzoa izango da. artutako zeregiña zintzo beteten dauan neurrian. Orrexegaitik Eleizearen gazpideak aundiagoak dira. Eleizea bera, dana dalako. beti dago aztertzerako deia entzuten, eta bere burua biurtzen. Ara zer diñon Batikano'ko I! Batzar Nagusiak:

> "...Eleizeak Espiritu Santuaren indarrez bere Jaunaren emazte zintzo iraun arren eta beti munduarentzat salbamenerako ezaugarri loz agertu arren, ondo daki bere kondaira luzean bere alkarkideak, abadeak naiz laikoak, ez jakozala beti zintzoak izan Jaungoikoarer. Espirituari".

Gaudium et Spes 43.

Izan be, Eleizeak izan dauzan makaltasunak ez dabe zuritzen jokabide gogorra eta ez dana ontzat artzen dauan jokabidea be: Bere • *izate* berezfaren barru-barruan *garoez,* Kristo'rt dautson zintzotasuna agertzen dabe zuzenean eta okerrean, bere Jaungoikozko ta gizonezko izatea, alde bi orrek banalu-eziñak dirala.

ELEIZEAGANA URRERATZEN GARA,
ERITXI ARTURIK BARIK.

Baiña zer da Eleizea? Auxe da ezelako eritxi-artu bartk erantzun l>o«ir dogun itauna. Eta ori lortzeko aurrettaz beste ilaun oneri erantzun bear dautsagu: Zer diño Itiin Barriak *Eleizcari* bu-uz? Esan geinke Jaunaren Erreiñua la Eleizea gauza bar bera dirala?

Eleizea ta Jaunaren Erryiñua.

Balikano'ko I i'ak argi diño:

"Orregaitik Eleizeak, bere iraslearen doiakaz aberastuta eta maitasunezko, apaltasunezko eta ukapenezko bere aginduak betetuz, Erri guzlien erdian Jaungoikoaren Erreiñua iragarteko eta ezartekn ayindua artu dau eta lurrean Erreiñu orren azia ta asierea bera da. Ori egiñez bera, apurka aundi egiten dan artean. azkenera eldu dan Erreiñuaren gurari biziagaz dago".

Lumen Gentium 5.

Eleizea eta Jaungoikoaren Erreiñua ez dira ba gauza bat bera. Bat izate ori oso-osoan lortuko da. aldien azkena datorrenean.

*Goian* idatzi dogun *klatz-zatilik auxe* atera geinke: Eleizea, Kristo'ren zeregiña kondairan ayertzea dan neurrian, Jaungoikoarsn Eireiñuaren eusgarri bat dala; eta Eleizea Erreiñu ori dala orren betetze osoari begira dagoalako. Orrelan ba, izatera eidu danaren eta lorlzeko daukanaren bitartean dan larri-aldinn dago Eleizearen brr^-zitasuna eta orrexek bultz egiten dautso bfdean *aurrera* j'anaitzeko

Jaungoikoaren Erreiñua (Ikusi BUP'eko 1 urtean VIII gaia) ez da ba lengo aldian igaro dan zerbait; orregaitik diñogu Erreiñua emen gure artean dagoala oraintxe, baiña ez dala oraindiño oso-osoan agertzera eldu: Orregaitik ez dira oso-osoan bat Erreiñua ta Eleizea. (Ikusi BUP'eko 2n. urtean I ta VI gaiak). Eleizeak, bere zeregiña zintzo beteten dauan neurrian, ikusgarri biurtzen dau Erreiñua gure artean, eta bizkorrago urreratzen *6a* Erreiñuaren osotasun osora. Eta. bestetara, bere zeregiña zintzo beteten ez dauan neurrian. Erreñua emen izatea ezkutatu eta bere betetzea atzeratu egilen dau.

Baiña... Eleizea zer da?

Alegindu gaitezan orain itaun oneri erar.tzuten, Bat'kano'ko II Batzar Nagusiak Lumen Gentium Agirian eto Eleizeari buruz diran beste agiri batzulan agertzen dauan gogoari jarraituz.

Elei/ea Kristo'gan Jaungoikoak egin dauan dei bateri erantzuna da Jaungoikoarer. Lan "ezkutua" oiñarria bere naimena dala. Ez dogu ulertu bear Eleizea kondairaren edo burutasun orrek berotu ebazan gizon batzuk osotzen daben taldearen ondoren lez Jaungoikoak "...Kristo'gan sinister, eben batzuk. munduaren asieratik iruditutа egoan Eleizan batzea erabagi eban..." Auxe da sustraian Eleizearen jatorria.

Jaungoikoaren nai au Kristo'gan agertzen eta belelen da. Kristo da Eleizearen oiñarria bere bizitzan eta batez be bere Pazko-Misterioan, ortxe agertzen dalako osoan bere laguntza ta gizonakanako maitasuna. Maitasuna ta laguntza dira Eleizearen jatorria eta Eleizan dagozenak. Eleizearen bidez eltzen gara Jesus'egana. eta Jesus'en bidez Aitagana.

EleUea Espiritu Santuak deitua da ela onengan dauka bere bizitza-indarra, kondairan zear egin bear dauan bidean lagun egin dagitson: Eleizearen aldia, Espiritu Santuaren aldia da.

Eta Eleizearen giltzarri amabien taldea da. Oneik aukeratu ebazan Jesus'ek eta onein gainean eregi eban Eleizea. Apostoluak. pazkojazokizuna bete ondoren eta orren testigu lez. argi agertzen dabe

Eleiza lez dauken nortasuna. Eurak izan ziran Espiritu Santua lenengo artu eta Espiritu orrengandik Barri Ona zabaltzeko indarra a: iu ebanak: Auxe da Eleizeak kondairan dauan zeregiña.

Eleizeak, mundu guztira begira, zabatik dagoala, orokor lez ikusten dau bere burua: Gizon guzliak dira Barri Onaren eta orren onuren artzailleak. Ortik sorlzen da Eleiz-Alkarteak bizi dauan maitasunaren ezaugarri dan batasunerako deia. Batasuna ta maitasuna anaitasunean açertu bear dira, emoten diran laguntzak alkarraqaz lotzen dauzala eta ondasunak alkar banatzen dirala. Ikuspegi onetatik begiratuta. Eleizea Jaungoikoaren Erria da: Barri Ona iragarteko deitua dan erria, Jaungoikoak *mailalua,* Kristo buru *dauan c\a gizonat* errikide izoteko dei egiten dautsen erria; erri onen zerogiña ouxe da: Barri Ona zabaldu, kondairako jazokizunak aztertu eta ondasunen alkar banalzea bete. Erria au, gaiñera, Kristo'ren gorputza da, sinistedun guztiak gorpuzkide dirala eta Kristo buru dauala, Kristo'k berak batzen dauz askotariko gizonak gorputz bakar baten lez ela gorputz orretan gizon h.ikoitxak bere zeregiña ota emon-bearra laguntza dauz, guztiak bat izatera deituak dirala eta guztien artean maitasunaren eta alkar-lanaren artu emonak sortzen dira.

Eleizeak mundu onetan bere zeiegiña berbearen bidez (berbeak salbatzearen jazokiauna eguneratu egiten dau) eta Sakramentuen bidez (oneik bizitzearen barruan agertzen dira salbamenezko ekintza tez) beielen dau.

## ELEIZEA ALDIRIK ALDI.

Eteizea kondairaren bidean aurrera doa azken-egunera eldu arte. Eta kondairaren bidean beteten da aurreko zatian agertu dogun Eleizearen burubidea, eta era askolara agertzen da. Ez, gero Eleizea bera aldatzon dalako. agertzeko erea da aldatzen dana, ez besterik.

### Apostoluen ondoren izan zan aldiko Eleizea.

Iru ezaubide artuta zeaztu geinke Eleizearen irudia: a) Eleizea Eskutuki lez ikusita, Jaungoikoaren erabagi ezkutuak nai izanda,

Kristo'gan alkarte lez bere burua ikusten dauala; b) Biblian agertzen diran irudien bidez (Jaungoikoaren Erria, Kristo'ren gorputza...) agertzen da Eleizea zer dan; c) Ezaugarri ta agerbide batzuk artuta ager tzen da obeto Eleizea zer dan eta zer egiten dauan (Pedro'ren itxasonlzia...)

Gero Eleizea bid^ barri baten antzera agertu zalako, Errorna'ko Aginterriak aurrean erabilli eban (Ikusi BUP'eko 2n. urtea, II gaia) eta ori agei tzeko be irudi batzuk artzen dauz, oneik bear ba'da Eleizatik kanpoan dagozenentzat ez dauke argibide aundirik, baiña baraian dagozenentzat esangurez bete-beterik dagoz. Irudi oneik. beste batzuien bizikera norberekoiaren aurrcan kristinauen bizilzea askoz gorago dagoala agertzen dabe.

Eleizea ta Aginterria,

Eleizea, aurrcan erabillia izatetik legcbidekoa izatera eldu danean (Il<usi BUP'eko 2n. urtea, II gaia) bere mugak aginterriarenak ejjrak dira. Orduan lengo alkarte txikia zatitu, krisiiñau izatea guztien gauza biurtu eta Eleizea bere fededunekandik urrindu egiten da, jerarkia itxurea artuta. aginterriak izan dauzan antzeko bideak bereganatuta, eta oiduan kristiñauen eta politikuen bidea bardinclu eta al)<artu egiten dira.

Karlomagno'ri Errege-8urestuna ipiñi eu tsoenet ik aurrera (800n. urtea) arazo larri bat sortu zan polilikuen eta eleiz-ag'mtarien almenaren artean gizarteari begira: Asieran Eleizea menperatu eta Aginterriaren onari begira jarri zan (Ikusi BUP'eko 2n. urtea III gaia); ba'ma XI gizaldian asita, "abadetza" *6a* nagusi, Aginterria Aita Santutzaren menpcan dago. Kluny'larrak ekarri eben indarrak asko egin eban Eleizea monastegi-yiroan bizi daiten, orduan Eleizea monastegi aundi baten antzeko biurtu zan eta sekular-bizitzea lekaideen aurka jarten da. Eleizea Aita Santutza da eta Aita Santuak agintzen dau aginpidetzaren txuntxui i et ik danean, baiña ern-agintaritzako eskubideak "t)ere ordez" Erri-Agmlari Nagusiak "Enperadoreak" beteten danzala. Apostoluen ondoren izan ziran "fedearen lekukoak" orain "fedearen burrukalari biurtu dira, gudalariak dira eta ez gogo-gudalariak: Gudalari Alkaitea, Kurutzedun gudalariak...

Ori ta guzti be, Erdi-Aroaren luzeera osoan, Eleiza-Aginterriaren aurrean, ba-zan eta geroago ta geiago agertzen zan Eleiza-Eskutukia. Onen agerpenik aundiena Frantzisko Deuna izan zan. Eleizearen iru-ch au, lengoaren aurrcon beti agertzen da aztertzaille lez.

## Aldakuntza aundia

Aldi onetan (ikusi BUP'eko 2n. urtean IV gaia) Ber-jaiotzaren jokabidea etorri jakon Eleizeari, laterri *barnen indarragaz batera. Or-*tik sortu zan Eleiza ardat-zalea ez onartzea eta abade-girokoen eta *laikoen* arteko afkar *urrintzea asi* eta jakintzak abade-giroa galriu egin eban. Aita Santuak jokabide oiren bultzagille izan ziran Aita Santu baiño beiñago eta ortik gaizpide aundia munduarentzat. Eieizearcn cgoera larri onen aurrean Lutero'k jaso eban bei e abotsa, arin-bea-nekoa zan aldnkuntzea eskotzeko.

Erroma'ren ardatz-zalekeriak bere egoerak zaintzeko "asmau" ebazan iru "norberaren burua zaintze" esaten jakenak aztertzen cJauz Lutero'k: Erri-giroko almena gogo-giroko almenaren rnenpean daçoala esatea; Aita Santuak eta bere irakasletzak baiño beste iñok ezin leikela Biblia ondu ulertu esatea: eta Aita Santuak baiño ezin leikela Eteiz-Oatzar Nagusia batu esatea. Berak beste eleiz-eredu bat aldarrikatzen dau "santua" dan kristiñau-alkartea, iragarten dan ebanjelioan ikusi daikena eta irakatsia aztcrtzeko ta irakas'eak ken-tzeko almena santuen alkarteak dauala.

Trento'ko Eleiz-Batzar Nagusia batu zan geroago, lar berandu, baiña ezin izan eban banaketarako eragiña gelditu. Onek Eieizea, batez be, Lutero'ren aurka joian Eleizea, agertu eban eta Jaungoikoa-ren berbeak agertutakoa zaintzeko dan Eteizearen irudiari emoten tlautso indarra. Oirelan, Eieizearen teolojia, geiena eleizearen aldejo-katzeko zan ezkero, "apologetika" edo Eleiza aldelari biurtu *zan.*

## 8uru-argien eta Erromantikuen aldia.

Oneik auxe uste eben: Gizonak dana ezagutu eta eskuratu leike-\a (ikusi DUP'eko *2n. uriean* V gaia) eta jokabide orren borruan

"eJeizbidea'Ven gaiñetik doan *eta* "buru-argia'Ven *g'irokoa dan* batasuna lortzeko bidea artu eban.. Eleizeak berak be "santutasun-usaiña" gaklu eban jokabide onaren moralaren giroko gizarle biurtzeko. Eta, Eleizearen barruan, abadeen eta laikoen arteko urrintasuna sakondu egui zan, lenengoen alde.

Frantzia'ko matxinada edo iraultzaren ondoren. sekulartze-joko au indartu egin zan: Eleizeak laterriakaz dauzan artu-emonak eraubicleratu egin bear dauz "itunen" bidez. Polilika-arlonn indarra gitxitzearen eta lur-ondasunak eta dirutzak amortizatze-ezaren bidez, Aita Sontuaren eta gotzaiñon jokabiderako enlzute ona ugarilu egin zan

Erromantikuen girook, Buru-Argien errazoi-bideari aurka egiñaz, iturri barri batzuk aurkitzen dauz Antxiñakoen bideai begiratuta: Eskoiastika barria *indartzen 6a* eta *orregaz* batora aJdi aretako gogoari aurka egiten dautson irakatsia sortu zan. Orregaz balera, buru argia barik beste bide batzuk egira urreratzeko baliatu ziran lez, bizi-bizi agertzen da Eleizea Kristo'ren Gorputz ezkutu lez artzeko bidea. Munduak agertzen dauan gogoaren aurka jokatzeko, "Eroma-giroa" indartzen da eta Aita Santuaren inguruan znrratuta dagoan Eleizearen Jerarki-neurria da nagusi.

Batikano'ko I Batzar Nagusia.

Palzar Nagusi au egiteko btdea artu zanean, asmoo zabala zan, baiña politika-ghoko jazokizunak ez cben itzi asmo ori beteten. Dogma-aginak ez eban besterik egin Erroma'ko Aita Santuaren Lenengotasuna eta bere Irakaskuntzako uts-ezintasuna ziurtatu baiño. Orrelan Aita Santuaren inguruko batasuna sendotu zan eta ondoren lez beste batasun batzuk etorri ziran: Gauzak esanez agertzeko barclintasuna. liturjia'koa, eta abar .. Orrelan Eleizea barrutik sendotuta geratu zan... naizta munduaren aurrean zarratuta agertu.

Batikano'ko II Batzar Nagusia.

Mundu guztiko lenengo guclaldia amaitu zanean, eritxi onoik

agertu ziran Eleizearen giroetan: Laikoa be Eleiza zala, Eleizea ez dagoala gizonen aurrez-aurre, Pio XM'ren "Mystici Corporis" Idazkia (1943) Eleizeari buruzko ikaskelak bizi-barritzeko bidea izan zan eta Eleizearen giroan ikusten ziran burubidea bi alkartu ebazaiv Knsto'ren Gorputz eta Jaungoikoaren ern izatea eta Eteizea erakunde lez eta alkarte lez ondo bereizUi zan.

Arlo onetan Batikano'ko II Batzar Nagusia E'eizeari bLiruz dan ^leizearen Batzar Nagusi lez agertzen da (ez beste batzLin aurrean dagoana iez). Lumen Gentium deritxon bere Ziurbideko Agiriak Eleizea Jaungoikoaren eta Gizonen arteko Batasunaren sakramentu lez agertzc-n dau, ezkutukizko Eleizearen bideetan. Mundu onetatik Aitaganantza dnan eta Jaungoikoaren berbea-en eta sakramentuen laguntza bere oiñarriko zeregiña daLian Jaungoikoaren Erria da Eleizea. Sinistedun guztiak batzen ciauz eta onein artean egitekoak ezbardiñak dira, eta jerarkiaren zeregiña bera be Jaungoikoaren Errian emoten jakon laguntza lez ageitzen da, ez goragoko mailla baten edo aginpide lez. AmniUj barik geratu zan Batikano'ko I Batzarra osotzeko, Gotzaiñen alkartasuna agertzon da, Aita Santuaren NagLisitzagaz batera Eleizearen erakundeko gauza lez. Laikoen garrantzia ziurtatzen da, oiñarria fededun gLiztiak batera dauken abadetza dala, eta oneik dira Eleizea munduan bertakotu bear dabenak. Eleizearen karisma ta igarle-zeregiña be aintzat artzen da. Kristoion Eleiza bakar baten gaiak beste eleiza balzutan ba-dagozela diño Eleiza onek eta Eleizeak orreikaz alkartuta ikusten dau bere burua, orrelan ekumenikLi-giro baten aldi barriari asierea emoten jakola. Eleizeak bere burua mundu-banuan aurkitzen dau eta gizon guztiakaz alkar banaketa egiten dau, bere barruan zarratu barik mundu orretan lan egiten dauala.

## ZERTARAKO 6ALI DAU ELEI2EAK?

Itaun onen barruan gaur askok daukan burutasun bat dago: neurtu leiken z^ozetarako balio dauanak baino ez daLikala "izater-ik". GaLizak orrelan ikusita, onura-bide utsa onartzen dala, Eleizeak ez dciu balio ezertarako be,jakiña.Gizonak berak be ez dau balio ezerlarako... Baiña gauza-zaleen mundukoa dan eritxi au azpiratu ezkero, beste eritxi sakonago bar artzen ba'dogu, Eleizeak askotarako ta

askotarako balio dau. Kristo'ren ikuspegitik, gizonak egiten dauzan sustraiko itaunai erant2uten dautse, bizitzarako beste jokabide bat eskint2en dauala: Gizon guztientzat Salbajmeneraka Sakramentua **da.**

Batikano'ko II Batzarra egin zan ezkero, "Sakramentu" izena Eleizeari ezarteak indarra artu dau. Orrek esan gura dauana auxe da: "Eleizeak Jaungoikoa gizonai dautsen maitasunaren misterioa iragarri eta bete egiten dauala" (Gaudium et Spes 45) edo "Jaungoikoagazko barruko batasuna eta gizonen artekoa agertzeko ezaugarria ta eragillea" dala. (Liimert Gentium 1). Salbameneko Sakramentu lez, £leizeak alde batetik Krista'gana ta bere zeregiñera garoaz eta beste alde batetik mundua eta kondairan egiten dauan ezaugarri-lanera. Eleizea saibamenerako Sakramentu arokorra dala sinisten ba'dogu beste au be onartzen dogu: Eleizeak Kristo'gan gure izateari dagokiozan itaunai azkenengo erantzuna emoten dautsela eta gizonaren bideak alkartzen diran puntua dala. Onura-arloan egiten dan itauna "Eleizeak zertarako balio dau"? or dauko erantzuna.

## ELEIZEA GURE ALKARTEA DA.

Ori ulertzeko ban3ka b'iziteko tiaukagun tentaldia azpiratu bear da, eta tentaldi au gure giroetan sakon sartutn dago, onura-zaleen eta gauza-zaleen tentaldia be sakon sartuta dagon antzera. Sarrita^n esaten da fedea bakoitxaren gauzea dala. Baiña orrek beste arazo bar dakar: Bakoitxak daukan fedean zertarako bear da Eleizea? Zertarako da bearrezkoa alkartea?

Baiña gure fedeak bear-bearrekoa dau alkarlea. Sinistedun bakoitxa baiño aurreragokoa *6a* neure fedea daukan taldean sartuta egotea: Bakoitxa fededun biurtzen da ez bere barruan erabagia artzen dauanean —orrek be garrantzi aundia dauka— eta ez banaka artu dan erabagiaren ondoren lez --au be bearrezkoa da~ sinistedunen alkartera sartzen danean ba'iño. Fedea, barru-barruan, batera da banakakoa ta eleizakoa. Orixe berorj jazoten da gure bizitzan bertan be. Ezin dogu bizi bakoitxaren bizia giza-alkarte baten barruan boiño, ortxe osotzen da. Alkarte-giroa gizonaren bizitzearen barruan dago jaioten danetik: Guk persona lez aurrera eçiteko, bestea bear dogu beti. Eta

alkarteak bakoitxaren izatea itzaltasunez begiratu ta alboratu bnrik *artzen* dauanean, alkarteak emoten dauzan ondoren onak ugaritu egjlen dira. Baiña Alkarte-giroak bakoitxarena dana alboratzen dauanean, alkarteak gizona bere onerako artzen dauanean, orduan gizonn ezere7f.11 egiten dau.

Eleizea, bere izatez da alkartea. Jesus'ek ikasleen taldea aukeratu eban eta eurakaz benetako alkartea osotu eban: Alkarte au da Eleizea zer izan bear dan jakiteko eredua, ortxe dagoz Jaungoikoaren Erri Barriaren sustraiak eta orra begiratu bear da beti lenengo alkarte arek gizartea jarraitzen dauan gaurko Eleizea aztertzeko ta argitzeko:

— Jesus'ek bizitzea *banatzea* eskatzen dau, eukitearen giza-eginbidearen ordez o:i jartzen clauala (Mt. 4.20; 9,9;10.9-10; Lk. 10-4; Mt. 19,21). Eta eukitearen gogoa alboralu egtten da, *orixe* dalako banalzea egiteko era bakarra (Mk. 6,3-46).

— Alkarte onen bizitzarako egitaraua Mandiko Berbaldian ba*tzen* da. Zonontasunak dira Ikasleen Alkarteak jarraitu bear dauan bidea. Elburua: Zoriontasuna (Ikusi BUP'eko 1° urtean < I gaia); baiña zoriontasuna ez da ulertzen gizarteak ulertzen dauan eran: Zoriontasunak gure munduko balioen erakundea aldatzea eskatzen dabe.

— Oiñarriko jakabidea gizarte onetara sartzen danarentzat, laquntza emotea da. Eta Jesus'ek ez dau onartzen Alkartean iñor nagusikeriz ibiltea (Mt. 20, 20-28),

Jesus'en alkarteak dauzan berezitasunak Eleizearentzat be balioko izan bear dabe:

— Eleizea bizitzea banatzeko tokia *izan* bear da.

>

— Eleizea *personen* alkartea *6a,* bere biziteko *ereagaz* gizonari zoriontsua izan leitekela agertzeko, baiña orretarako bidea gizarteak eskintzen dauana barik beste bat dala: Zoriontasunen bidea.

— Eieizeak biziteko era barri bat eskiñi bear dau cta ori ez da cjuur riaukaguna aldntzea, beste barik, biziteko beste era obe bat da.

Banatzea da oiñarri, zoriontasunak, besteai laguntzea, anaitasuna bi-llatuta eta Jaungoikoaren semetza gizon guztiai agertuta.

## LENENGO ZATIAREN ERASKIÑA

# ERLEJIÑOAK

Eleiza Katolikuak
ez dau alboratzen erlejiño oneitan
santua ta egtzkoa danik,
Benetako itzaltasunaz begiratzen dauz
ekintzarako ta bizitzarako erak, aginduak eta irakatsiak,
berak autortzen eta irakasten dauanetik oso urrin egon arren,
sarritan,
Egia danaren izpiak izanik,
gizon guztiak argitzen dabezelako.
Bere eginbearra Kristo orain eta beti
iragartea eta erakustea da,
Berau dalako bidea,
egia
ta bizia.
eta beronegan aurkitzen dabelako gizonak erlejiño-bizitzaren
osotasuna eta beronegan Jaungoikoak
gauza guztiakazko bakezea egin daualako.

Batikano'ko II Batzarra. Kristiñauak ez diran
eleizakazko artu-emonai buruz agerpena.

## I INDU-BIDEA

Aldikadak.

"Irakatsi lez artu ezkero, Indu-bidea zeaztu-bakoa da, askotarikoa, dana batzen dauana. Ezin esan zeatz-zeatz erlejiñoa dan ala ez, erlejiño izen au estu artu ezkero... Bere benetako gogoa b'zitea eta beste batzui biziten iztea da".

Pandit Nehru'k.

"Indu-bidea aspertu barik egi-billa ibiltea da. Egiaren erlejiñoa da au. Egia Jaungoikoa da. Ezagutu dogu Jaungoikoa ukatzea, baiña ez egia ukatzea".

Gandhi'k.

Indu-bidearen zabaltasuna ta eroapena neurri-bakoa da: bere barruan sartzen dira antxiñako jainko askodun erlejiño eta jakinzaletasunik zeatzenak. Eta ezin esan let erlejiño onen Jaungoiko berezia zein dan...

Indu itza persatarrena da ez dau esan gura beste ezer "indi-tarra" baiño. Izen au Indo ibaiaren inguruan bizi ziranai esaten jaken: Indu-bidea bizi-era bat da eta aurrerapen aundi baten ondorena, iru milla urte dirala asitako bide baten azkena.

* Indu-bidearen lenengo ekiñaldian gizonezko jaungoiko bat gurtzen da lenengo irudipen lez eta geroago ortik agertuko da Siva jaungoikoa. Jaungoiko onen gurtzea India osora zabaldu zan.

* Urrengo ekiñaldia indu-bidearen kondairan aritarrak eldu ziranean asi zan, K.a.l.500n. urte inguruan. Veda-giroko erlejiñoa da eta liburu santuen moltzo aundiak idatzi ebazan, Veda deritxoenak, eta ortik datorko aldi oneri izena.

* Aurrean esandako danaren azkenean Indu-bide klasikua agertu zan, indu-bide istorikoa be esaten jako, eta aldi onetan indu-bideak bere izaera berezia lortu eban (K.a.400n. urtetik K.O. 500n. urtera.

* Kondaira orregaz batera, antxiñako erri-jaungurtzak jarraitu eben. Veda-giroa galtzen asi zanean, veda-aurreko gurtza oneik barriro indartu ziran.

## Indu-bidearen Jaungoikoak

Indutarren Jaungoikoa toki guztietan dago (orregaitik lau buru) eta itxura askotakoa da. Edozein gizon, abere naiz izakitan sartu leiteke (bei sagaratuak. Ganjes ibai sagratua...). Orregaitik dauko Adia'ko Jaungoikotegirik aundiena. Esaterako Brahman Jaungoiko bat bakarra, batzutan Barhma 6a, beste batzutan Vishnu edo Siva, egin, zaindu ala apurtu zer egiten dauan kontuan artuta... Indu-bideko Jaungoikotegian millak jaungoikoak dagoz eta euren bizitzetan gizabideko jazokizunak ugari daukez, Grezia ta Erroma'ko. jaungoikoen antzera.

Brahma, Vishnu eta Siva dira "Trimurti" osotzen dabenak (au ez nastau kristiñauen Irutasunagaz). Iru izango litzakez, baiña bakoitzak bere emazteak eta seme-alabak daukez...

## Euren Liburu Sagaratuak

"Veda" izenak "jakituria" esan gura dau. Veda'k berbaz artutako jakingaien moltzoak dira, gizaldi askotan eta alkarregandik urrin diran lurraldeetan idatziak, eta azkenean sanskristoz edo veda-izkuntzaz idatziak izan ziran.

Moltzo orrek lau zerrenda daukaz:

— RIG-VEDA edo aspaldien Veda. Auxe da zarrena indiako elertian. Jaungoiko askori eskiñitako mille ereserki baiño geiago dira.

— SAMA-VEDA, edo doiñuen Veda. Aspaldien pilloa da, geienak Rig-Veda'tik artuak. Abesti-liburu baten antzekoa da.

— YAJUR-VEDA, edo esaldien Veda. Ernen oparietarako bear diran esaldiak agertzen dira.

— ATARVA-VEDA, abade edo aztien jakituria dira (onei atarvanak esaten jake). Emen aztientzat eta zin egiteko esaldiak dagoz.

Veda'tarren azalpenak

Esandako liburu sagaratu orreik guztiz itxiak dira eta azalpenen bear-izana dauke. Azalpen oneik Barhmanak eta Upanishas'ak dira. Lenengoak liturgirako (oikuneak, opariak...) eta besteak jakinzaletasunaren girokoak dira, eta Lenengo dan alguztiduna, betikoa, askea, emen dagoana, an dagoana nor dan diñoe: Brahman.

Inditarren idazki-moltzo aundi au beste liburu batek osotzen dabe: Maha-Barata edesti-olerkia, batzuk bostgarren Veda diñotsoena.

Indu-bidearen berezitasunik argienak

a) Egi ziurrak

Indubideak askatasun aundia izten dau erlejiñoa norbereganatzen danean. Ez dauko egi ziur-ziurrik. Jaungoikoa izaki guztien barruan billatu bear da. Gauzen kontzientzia apurka galdu egin bear da, norberaren izatea be bai (oneri :atman esaten dautsoe), eta dana artu oso askea dan norkirik ezean (oneri :brahman deritxoe). Bide au bakarrik ezin egin leiken lez, maisu bat bear da (oneri :guru esaten dautsoe).

b) Jokabide zuzena

Indu-bidekoak iru oiñarrizko arau bete bear dauz:

— Enda-maillen araua: Lau enda-mailla dira ezagunenak:

1) brahmanak (:abadeak) Brahma Jaungoikoaren burutik urtenak; 2) Kahatriyak (Leiñargi gudalariak) sorbaldatik urtenak; 3) vaisyak (:saleros(eak, esku-ertilariak, lugiñak) oneik Brahma'ren sabeletik urtenak; 4) udrak (:morroiak) oiñetatik urtenak eta beste enda-maillen menpean egon bear dabenak. Orrez gaiñera lau enda-mailla orreitan sartzen ez diranak "pariak" edo ikutu-eziñak dira {:endabako jentea). Kondairen zear enda-maillak ugaritu egin dira, asko ugaritu be.

— Bizitza-egoeren araua: Ume-alditik urteten danean, indubidekoak bere bizitzan lau mailla igon bear dauz. Ikasle-mailla, Sendi-buruarena, eremutarrarena eta bide galduan doan lekaidea*rena.*

— Banakakoen jokabide-araua: Garbitasuna, norberaren j'abetza, esku-zabaltasuna, egi-zaletasuna, gogorkeririk-eza. Azkenengo au bizi guztiak itzaltasunez begiratzea da, olakoai kalterik ez egitea. Gandhi'k orixe *artu* eban bere lurralde onen askatasuna lortzeko politika-joko lez.

c) Ber-eragitzea:

Gizon bakoitxaren bizitzeak lenago beste bizitza batzuk izan dauz eta oraingo bizikeria lengoen ondorena da, len zelako egiteak, onak ala txarrak egin dauzan, arei dagokiena. Arjmak, ba, billa dabiltz bizitzarik bizitzara, azken elburua dan askatasun osoa lortu arte.

d) Askatzerako bideak

Bizrtzako arazo bakarra "betirako lan ezarrietatik" *askatzea \or*tzea da, ber-aragitzea daben katetik askatasuna lortzea. Ori lortzeko biderik ziurrenak iru dira:

— Egiteen bidea: Bakoitxari dagokiozan eginbearrak ondo-ondo bete.

— Jakitearen bidea: Gogaketak egin eta Askea ezagutu, gauzak dabezan etxurak alboratu eta benetakotasuna billatu, gauzen barru-barruan dagoana. Au Brahmanak bakarrik lortzen dabe eta elburu

au egiten dauanak ez dauko geiago beste izaki batera sartu-bearrik.

— Eraspenaren bidea. Yoga'ren bidea da au, ontasunaren eta guztiai ondo gura izatearen bidea: gogo-ekintzai galgea ezarri, burutasun eta biotz-min guztiak baretu, gogo osoa bare euki-arte eta orrelan Gogo Askea danagaz alkartzeko.

e) Azkena. nirvana:

Esandako bide orreitatik ber-aragitzea amaitzen dauanak, Brahman izatea lortzen dau eta mundurik mundura doa laguntzak zabaltzen, eta Jaungoikoarenak diran atsegin guztiak eskuratzen dauz.

## II. BUDA-BIDEA

### Buda, **argitua**

"Gizonak, gezi pozoitu batek zauritzen dauanean, au esango ba'leu: "Nire zauriari iñok ez dautso ikuturik egingo zauritu nauana nor dan nik jakin arte, leiñu-argia ala brahmana, askea ala morroia, dan jakin barik iñok ez nau osatuko, ienengo gezia jaurti dauan arkua zelako zuraz egiña zan jakin arte..." zalantza barik gizon ori zauri orrek ilgo leuke".

Irudi orren bidez Budak argi diñosku Veda-iiburuetako burutasunak ez ebazala kontuan artzen. Berak Indu-bidetik artu ebazan munduaren ezerezari, gure egiteen zigorrari eta gogoak izakirik izakira aldatzeari buruz jakingarriak, baiña erlejiño ori eta batera gizar**tea,** aldatu egin eban. Enda-maillak alboratu eta brahmanak aiztu. Berea da gizon guztientzat askatasuna iragarten dauan lenengo erlejifloa,

Siddharta Gautama, -geroago Buda izena artuko dauana- Nepal'en jaioa zan. Zoriontsua izateko ez eban ezer besterik bear: Sendia, eziketa, izakera onak, emaztea... dana eukan. Baiha bat-batean bere bizitzan eragin aundi bat izan eban: Bere burdian erri-barrian egin ebazan lau urtenalditan erriaren larritasun aundia eta askatzerako bi-

dea ikusi ebazan. Lenengoan agure zar bat ikusi eban. Bigarrenean, gaiso zikiña eta guztiak alboratua. Irugarrenean gorpu bat erreten eroieia. Laugarrenean lekaide eskalea, bakez beterik. Burdi eragi-iieak agertu eutson Gautama'ri lekaide aren bizitza zelakoa zan: "Atsegin-egarri guztiak itzi ebazan eta orain jokabide eder eta arautuan bizi da. Biderik bide dabilien iekaidea da, eta bere barru-ko baretasuna billatzen dau. Ez dauko maitekeririk, ez gorrotorik, limosnea eskatzen dau". Gautama'k ontzat artu eban bide ori eta bere sendia itzi eta bidez doan neke-zale baten antzera biziten asi zan. brahmanen irakatsiai jarraituz. Orretan alegintzen zazpi urte igaro ondoren, bear ebana ez zala atsekabeen aurkako gordelekua ikusi eban, bear ebana, atsekabeak kentzea zala. Bear dana ez da *ba, norberaren* burua aiztutea, banaka jakituria lortzea baiño. Orre-gaitik, erdiko bidea artu eban, atsegiñetatik urrinduta eta norbe-raren burua neketzetik be urrinduta dagoan btdea, Une onetatik *aurrera,* brahmanak siniste okerreko lez *artu eben* eta guztiak itzi eben bakarrik. 8idez-bide ibilten zan eta egun baten iko-landara ba-ten aurrean geratu zan eta antxe, gau osoan, argitzea izan eta "Bu-*da"* (:argitua) biurtu zan. *Gazela* piztien *zugaztian* antxiñako bere lagunak aurkitu ebazan, beragandik alde egin eben lagunak, eta - bere pentsabide barria agertu eutsen "Benares'ko berbaldian". Antxe agertu ebazan zeatz "lau egiak" eta "erdiko bidea". Ordu-tik aurrera, Buda'k ibilli ta ibilli egin eban bere mezua iragarten. Bere jarraitzailleak ugaritu egin ziran. Enda-maillen arteko esiak jausi egin ziran eta baiio bakarra bakoitxaren barruko eidutasuna zan.

Lau egiak

Buda-bidearen irakatsiak ez dira jakin bear diran egiak, joka-bide biziak dira, nekearen aurrean zer egin jakiteko.

Nekeak edo atsekabeak bere iturburua gauza igeskorretan dau-ka, gauzak igeskorrak izatean, Ezer ez dago iraunkorrik, ezek ez dauko izaterik, gizonak be ez. Eta, ondoren lez, ortik ezezkorta-sun aundia dator.

Munduaren benetako izakera igeskorra ez dakianak, bere egarriak munduak bete leikezala uste dauanak, amets utsezko mundua dauka,

bera ezjakintasun ori da samintasunaren iturri.

Egin bear dana ba, guraria kentzea, galtzea edo amatatzea da (:nirvana) eta orixe da salbamenaren elburua.

Bide orretara eltzeko "zortzi zugatz abar" dagoz. Lenengo bostak jokabide arlokoak dira (eritxi zuzena edo gauzak ikustea, asmo zuzena, berba zuzena, egite zuzena eta bizikera zuzena). Seigarren ekiñaldia bide onetan, buruari dagokio (norberaren esku euki bear da sentipenak eta pentsaketak egitea)..Zazpigarren ekiñaldia kontzientzi zuzena da (arreta edo argibidera sartzea). Eta azkenenego ekiñaldia barruratze zuzena da (auxe da buda-bidearen gogarteak dauan una).

## Utsa

Buda'k oso-osoan ukatzen dau bakoitxaren "neu" (arimea edo atman). Gogoa amets utsa da eta mundu au be ez da izatezkoa, ez dananren itxaso zabalean .gagoz... eta orrek zurtz eginda izten gaitu "ni" izatea bakoa ba'da, zelan izan daiteke il-eziña? Izaki-aldatzea norberetasun bako jarraipena ba'da, zergaitik guk artzen dogu aurreko bizitzetan izan diran egite onen edo txarren ondorena?. ,

Nirvana

8udak onelan: "Ber-izateratzeen azkena da". Batek argi egiten dauan kruzelu bateri oriorik botako ez leuskio lez, utsa da, mugabakoa, aize zabala txorientzat dan antzera. Orra eltzeko norberagan egarri biziak kendu bear dira eta maitasun egiteak egin".

Buda-bideko jokabide zuzena.

— Norberaren alegiña. "Ez itxaron ezer biotz gogorreko Jaungoikoakandik... jaio, zar-egin eta i! egiten dira, barriro jaioteko eta eurak be ez dabe iortu euren atsekabeak kentzea. Dana itxaron bear dozue zeuekandik".

— Erdiko bidea: Buda'k ez diño bide latza artzeko. Nirvana'ra bidea erdiko bidea da, dana iztearen eta mundutarra izatearen erdian dagoan bidea.

— Bost aginduak: Ezeri ez kendu bizia, emon ez jatzuna ez artu, zentzun-atsegiñetan ez oker jokatu, berba faltsorik ez esan, gogoa illuntzen dauan pozoikirik ez artu.

## Alkartea

Budak bere jarraitzailleai "bitxi irukoitxa" eskintzen dautse: Irakasle bat: Buda, lege bat: Dharma eta alkarteak.

Lekaideen aikartzera sartzeko, lekaidegaiak maillaratze bi egin bear dauz. Lenengoa, lekaide-barriak mundua itzi eta Budaren irakatsiak bizitera ekintzen dauanean egiten da, alkartearen aginduak beteteko berbea emoten dauanean (bizia ezeri ez kentzea, ez ostutea, zikinkeririk ez egitea, guzurrik ez esatea, alkoolik edo edari garrazturik ez edatea, ez-orduetan ez jatea, dantzarik, abestirik eta ' ikusgarriak ikusterik ez egitea. norberaren burua ez apaintzea, edertzea edo *usatntzea,* ogertk edo jesarleku aundirik *ez* eukitea, *urre*rik edo zidarrik ez artzea); bizarra ta ulea kendu, jazki beilegiak jantzi, eskean ibilli eta irakasle baten zuzendaritzapean Jaungoikoari begiratzen ikasi. Ekiñaldi au beteten danean, bigarren maillaratzea eskatzen dau; batzar nagusiak onartu ezkero, lekaideen txirotasuna beteteko eta "lau zeregiñak" beteteko berbatuten da: Garbitasun osoa, iñor edo ezer ez iltea, ez ostutea eta bere gogo-osotasuna dala-ta ez arrotutea.

## Buda-bideko Jaun-Gurtzea

Bontzoen bizikerea da biderik ziurrena nirvanara eltzeko. Lekaideak dira Jaun-Gurtzaren arduradunak, baiña ez dauke oparirik, ez sakramenturik, toki santuetara ibilte sagaratuak bai, edo Buda'ri edo bere ikasleari lorak edo usaingarriak edo argizaiak eskintzea be bai.

Lekaide ez diranak. laikoak, legea beteten dabe eta maitasunezko egiteak egin, batez be bontzoakaz, eta orrelan ber-izakiratze atsegingarria itxaron daikee.

## III. ISLAM BIDEA

### Islam mundua

> " Goratu zure jaun guztiz aundiaren izena,
> berak egin dau dana eta danari antza
> emon dautso,
> be'rak erabagi eban mundua egitea
> eta gero zuzendu egilen dau".
>
> KORAN.

Islam-bidekoak Lurbira osoaren bealdeko erdia beteten dabe. Moroko'n asi ta Indonesia'ra arte. 450 milloitik gora dira euren buruak musulman lez agertzen dabezan andrak eta gizonak. Baiña musulman guztiak ez dira arabiarrak, enda askotakoak dira. Eta arabiar guztiak be ez dira musulman-bidekoak. Musulman arabiarrak (gitxi gorabera $^{o}/_{Q}20$) Islam-bidearen lenengo zabaltzailleak izan ziran eta euren izkuntzaz idatzia da Koran liburua.

### Maoma'ren bizitzea

Mohammad Meka urian jaio zan K.O. 570n. urtean eta umealdian txirotasunean bizi izan zan, ezitzaillea Abu Talib bera osabea zala. Gazte-gaztetatik bere leiñukoen eremu-taldeetan ibilten zan. Gero Khadija izeneko alargun aberats baten ondasunak zaintzen asi eta zaintzaille ona izan zan. Bera baiño amabost urte gazteagoa izan arren, alargun orregaz ezkondu zan. Eremu-taldeen bidez ezagutu ebazan Juda-bidea ta Kristo-bidea eta bide bi orrei itzattasun aundia dautse, batez eremuan bizi diran lekaideai. Jakiña da bere erlejiño-giroan larriune aundia izan ebala eta Meka'tik urrean egoan aitz-zulo batera joan zala gogartea egin eta otoitzera

buru-be!arri bere burua emoteko: Antxe eldu zan bere barruan asmatzen eban Jaungoikoaren deia. Bere barruko deia, erria erlejiño-bidera, Jaungoiko bakarra gurtzera eroatekoa zan, edo berak esaten dauan lez, "Abraan'en erlejiñora": Bere lenengo berbaldiak Jaungoiko asko gurtzearen aurkakoak dira eta bere erritarren jainko-izunak gurtzeko jokerea alboratzeko: Jaungoiko bakarrari zor jako benetako gurtza, eta ez beste iñori.

Meka uria salerosketarako uria eta erlejiño-uria da Arabia'ren barruan. Ez ete eban sortu Meka uri au Abraan'ek bere semea zan Ismael'egaz batera eta ez ete da bera arabiar guztien aita? Eta bere Santutegia, Kaaba, aingeruak eroan eben arria, ez ete da Betiko Jaungoikoari egindako etxeen artean lenengoetarikoa? Dana daia, Maoma bizi izan zan aldian, lotsagarria! 300 jaungoiko-irudi baiño geiago egozan. Bere emazteak orretarako adorea emonda, Maoma'k ekin eta ekin egiten ebazan berbaidiak jainko-izunak gurtzearen aurka. Moises'ek Israel'darrai Bost-idazki edo Pentateukoa agertu eutsen lez, edo Jesus'ek Barri Ona iragarri eban antzera, Maoma'k be iiburu bat aurkezten dau Jaungoikoak berari iragarritako *\ez,* Koran. Berak idazteko esaten dauzan gaiak, ikasleak idazten dabez, askotariko idaz-tokietan (palma-orrietan, arrietan, ganbeluen sorbalda-azurretan, eta abar.): Koran'en agertzen da, Maoma erlejiño-gaietan buru-argia izan zala.

40 urtetik 63'ra, Mahoma berbaldiak egiteko bizi da, lenengo Meka'ko bere errikideen aurka burruka agirian, gero bere leuñu orretatik urten eta isillean iparralderantza joan zan, gero Medina izango dan eremu-barruko on-une batera (Medina da igarlearen erria). Ori jazo zan K.O. 622n. urtean *eta urte orrer'i* "Egira" (:igesa barik, ibildeuna) esaten jako eta ortik asten dira musulmanen aldia ta egutegia (Iretargiaren urteak zenbatuz, eguzkiaren urteak baiño amaika egun laburragoak).

Asikeran ez zan *Mahoma'ren goçoa erlejiño barr'ia sortzea,* judabidea ta kristo-bidea barik beste erlejiño-bide bat iragartea. Besterik ez eban nai bere errikideak Abraan'en Jaungoiko bizi eta bakarrera biurtzea baiño. Baiña Juda-bidekoak eta Kristo-bidekoak ez eutsoen jaramonik egin, eta Maoma'k salakuntza au egin eban euren aurka: Legea *ta* ebanjelioa okerbideratu egin dabezela. Berak orregaitik, bide bi orreitatik aldendu eta Abrahan'en fedean jarrai-

tu eban zintzo eta fede au ipinten eban Maoma'k eredu lez: Jaungoiko bat bakarra eta Jaungoiko bakarraren naimena oso-osoan beteteko gogoa. (Ori esan nai dau Islam berbeak, menperatzea; eta bardin musulman, muslin, berbeak be, Jaungoikoari menperatzen jakona).

## Liburu sagaratua: Koran

Arabiarren izkuntzaz "Koran" irakurgaia da "Bibliak" gerkeraz "liburuak" esan nai dauan antzera). Musulman batentzat Koran Jaungoikoaren berbea da itzez-itz, Maomak Gabirei aingeruaren bidez entzuna. Koran'ek 114 atal edo "sura" dauz, 6.000 berso guztiz ezbardiñak luzeeraz, Ekintza-aldian idatzia da eta orregaitik bere izkerea aberatsa eta bere idaz-tankerea izleriena da geiago okerkariena baiño. Sarritan eragin neurtua dauke bere esaldiak.

Koran, musulman batentzat dana da: Irakur-liburorik onena, gauzak jakiteko irakatsi jarraitua, txiroen iztegia, otoitzerako esku-liburua, legedia, eguneroko bizitzarako gidari zeatza...

## Islam'aren bost ageak

Beste gauza batzuren artean Koran liburuak bost eginbear ezarten dauz eta orreik betetea da musulman-alkartearen batasun-oiñarria.

— Fedea autortu: Au egunaren barruan sei unetan egin bear da Meka'ra begira, toki garbian (Orregaitik erabilten dira oinpekoak) eta norbera oikunez garbi dagoala (orregaitik sarritan gorputza garbitzeak), Jaungoikoa dana dala agertzeko egiten dan fede-egintza, bera dala dana eta urreratu-eziña eta gizona ezerezean geratzen dala, bere askatasuna galtzeko be arriskuan, orregaitik bear da fede-autortzea, salbamena lortzeko.

— Oikunezko otoitza: Bakarrean naiz alkartean egin lei, baiña ez egitea utsunerik aundienetarikoa da. Barikuetan Mezkitan egiten da erri-laguntzarako otoitz-aldia eta gizonak beartuta dagoz joatera; andrak etxean egiten dabe otoitza geienetan.

— Ramadam barau-aldia: Goizean egun-sentian asi eta eguzkia sartu arte ez jan ez edan eta tabakorik ez erretea da. Barau-aldia amaitzen danean txibizkeri batzuk jan leiz eta gabeko otoitza egin ondoren, egunerokoa lako janaldia. Eguna argitu aurretik, eta argitzetik al danik urren, beste janaldi bat egiten da. Ramadan au barru-bizitzazko illea da egunez, baiña gabaz jai-aldiak egiten dira. Amaieran iru jai-egun egiten dira eta egun oneitan limosna-emote asko.

— Limosnea: Koran liburuak legezko limosna-egitea agintzen dau eta emoten dana, txiroentzat izaten da, edo morroitzan dagozanak erosteko. bidez doazenai laguntzeko, Ala'ren zerbitzurako... Koran liburuan batera datoz otoitza (Jainkoagazko eginbearra) eta limosnea (geideagazko eginbearra).

— IbUlaJdi santuat Bizitza guztian baten gitxienez edozein musulmanek Meka'ra joateko ibillaldia egin bear dau. Ibillaldi orretan Koran Jaunak iragarri ebala gogoratzen da, baita Adan'en otoitza, gizonaren eta Jaungoikoaren arteko alkartea eta Agraan'en kondaira. 8este egite batzun artean zazpitan inguratzen dabe Kaaba eta an otoitz egin. Ibillaldi au Musulmanen eriejiño bidearen elburua da. Gaiñera., laguntza da euren alkartea sendotzeko.

## Guda santua

Musulman bakoitxak eta alkarte osoak eginbear bat dauka, izkilluakaz be, guda eçjiteko, "Ala'ren eskua, gorengoa izan daiten". Izkilluz egiten danari "guda santu txikia" esaten jako eta onen ondoren "Guda santu aundftik dator, au txarraren aurka doan eta bakoitxaren biotzean eta alkartean egiten dan betiko gudea da.

## Sunna-bidea ta Shia-bidea

Orreik dira Islam-bidearen abarrik sendoenak.

Musulmanik geienak sunna-bidekoak dira' "sunna" edo oitura zarrai lotuta dagoz. Sunna ez da besterik Igarlea bera ta bere jarraitzailleak izan eben jokabidea baiño. Lendik datorren au agorik agora zabaltzen da asieratik, zabaltzailleak Jaungoikoak orretarako

deituak dirala. Sunna-giroko islam-bideak bere aundikiak, legelariak, epailariak eta gurzaiileak daukaz. Ez dauko ez abaderik etz ez abade-bururik. Agintari musulmanak benetakoak dira Koran'en eta sunna' ren aurka ezer agintzen ez dabenean.

Shia-bidea berbeak setakeri-bidea esan gura dau. Auxe da islam-bideak izan dauan banatzerik aundiena eta musulmanen artean °/$_{o}$10 dira. Banatze au batez be erlejiño-taldeko burua zelan auke-ratu argitzeko goraberetatik sortu zan. Asieran alkarteak aukeratzen ebazan Maoma'ren ordezko ziran Kalifa'k. Shia-bideak 661 urtean, ALI kalifa zala izan eban sorrerea. Setakeri onek diftoanez, Kalifa edo alkarte-buruaren duintasuna ezin izan leieteke "iman" edo gidarietariko bateri baiño emona, oneik Ali'ren senditik sortuak dira eta Ali au Maomaren lengusua ta suiña zan. Amabi iman orrei-tan bizi da Igarlearen odola, amabigarren imana izan zan Al Mahdi edo Igortzia eldu arte. Au XI gizaldian galdu zan eta aldian azke-nean etorriko da barriro gizartean zuzentasuna ezertera. Shia-bidea Mesias-giroko erlejiñoa da. Eta beste arlo baten be banatzen da sunna-bidetik: Abadeak eta abade-maillak eukitean. Erlejiño-arduradunak euren arioetan "Ayatollah" izena daroe Iran'en: Mez-kiten arduradun diranai "Millah" esaten jake.

## Indu, Buda ta Islam-bideari buruz zerbait

Indu ta Buda-bideak, biak dira ber-eroste-bideak. Bietan ikus-ten doguz erlejiñoko burubide sakonak. Nekeak eta egoera erruka-rriak kentzea billatzen dabe, olako giroetara itsurik jausi barik. Indu-bidean billaketarako alegin sendoa ikusten da. Buda-bidean bakoitxaren nortasuna.

Baiña beste alde batetik, bietan gizona aduari makurtuta ager-tzen da. Sendoa izatea eskatu arren, gurariak eta iztilluak albora-tzea ezarri arren, nekeak ta egoera larriak ba-dagoz munduan. Mun-dua "itxura" utsezkoa dala uste izanik, obetzeko lanerako gogo aundirik ez dabe ezarten. Betikotasuna ez da maitasunezko alkarta-suna, ez da norberaren nortasuna zabaltzea, dana danaren barruan galtzea baiño...

Musuiman bidea beste bat da. Munduko elburua eurentzat ez da

itxura utsezkoa. Errukitsua ta graziz betea dan norbatek ezarten dau. "Ala" Jaungoiko bizi ta arduratsua da, alguztiduna, ona, bat bakarra. Dana dauka bere eskuetan, kristiñauok uste dogun lez.

Baiña Ala'k dana zuzentzen dau bitarteko barik eta oso-osoan berak nai dauan lez. Jokabide egokia be ez da sortzen gizonaren biotzean, Jaungoikoaren naimenetik dator bakar-bakarrik eta bitarteko barik. Orregaitik ez da aitatu bear ez grazirik eta ez pekaturik. Eginbear argi-argi batzuk bete: orixe da dana. Orregaitik Koran'ek, Bibliak diñoanaren aurka, gizartean biziteko agindu zeatzak daukaz: orixe da Ala'k nai dauana; ez dago aurrera egiteko leku aundirik. Islam'ek ezin daike alboratu adu-burutasuna. Dana oso-osoan Ala.ren eskuetan dagoaia jakiteak Musulmana alegiña ez egitera daroa, ez dauko ezer egin-bearrik bere egoerea ta munduarena obetzeko...

## IV. BESTE ERLEJIÑOTASETAKERI BATZUK

Eraskin au osotzeko, aitatu besterik ez, gaur gure artean zabal dabiltzan erlejiño ta seta-bide batzuk.

### Jehoba'ren lekukoak

Charles Taze Russel da ekinbide onen iraslea (Pittsburg'en 1.952'an jaioa). Gaztaroan Presbitero'tarren eleizan egi batzuk zalantzan jarten asi zan, gero Biblia aztertzen, batez be gaiztokiari eta Jesus'en bigarren etorrereari buruz. Aztertze orretatik atera eban ondorena izan zan Gaiztokiak ez daukala Biblian oiñarririk eta munduaren azkena laster datorrela.

Bere ustez, Jauna, ikusia izan ez arren, munduan dago 1.874n. urtean asita. Urte orretatik eta berrogei urtean gertatzen da Armagedon'en gudaldi nagusia eta 1.914'an amaituko da mundu osotubako au amaitzen dala. Urte orretan asiko da benetako Jaungoikoaren Erreiñua: Zeruan eta lurrean milla urtetako zorion betea izango da. Baiña igaro zan 1.914n. urtea munduaren azkena etorri barik eta Taze Russel'ek Armagedon'en gudaldia Europa'ko lenengo gudaldia

izan zaia esan eban eta munduaren azkena etorteko geroago beste urte batzuk ezarri ebazan. Iru aratako gizonak dagozela diño: Santu Sagaratuak oneik zeruko zoriona lortuko dabe; neba-arrebak, oneik Erreiñuko Legeak betetuta lurrean izango dabe zoriontasuna; eta ardiz jantzitako otsdak, oneik apurtuak izango dira. Lenengo taldekoak 144.000 dira Agerpenaren liburuan 7,4'an agertzen diranak (Ez da konturatzen idazki au zelan ulertzen dan: a) Agerpen-liburuak irudi asko daukazela eta 144.000, 12 bidar 12.000 dirala, zenbaki aundi bat, eta b) zenbaki ori Israel erriarentzat bakarrik dala, bere leiñuak 12 dirala eta gero idazkiak berak diñoala "zenbatueziñeko jentetza aundia erri eta enda guztietakoak").

Au il zanean, 1.916'an, bere ordez Joseph Franklyn Rutherford jarri zan (Mussouri'n, 1869'an jaioa) eta onek zabalkunde aundia egin eban: Irarkiak, itzaldiak, batzarrak, irrati-ekiñaldiak, eresmintzak... Erlejiño guztien aurka gogor ekiten dau, baiña batez be Katolikuen aurka. Bere aurretikoaren zenbakiak zalantzan jarten dauz eta 1.914 ez dala munduaren azkeneko *urtea d'iño, "azkenaren* asierea" dala. Geroago beste au esan eban: Jazokizuna zeruan jazo zala. 1.925'ean Patriarkak etorriko zirala lurrera iragarri eban eta eurakaz batera Itun Zarreko igarleak be, eta ori be ez zan bete. 1.93l'n artu eben "Jeoba'ren Lekukoak" izena eta euren ustez Biblian *o'tñarr'itzen diraia azaldu* eben, Jaungoikoak berak *emon* eutsela izen berezi au.

J.F. Rutherford'en ordez 1.942'an Nathan H. Hnorr jarri zan eta onegaz asten da Jaungoikoa agintari dauan erakundea: bere aginduak bialtzeko eta argitalpenai begiratzeko lurraldeetan *ordez*karitzak ezarten dira, lurraldeak be saille ta inguruetan banatzen dirala; arlo oneitan arduradun diranak euren lekuetako taldeak egin daben lanaren barria emon bear dabe. Jeoba'ren lekuko guztiak batzen dauzan talde txikia auzo bakoitxeko "taldea" da eta Erreiñuaren aretoan batzen da ospakizunak egiteko: Igandeetako batzar nagusiak, laguntza-batzarrak., Jaungoiko agintariaren ministeritza ikastaldeak, "Atalaya" adizkariaren azterketarako batzarrak... Jeoba'ren lekuko izateko naikoa da azalpenak egitea edo Alkartearen argitalpenak saltzea. Maila bi dagoz: Pioneruak dira illean eun ordu gitxienez "lekuko" izaten sartzen dabezenak eta "iragarleak" orretan amar edo amabost ordu inguru egiten dabezenak.

Guztiz eta mundu guztian milloi bat inguru dira, iru zatitan bardin antzean banatzen dirala; Ipar-Ameriketan, Europa'n eta beste mundu guztian. Gaur egun zabalkunde aundia egiten dabe Lat-Ameriketan, Asia'n eta Afrika'n.

## Siniskai nagusiak

### 1.- Biblia, fede-bidea bakarra

Fede-bide bakar bat baiño ez dago eurentzat: Era berezi baten dagoz Eleizeak daukan antxiñekoen esanari jaramon egitearen aurka. (Ik. BUP'eko II, VII gaia} eta euren ustez ori ez da besterik gizaldietan asmau diran irakatsiak eta aginduak baiño. Eleiza katolikuari beste salakuntza au egiten dautsoe; Biblia'ren aurka era askotara jokatu dauala, Biblia irakurtea galazoten dauala, Biblia ez dala bear irakasten dauala, Biblia ez dala goitik etorria irakasten dauala (Ik. 1° 8UP'eko VI gaia).

### 2.- Jaungoikoa

Jaungoiko bakarra sinisten dabe, baiña gauzabidekoa da guztiz. Ekin eta ekin diardue Jaungoikoaren izenari emon bear jakola indarra eta izen au Jeoba dala (ori izatez ez da besterik okerreko irakurketa bat baiño: Ebertarrak ez ebezan konsonanteak baiño idazten eta oneik ziran: J. H. V. H. eta beti esaten eben Jahveh, ez iñoz be Jehovah). Beste au be esaten dabe: Eleizeak, txerrenak bultzatuta Irutasunaren ezkutukia asmau ebala. (Ik. XVI gaia, BUP'eko lenengo urtean}.

### 3.- Kristo

Ez dabe sinisten Kristo benetako Jaungoikoa danik (Ik. BUP'eko l°'an, XVI gaia). Orregaitik ezin geinke euren erlejiñoa "kristiñauena" lez artu, kristiñau izatea, oin-oiñean, Kristo Jaungoikoa dala eta berbiztu egin zala sinistea dalako. Eta ori sendotzeko asmoaz, Itun Barriko idazki batzuk aldatu egiten dabez. Esate baterako, Kristo gizon egin baiño lenago Mikel Goiaingerua zala diñoe eta

Bateo artu ondoren biurtu zala Mesias, bera mundura etorteko bigarren maillako elburua zan gizadia ber-erostea.

Eta beste au be bai: Kristo ez zala kurutze baten il, age batetik eskegita baiño (naizta kondairak eta antxiña-iztiak edo arkeolojiak argi esan oiturea kurutzean iltea zala). Euren ustez Kristo ez zan berbiztu bere gorputzagas, espiritu utsezko izaki lez baiño {Ik. BUP'eko 1° urtean XIV eta XV gaiak).

## 4.- Beste irakatsi batzuk

Gizonak ez daukala gogo il-eziñik be ba-diñoe eta gizonaren gogoa eta piztiena bardiñak dirala. Arimea edo gogoa il-eziña dala be ukatzen dabe. Euren ustez berbizkunde bi dagoz: Lenengoa zerutarra, zeruko zorionera daroana, 144.000 aukeraturentzat; bigarrena, lurtarra, gogo oneko gizon guztientzat lurrean izango dan zoriontasun osoa: Onein artean millak izango dira euren bizitzan Jeoba ezagutu bakoak eta beste salbabide bat izango dabe milla urtean; Adan eta "gaiztoak" euren bizitzan gaiztakerian itsututa bizi izan diranak, eta gero etorriko diran gaizto guztiak beteiko ezereztuak izango dira,

Salbamenerako bide bakarra, etxerik etxe iragartea egitea da. Sakramentuak, sakramentu lez, ukatu egiten dabez, ez dabez onartzen, eta ezaugarri lez bakarrik, Eiateoa ta Jaunaren aparia baiño. Irudiak eukitea zearo galazoten dabe. Erri ta Erlejiño-giroko goimaillak alboratu egiten dabez, eta esaterako ez dabe onartzen laterriaren ezaugarri dan banderak agurtzea. Odola gizon bategandik beste bategana aldatzea galazo egiten dabe, Idezki santuak odola jatea galazoten daualako eta odola aldatzea janaria artzea lez dalako (naizta Jesus'ek janari guztiak dirala garbiak esan izan: Mk. 7,14-23). Eurentzat gabonak ospatzea txerrenaren bidea da. Eiztaritza, arraintza, kirolak, Jeoba'gaz egindako alkartasunaren aurka doaz. Benetan Lekukoa dan batek ez dau tabakorik erreten eta alkoola artu leike, baiña neurriz...

## Mormoiak

Jose Smith (Sharon - EE.UU -, 1805) izan zan iraslea: Abadeena deritxon eleizakoa zan umetatik eta mirarigillearen entzutzea lortu eban. Berak diñosku amabost urtekoa zala, erlejiñoari buruz ardura-tuta, basora joan zala otoitz egitera eta an ikuskizun bat ikusi ebala, Tabor mendiko antza-aldatzearen antzekoa, Jesus'eri buruz eban-jelioak diñoenez: laiño aundia sortu zan, eguzkia baiño argitsuagoa zan argi-izpia etorri zan beragana, eta abots au entzun eban: "Auxe da nire seme maitea, entzun egiozua"; zein erlejiñotara izena emon bear eban itaundu ebanean, batera be ezetz esan eutsoen, guztiak iguingarriak izan eta okerbidean dagozelako. Baiña bere benetako biurtzea iru urte geroago izan zan, Moroni izeneko aingeru bat agertu eta beretzat izango dan lan bat non aurkitu eban esan eutso-nean. Urrezko orrietan idatzita egoan eta benetako ebanjelioa eukan liburu bat aurkitu eban eta orri orrein ondoan arri bi aurkitu ebazan zidarrezko uztaietan sartuta (Urim eta Tummin ziran euren izenak) eta oneik lagunduko eutsoen liburua itzultzen, Itzulketa egin eba-zan. ez zan argi ikusi gauzea eta urrezko orriak eskatu eutsoezan, baiña berak aingeruak eroan ebazala zerura esan eban.

## Liburu Santuak

Mormoientzat lau dira liburu santuak: Biblia, Mormoi-Liburua, Irakatsiak eta alkarteak eta Balio aundiko bitxia. Mormoi-liburuaren kondaira jakingarria da: Smith'ek diñoanez, Biblian agertzen diran gizon ospetsu batzuk Ameriketara eldu ziran Babel'eko torrearen aldietan eta euren artean burrukak izan ebezan eta Mormon, enda bateko gizon azken-aurrea, izan zan liburua idatzi ebana, liburu au seireun orrialde-ingurukoa da eta berak New York'eko laterri-barruan muiño baten estaldu eban eta amalau gizaldi geroago antxe aurkitu eban Smith'ek berak. Liburu au kondaira-balio aundikoa da mor-moientzat, baiña aldiai dagokienez oker aundi batzuk daukaz: Shakespeare aitatzen dau, zaldia be agertzen da (eta ameriketan ez egoan zaldirik Europatarrak ara joan arte), ebanjelioa ta San Paulo be aitatzen dauz...

**Siniskairik** aundienak

Euren irakatsiak argi *laburtuta agertzen dira "fedeko agiak"* deritxon Smith'en agirian: 1) Guk betikoa dan Jaungoikoa sinisten dogu: Aita, Jesukristo bere Sernea ta Espiritu Santua; 2) Gizonak euren pekatuakaitik eta ez Adan'en pekatuagaitik, zigortuak izango dirala sinisten dogu; 3) Jesukristo'ren oben-ordaintzeagaitik, gizadi guztia salbau leitekela uste dogu, ebanjelioan agertzen diran legeak eta aginduak bete ezkero; 4) Ebanjeiioko tenengo oiñarriak eta aginduak oneik diraia uste dogu: Jesus Jaunagan fedea, damutasuna, pekatuak parkatzeko uretara sartuta egiten dan bateoa; Espiritu Santuaren doia emoteko eskuak ezartzea; 5) Gizonak Jaungoikoaren deia bear dauala uste dogu, profeta-lanaren bidez, ebanjelioa iragarteko eta onen aginduak zaintzeko eskubidea daukenen aldetik eskuak ezarrita; 6) Lenengo denporetako Eleizan izan zan erakundea bera sinisten dogu: Apostoluak, profeta, artzaiñak, irakasleak, ebanjelizatzailleak...; 7) Izkuntzen doia, igarletza, artzaintza, irakasletza, ebanjelizatzailletza... eta abar, sinisten doguz; 8) Zuzen itzulita dagoan neurrian. Biblia Jaungoikoaren berbea daia stnisten dogu. Mormoi-liburua Jaungoikoaren berbea daia sinisten dogu; 9) Jaungoikoak iragarri dauana dana, gaur iragarten dauana, eta oraindiño Jaungoikoaren Erreiñuari dagokiozan gauza asko ta aundiak iragarriko dauzala sinisten dogu; 10) Israel erria itzez alkartua eta amar leiñutan ber-eratua sinisten dogu; eta Sion Urarte aundi onetan (Ameriketan) eregiko dala; Kristo bera izango dala errege lur guztian eta lurra barriztu egingo dala eta atsegin-baratzeko sintza artuko dauala; 11) Guk, geure barruak eskatzen dauskun lez Jaungoiko Alguztiduna gurtzeko eskatzen dogu eta gizon guztiai emoten dautsegu eskubide berezi bardiña: Gurtu begie nai dabena eta nai daben lekuan eta eran. Erregeen, Zuzendarien. jaurlarien eta aldunen menpean gagozela , baita iegeari esana egin, aintza emon eta eutsi egin bear dautsagula be sinisten dogu; 13) zintzoak, egi-zaleak, garbiak, biotz-onekoak, onoimentsuak izan bear doguta eta gizon guztiai mesede egin bear dautsegula sinisten dogu; benetan esan geinke, Paulo'ren oarra beteten dogula: "Dana sinisten dogu, dana itxaroten dogu". Asko jasan dogu eta dana jasango dogula uste dogu. Ezer onoimentsurik, ederrik, izen onekorik edo ezer txalogarririk ba'dago, ori nai dogu.

## Oar batzuk

Morrnoiak biblia liburu santu lez onartzen dabe, baiña "zuzen itzulia izan ba'da". Eta Smith'ek uste eban Biblia txarto itzulia izan dala eta ustelduta dagoala eta berak (sortaldeko izkuntzak jakin barik) itzuipen orreik zuzentzeko agindua artu dauala...

Jaungoikoa, Aita Semea ta Espiritu Santua, onartzen dabe, baiña orrek ez dauko zer-ikusirik kristiñauen Irutasunagaz. Eurak diñoena auxe da: Lenengo izan zan gaia bera gogoa ezarrita izan zala Jaungoikoaren jatorria, Jesukristo Adan'en eta Maria'ren alkartzetik sortu zala...

Smith'ek ezkonkide asko izatea onartzen dau: "Gizon bat neska-uts bategaz ezkontzen ba'da eta gero beste neska bat nai ba'dau, lenengo neskea orretan batera etorri ezkero, ez dau ezkontzarik austen, biak emon jakoz. Lege onen indarrez, amar neska uts emoten ba'jakoz, ezin ezkontza-austerik egin, amarrak emon jakoz-eta".

Dana dala, mormoiak jokabide estukoak dira. Alkoola galazota dauke, tabakoa, teia eta beste edari bizigarriak be bai, ezkontzatik kanporako artu-emonak eta ezkontza-austea ez dabez onartzen, kasu larri batzutan izan ezik eta oneik ez dira sarritan agertzen. Sortzearen aurkako jokabideak eta jaiobakoak iltea ez dabe onartzen, azkenengo au benetako giza-iltea dala diñoe. Illearen lenengo igandeetan barau egin bear dabe eta orretan aurreratzen dabena euren Eleizeari emon. Sarritan ikusten da gazteak urte pare bat egiten dabezela, erbestean misiñoi-lana egiten, eurak lenago aurreratu daben diruagaz edo etxekoak emoten dautsenagaz, baiña sarritan euren misiñoi-lana, kontzientzizko aurkalari lez gudaritza egin nai ez dabelako ordez, egiten daben gizarte-laguntza izaten da.

## Erlejiño-seta barriak

Olakoai "seta" esan-bearrean (berba onek setakeri-antza emoten daualako) obeto litzake beste izen au emotea: Erlejiño-giroko eragin edo bizi-ikasi barriak". Asko ta askotarikoak dira.

Geienak sortzeko ta sendotzeko izan dan giro egokia, gaur larri eta itxaropen barik bizi dan gaztedia da, alboratuta eta iñok ulertu barik dagozelako. Gaztedi onek ez dau onartzen sendia erakunde lez, ez dau entzun be egin gura eleiz-erakundea. Gaztedi onek lendik datorrena dana alboratzen dau, zarra ta guzurrezkoa dalakoan, gaztedi onek Ebanjelioaren balioa edo Kristo balio lez onartu arren, balio orreik zilinduta dagozela uste dau, eta ori gaur kristiñauak dirala esaten daben giza-alkarteen erruz. Orregaz batera gaur sortaldeko jakabide ez-ezaguna ekarteko indar aundia dauke, ango gizon eta andrak, ango oiturak, ango pentsakerak... Egi-ziurtasunak alboratu egiten dira, eta *errez* onartzen da, barri lez agertzen dan edozelako irakatsia.

Ziur-ziur, barru-barruan, mundua baiño arago dagoana bilatzen da, atsegin ez dogun munduak gogaitu egin gaitu. "Seta barriak" "gaurko gizarte usteldua" aitatzen dabe eta eurak "garbi" lez agertu, gizarte-salbatzaille ta Mesias lez,

**"Jaungoikoaren Semeak" edo "Jaungoikoaren** umeak"

Gitarrea eskuetan ebela agertu ziran, eres-giroko eragin bat lez eta eresa euren irakatsiak zabaltzeko bide lez artzen ebela. Euren iraslea, Dabid Berg artzaiña, 1968'an asi zan Kalifornia'n bere lana egiten. Bere lenengo entzuleak "hipie"k izan ziran "leoi-nabar" eta "inpernuko Aingeruakaz" batera, guztiak ziran euren ametsak erdi-galduta eta droga-munduan sartuta egozan gazteak. Laster eldu ziran Europa'ra.

Liburutxu batzutan agertzen dabe euren irakatsia. marrazkiakaz apainduta datozen ereslearen eskutitz batzutan. Iraslea igarle gol-argiz beteriko lez agertzen da eta Biblia'ren irakatsiak gaurko egunera ekarria ulertzen alegintzen da. Jarraitzailleen ustez, lenago Biblia zan lez, gaurko Jaungoikoaren berbea iraslearen eskutitzak dira. Biblia'ri "ardau zarra" esaten dautsoe eta eskutitzai "ardau barria". Eskutitzak batzuk erritar guztientzat dira, beste batzuk jarraitzaille ta adiskideentzat, beste batzuk ikasleentzat bakarrik eta beste batzuk aurrelarientzat bakarrik. Lenengoak dira kalerik kale saltzen diranak. Biblia itzez itz ulertzen dabe eta igarketa jakingarri batzuk

be egiten dira, esaterako guda nagusia munduaren ondamendirako, onen ostean Kristo Aurkalaria mundu guztian bere aginte gogorra ezarten eta onen azkenean Jaungoikoa jaurle dala, mundu barria.

Ez dauke benetako sakramenturik. Baiña garrantzt aundia emo*ten dautsoe otoitzari* naiz banaka naiz taldeka egin eta *orretarako* egunero denpora-aldi luzeak artzen dabez.

Jokabideari begiratu ezkero, agintaritzaren aurka jarten dira bizi (naiz laterrikoen, naiz Eleizakoen, naiz irakasleen naiz etxekoen aurka). Seksu-arloko euren jokabideari azterketa gogorrak egin ja koz: Ezkontzako zintzotasunaren aurka doaz, ezkontzea alkartean naia dabe naiz andra askogaz naiz gizon askogaz; andra zuriak dirua-gaitik erosteari eta diruagaitik dan andra galduen bizitzari buruz egi-ten jakezan salkuntzai erantzun au emoten dautsoe: Jaungoikoaren ume diran neskak ez dira saltzen diruaren truke, maitasunaren truke baiño. Alkar-etxeetan bizi dira, jentea eurakanatzeko bide lez, txera ona ta barretxua artzen dabez eta bakoitxak bere sendiagaz dauzan artu-emonak oso-osoan apurtzea eskatzen dabe.

### Jaungoikoaren argiak dauan egitekoa

Delh'n asi *zan* seta au, 1960'an *eta irasiea H zanean, aitaren ber-*eragiduna zala uste eban 8 urteko semeak artu eban gogo-indarra ta Jangoikoaren grazia.

Euren mezuan garrantzirik geien dauana, bake osoa iragartea da *eta ori* gizadia aldi barri *batera sartzen danean* lortuko da. Jesukristo irakasle on bat izan zala uste dabe, euren iras'ea ta zuzendaria dan antzekoa, baiña kristiñauen fede-alkarte batek be ez dau ondo uler-tu Kristo'ren Mezua. Zuzendariaren berbak oso-osoan bete bear di-ra eta erlejiño-buru danari agurtza emon bear jako.

### Hare **Krishna**

Jatorriz inditarra izan arren, "Krishna'ren kontzientzia sortzeko laterri-arteko alkartea" da eta Laterri Batuetan sortu zan, 1966'an. Guru edo Maisua da Indu-bidearen norkirik garrantzitsuena eta

alkarte onetan be bai. Betak ezagutzen eta azaltzen dauz Liburu Santuak. Eurak Santuak diran liburu guztiai deutse itzaltasuna, baiña euren irakatsiaren oiñarria Indu-bideko Veda'k dira. Jaungoikoa, edo Krishna. *gauza* guztien egille *aitsua* da, guztiz jakitzuna *ta* betikoa eta oneri eskintzen dautsoz gizonak bere egite guztiak. Jaungoikoaren maitasun osoa lortzeko, bere izena aitatu bear da sarritan. Egunean eundak bidar esaten dabe dei-otoitz au: "Hare Krishna, hare Krishna, Krishna, Krishna, harehare, hare Rama, hare Rama.Rama Rama. Hare hare".

Gizona barru-barruan gogo il-eziña eta gogo utsa da etaJaungoikoaren zatia dan lez. Jaungoikora biurtuko da: Dana-Jainkoa dala uste daben erlejiñoetarikoa da ba. Ber-aragitzea onartzen dabe, Krishna'ren kontzientzian betiko bizitera eldu arte.

Euren ustez. orain jausita dagoan aldi baten bizi gara eta gizadiak Jaungoikoagandik urrintzen jarraituko dau amar milla urtetan. Eta orduan Krishnak gizadia zigortu egingo dau zigor aundia bialduaz eta gero barriztatze-aldia etorriko da. Krishna'ren azkenengo etorrerea 427.000 urte barruan izango da... Euren jokabide-arauak estuak dira: Okelea, arrautzak eta arraiña jatea galazota dauke eta pozoibide diran gauza guztietatik (droga, tabako, alkool, kafe te eta olakoetatik) iges egin bear dabe; Ezkontzatik kanpokoak diran seksu-artu emonak baztertu egin bear dabez eta ez dabe denporarik galdu bear alperreko joko eta alperreko berbetak egiten.

Otoitzera, gogartera, abesti santura eta atkarteko bizitzara biurtu bear dala diñoe. Euren bideari yoga (: askeagazko iokarria) deritxoe. Ezagun dira jantzi luzeak eta buruak ule barik erabilten dabezelako. Sendiagandik osoan aldendu bear dira. Goizeko lauretan asten dabe eguna, otoitz egiten eta Veda'k a^tertzen orduak eginda. Atseden laburra artu eta landara-janariak bakarrik jaten dabezelako dauke, bear ba'da, dauken burubidea: Euren jarraitzailleak "egitarautuak" dirala esaten da eta sendi batzuk alkarteak sortu dabez euren seme-alabai "egitarau" ori kentzeko eta artu dabezan burubideak alboratu eta eurak barriro eskuratzeko.

Moon erlejiño-setea

Son Myung Moon'ek (I920n. urtean, jaioa da) sortu eban Korea bere lurraldean erlejiño eragin au 1954'an, baiña berakl937'an ikusi ebala Jesus esaten dau. Mesias *barri \ez* agertzen *da,* esaterako bere laugarren ezkontzea, 60n. urtean, "Bildotsaren eztegu'Mez aurkezten dau. "Jaungoikozko oiñarriak" deritxon bere liburuan agertzen dau bere irakatsia eta oiñarri lez Biblia artzen dauala diño. Izatez ez da kristiñau-bideko erlejiño-eragiña. Kristo Jaungoikoa dala sinisten ez dabelako. "Aingeru bat dator sortaldetik" esaldia (Agerp. 7, 2-4) berari buruz idatzia dala diño, Korea'n jaio eta Mesias barria dan berari begira esana.

Zuzendari nagusi bakarra da eta esanekotasun itsua ta ondasunak emotea eskatzen dau. Bere liburuan gizadiaren kondaira aztertu nai dau Adan eta Eba'gandik asi eta gaur arte. Lenengo gurasoak euren pekatuagaz Jaungoikoaren aurka jagi ziran. Jaungoikoak Guda'tarren erria aukeratu eban bere eginbidea barriro eratzeko, baiña txarto *urten* eutson. Jesus'eri be *danak urten* eutson txarto eta *gazt^ian* il eben eta orregaitik ez zan eldu ezkontzara. Ezkontza orretatik bai. sortuko zala munduko sendi nagusia. Orduan erri kristiñaua aukeratu eban, baiña au be ez da izan gai Jaungoikoaren eginbidea beteteko. Munduko gudaldi biak izan ondoren, irugarren zemaia komunistak dira. Jaungoikoak orain, Amerika aukeratu dau. baiña onek be ez dau ekarriko bakerik, bide zuzenetik jarraitzen ez ba'dau. Eta ori *orrelan* dala agertzeko, B'blia aitatzen dau, bere erara ulertuta.

# XIGAIA

## DANA ETA DA BARDfN KRSITIÑAUENTZAT?
(Kristiñauen ledea balioen larrialdian)

### Gizarte bakoltxari bere balioak eragiten dautsoe

Persona bakoitxari, gizarte bakoitxart balio batzuk eragiten dautsoe eta beste baiio batzuren billa doa. Orrek argitzen dau gure inguruan ikusten doguzan burubideen eta jokabideen kopuru zabaia. Zelntzuk **ete dlra** balio krlstlftauak? ZeinizanbearetadakristiftauenjokabkJea?

Gai onetan aztertuko doguna:

* Baliorik ete dagoan ala ez, eta zer diran.

* Zein ete da jokabide-zuzen-balioa eta zertarako.

4 Kristiñauen jokabide-zuzen-balioen oiñarria Kristo da: Beragandik sortzendiraguztiak.

## Irugarren zatla

## BALIOAK ETA AURKA-BALIOAK

**Lenengo zatian ikusi** genduzan **gure munduan diran gizonen pentsa-era** eta egrte-era ezbardifiak.

Bigarren **zatian geure fedea eta fede onek gizonai eta munduari zelan erantzuten dautsen aztertu** dogu.

Orain irugarren **zati onetan begiratu dagigun gure kristiñau-fedeak** zelan *gauzak ikusteko era* bam' **baf** *emoten dauskun: Ara zer;*

- **Kristinauen balloak zelntzuk diran:** zelan ikusten doguzan **eta zeintzuk diran euren maillak. (XI** gaia)

- Balio zeatzu batzuk, **gure** kristiñau-jokabtdea zuzentzeko gai diranak. (Xilgaia).

**Irugarren zatirako eritxl-eskintzak**

Injgarren zatia ikasleen aurrean zuzen-zuzenean agertu-aurretik, ondo izango Irtzakela **uste dogu orain-arte igaro dan ikasturtearen joana aztertu eta neurtzea: orretarako ona izango** da ikasleai **itaunketa egitea eta, errezago,** ilaun batzuk eurai egitea, geratu jakezan galde-gaiak, zalantzak oraindifto ba'dira, **eta** ikusturteari buruz dauken poz-maillea zelakoa dan jakileko.

Injgarren **zati** onen elburua aurreko **zatitik zuzen-zuzen** dalorrena **da:** Fedea ez da **izan bear adimen-giro utsa; fedea bizitzarako eta era zeaztu batenbizitekoda.**

* Mundua obetzeko **ta aidatzeko arazora sartuta** dagozanakaz mai-inguru **bat eratu: kristinauak diranak naiz ez diranak izan daitekez:** ekologi-zalea, alkargo-zalea, abadegaia, errigiña, emakumeen aldekoa, **bake-zalea...**

Gaia: **Zeintzuk dira gaurko munduari eragiten dautsoen balioak? Eta zeintzuk** eragin bear leikioenak?

Ori egin ondoren, ikas-gelan edo ikastetxe guzliarentzat, asikerea emoteko, irugarren zati au asteko agertu diran arazo zeatz batzuk artuko**dira**.

*** Talde-lana: Geu bizi garan mundu oneri aztertze zabal eta** sakona **egin, auxe jakiteko: a)** Gure inguruan **diran geienak eragiña egiten** dautsen benetako balioak **zeintzuk diran b) Balio onein artean zeintzuk diran** balio **kristifiauen aurrez** dagozenak eta zeintzuk balio kristiñauak.

* **Emon ikasleai irugarren zati onen laburpen** bat (errez egiteko) orreta-rako gai bi **onen** asikeretan agertzen **diran laburpenak batu**. Laburpen orregaz, agertu **gai guztien** artean **zati onetan** datozenak eta egin eztabaidatzea gaira sartu-aurrean.

**erantzuteko**
**gauzal emoten Jaken balloa**
**jakln bear**
(Balio ez da gizaundien onoimena
**ez** da salerosketarako izakera bat)

Balloak **BA-DAGOZ**

M.SCHELLER
"Eurefl arloadauken
izaerakdira"
' Ezdira'ondasunak"
beste barik.
Ez dira "gogo-ekintzak"

ORTEGA
* Balb "baikorrak" eta
balio "azkorrak'dagoz.

**Glzonak**
**"ARTU ETA MAILLETAN JARRI"**
bear dauz,
Balioen larriunea ala gizonen larriunea?

**JOKABIDE ZUZENEN ARLOKO BAUOA**
jokabldea zuzentzen dauana:

Bizitzeari norabidea emoten dautso.
Bizrtza guztiak rtxuralu egiten dauz.
Norkia norki lez osotu egilen dau

**JOKABIDE ZUZENEN BALIO KRISTIÑAUA**
(Biblia ez da legedi bat)

Kristo:
oiñarrikobalioa

* Jaungoikoa. Aita lea
" Bizitzea barriro
bideratzeko almena.

* Maitasuna

Kristo'gaz nokien arteko
alkarlzea

Askatasuna
Gizabidea
Krisio'ren
eragiñaz.

## 1. Dana ete da bardln?

* 85'eko otsaillaren azkenak ziran. Izparringietan irakurri da Biena'ko gaiso-etxeetan jaio barik ilten dabezan umegaiak injrogei ta amar milla dirala eta geienak aurpegi-apaingarriak egiten dabezan balzai saltzen jakezala. Billaketa ori egin eban izparlari batek auxe ifioan: giza-gorpuzkien benetako zatiketak egin zirala salketarako, umegaiak bakarrik ez, barabillak eta buruko garaunak be, gorputzen zatn-tokietan aukeratuta saldu egin zirala aurpegirako igortze-gaiak egiteko.

* Olako alblste bat irakurten danean, irakurle bakoitxaren baraian eragin ezbardiHak sortzen dira, ondo ala txarto zer dagoan bakoitxak daukazan burudeen ikuspegitik. Labur esateko, oneik izan daitekez eragiñak:

- Gorpu batek zertarako balio dau? Gorpuelatik irabaziaatera ba'lei, orretan txarrik ete dago? Dirutxua, datorren lekutik datorrela.

- Ez dira ba erabilten gorputz-zatiak bategandik beste bategana aldatzeko? Orduan eragozpenik ete dago ederlze-gaiak aterateko gorpuzatiak erabilteko? Edertasuna zaindu egin bear da, bizia ez da osasun utsa...

- Utsa bat ezin etxean artu dabelako, umegaia ilten ba'dabe, ori salduta ez dabe ezer galtzen, irabazi bai; lotsa-galduaren erpifia da, bizia dan edozetarako rtzaftasunik-eza. Egia da, gorputz-zatiak "zatiak" dira, baiña biziaren lekua izan danagaz irabazia lorizea? Ez dauko orrek norberak maite izan dauana, gauzea naiz gomutakia, saitzearen antza!

* iru jokabide oneik, ezbardiñak, (eta asko geiago be izan leitekez) jazokizun bat beraren aurrean ariuak dira. Ara zergaitik:

- bakoitxak bizia zer dan eta zeriaraka dan jakiteko bere burubideak daukaz eta ondoren )ez,

- biziagaz egiten daneri bakoitxak garrantzi bat emoten dautso.

Orrek esan gura dau, gauza bakoitxari ze **ballo** emoten jakon (aurreko arloorretanbiziari).

Gai onetan balioen arazoa aztertuko dogu, orreik dira gure eritxien oiñarriak bizitzan ekintzetarako daukaguzan era ezbardiCian sorburuak.

## 2. Zer da gutzat balloa?

Guk balioa esaten dogunean ez dogu esan gura onaimen indartsua edo salerosketarako **diru-neurria**. **Gauzea maitagarri eta billagarri egiten** dauan zerbait **esan gura dogu, onartzez eta arrigarritzat eukitea gugan** *sortzen* dauan zerbait. **Gauzea estimagarri ete** beste batzui emoteko aoikugarri egiten **dau** edozein gauza baliodun izateak, elburu baterako onuragarrt dan zerbait. Orduan gure **burubide au iilosofi-arlokoa da (De Finance:** "Sakramentun **Mundi").**

**Eta balioak aitatzen doguz, gainera, laster ikusiko dogun lez, balioa *bakarra ez* dalako,** askoren bafasuna *baiño. Ei* dagoba, balio bakarr/k **haizta** balio nagusia eta danen gainetikoa bat izan.

Eta lenengo agertzen jakun arazoa auxe da (asko dira arazo au agertzen dabenak): **Balioak eurak euretara dauke izatea, personea kontuan artu barik)** afa bafioak balio dira personak **maifla** orretara jasoten dabezelako?

Ori argrtzeko adibide bat. Norkien arteko erabagia **izan da urreañ aldakuntza** guztietarako balioa emotea. Baifia balio ori ezarten jako meatz **orreri beste** batzuk ez daukezan zeiakotasunak daukazalako, azkenean norkiak **gara balio ori emoten** dautsogunak. Filosoti-arloan **be ori jasoten ete** da? Len **esandekoaren arrtik, biziak berea dau balioa ala urreagaz** jazo **dan lez** balioa dauko geuk guztiok *ba\era orreri **balioa** emotea erabagi* dogulako[7]

**Erantzuna** ezlabaidagarria **da. Guk uste dogu (Max Scheller,** Ortega, Hartmann **eta beste jakitun batzun eritxiari jarraituz) balioak eurena** dabela balioa eta norkiak egiten dauana balioak aurkitu **eta** maillaka jartea dala.

### Jaklnzaleen Ikuspegla

* **Max Scheller'en ustez,** balioak gauza **berezia dira eta ez dira gauzakaz bat bera eta ondasunak** deritxegunakaz be ez. Ez dira balioak gogo-egiteak, egokitasun berezi bateko "izakerak" **dira,** baifia buru-jabetza daben izakerak, dauken gaia daukela, **euren buruak zurftzen dabez.** ***Eurai*** *begiratzea* ***da*** na^oa zer diran ikusteko; dana dala, baiioetarako itsua **danak ez dauz** ikusten.

M. Scheiller'ekbalio-motakezartendauz:

- Atsegin-ezatsegin girokoak (poza-nekea, atsegiña-miña)

- **Bizi-balioak:**

**a) bizi**zomaketa;osasuna, gaisoa, zartzaroa,eriotzea ...
b) Barru-miñen erantzunak: alaitasuna, naigabea...
c) griña-erantzukLzunenak: larritasuna, azperkuntza...

- Gogo balioak

a) Ederbidekoak(poiitika-motza)
b) Jokabide-zezenekoak; Zuzena-zuzengea

c) burubidezkoak (egia azgutzearena...)

- Santutasun eta santu-ezarenak. (Fedea, sinisgekeria, gurtza...)

Balioetarako itsua danak ez dauz ikusten.

Balio baikorrak eta ezkorrak dagoz.

*Ortega y Gasset'ek be balioak ba-dagozela diño. **Eta balio** baikorrak **eta** ezkorrak dagozan **ezkero balio-motak onetara** ezartea eskatzen dau, balioak eta aurka-balioak kontuan dirala:

| | |
|---|---|
| Onurazkoak: | al dauana-ezin dauana<br>karua-merkea<br>ugaria-urria... |
| Bizi-girokoak: | Osasuntsua-gaisoa<br>aukeratua-arrunta<br>bizia-geldia<br>sendoa-makala... |
| adimenekoak | Ezagupena-oker egotea<br>Doi-doia-gitxi-gorabekoa<br>argi-ziurra-izan leitekena<br>Ona-txarra |
| Jokabide-girokoak | ontsua-gaiztoa |
| Gogo-girokoak: | zuzena-zuzengea<br>Estua-nasaia<br>zintzoa-zintzo-eza... |
| Eder-arlokoak: | polita-motza<br>alaia-garratza<br>apaifta-apain-eza.<br>egokitua-egokieza |
| Erlejifio-girokoak: | Sagaralua-sagaratu-eza.<br>Jaungoiko-girokoa Txarren-girokoa<br>Gorengoa-jatonizkoa<br>Mirarizkoa-mekanikazkoa... |

## 4. Dana ez da **bardin**

* Zergaitik da gizonaren zeregiña balioak **artu eta millaka Jartzea? (Ik. 2n. zatia). Gizonak bere burua** osotu bear daualako eta gaiñera bere **bizilzearen** ingurua be egin **bear dau. Eta ori ez dau lortuko,** gauza garrantzizkoak **zeintzuk diran ikusita baifto (orixe** da balioak **artzea).** Eta gero bear **dauan almena ba'dauko** garrantzitsuenak lenengo **maillan** ipinteko, oneik **barik besteak ez leukee zentzunik eukiko,** eta gitxiago **edo ezer be ez diranetatik bereiztu, bigarren maillakoakandik (orixe esan gura** dau balio-arteko maillakezarteak).

Balioak **mailfaka jarteak ez dau esan gura, beste barik, baiioak euren** mortzoetan **ipintea,** mailietan **ipinte orren** ondorena, **bere ekintzetan balioko** Izango dan balio-maillen zerrenda bat edezeifiak eukitea da.

* Balioak artzea ta aurkitzea norkiaren zeregin berezia da **eta** azterpena egitea ta barrura begiratzea eskatzen dau, orregaitik griñaren bideetatik **urrin** dagoz balioak. **Eta** balio bat dago, jokabide zuzeneko balio, norkiak norki lez jokatzea, biz'rtzea ta agertzea **(ez piztiak lez)** eskatzen dauana eta ori **barruko griñak eskatzen daben baino gorago bizitea da. Jokabide zuzanaren** balioa da gizona bidean **ipinten dauana, ona ikusi, aukeratu eta** egiteetara eroan dagian **aidun izateko**.

## 5. Zurra Izan dalteke lapurra

Egin dagigun sarritan izaten **ez dan gauza bat onelan dala:** bere lanbidean **zurra** dan **gizona, guztien aurrean izan ona** daukana... **barru-barruanlapurradala.**

Kezka **barik uste izan geinke** bere lanbideko **adimen-gertakuntza,** gizarteko bere ondoren ona, jokabideko arauak ondo jakitea bere, ez naikoa gizona zintzoa **ta ona biurtzeko edo jakite orrek jokabide okerrak** alboratzen dauzala. **Gu** ez garageratasunaren ikuspegi bakar bat (osagillea, mekanikua, **aita, Ikaslea...). Norkiak ori baiño** izatasun geiago **dauka**. Eta gure barruko askotasun ori batzen dauana, pentsaten **eta egiten doguna** bideratzen dauana, **bizitzako egin blde bat egtteko almena da eta eginbide** orrek alkartzen eta bere bidean **ipinten** dau elburu baterantza joateko gure izatasun osoa eta orrexek egiten gaitu alako edo olako **norki.**

* Batu barik eta zatituta ibilteko elmena emoten dauskun balioa, bi edo iru eratako bizitzea eroateko alboratzen gaituana, Jokablde zuzenen balloa da.

Jokabkje zuzenen **balioak dei egiten dausku gure bizitzako** zertzelada guztietan jokabide zeatzaz **erantzuteko. Eta erantzuteko era berezi au ez** da kanpotik ezarten jakun zerbait, ez da "eginbear" **bat, geuk** aukeratzen dogun gauzea da, jokabide-zuzenen **balioa esaten** dautsagun **gai ori** ***aurkitu*** izatearenondorena.

## 6. Jokablde zuzenen balloa zertan dagoan

Kondairaren luze eta zabalean Jokabide zuzenen balioa izaera ezbardiñetan kokatu da ta kokatzen da: Batzuk legean kokatu dabe (legezaleak), beste batzuk atsegiñean (Atsegin-zaleak), beste batzuk zoriontasuna biflatzen (zorbn-zaleak), beste batzuk balioa norberaren barruko egoera egokian kokatu dabe (estoikoak), besle batzuntzak jokabideko baliorik aundiena "egin-bearrak eginbear lez[H] dira (kant-zaleak), ounerea, askatasuna, bestei laguntzea eta beste izaera edo onoimen asko izan dira jokabide zuzeneko baliolezartuak...

* **Ez dala esan lei ba, gauza erreza** guztientzat **neurri bardin bat** aurkitzea sarriian balio ori agertzen daben agerbide orreitan norkia bera **zer dan** agertzeko era ezbardiñak dagozelako. Eta ortxe dago ezbardintasunaren *o'tñarria, baifia, batera,* ***ortxe dago*** barruko batasunaren iturria **be:** Norki **lez** aurrera urteteko norkiak daukan bear-izanean.

Jokabide zuzenen balioa **izan leiteke ba, norkia esotzeko** eginbidea beteteko gizonari almena amoten dautson izaerea.

## 7. Gaur zer jazoten dan

*** Sarritan esaten dogu gaur** kondairako larrialdiaren **une** baten gagozela. **Gaur** norkiak ez dakiala, garbi-garbi, mundu-barruan zelako lekua **artu**. **Len balioa euki** ebanak gaur ez daukola (begiratu zelako aldea dagoan gure ikuspegien eta gure gurasoenen artean, edo aitita-amamak dauken eta guk daukagun pentsaeren *anean). Zergait* ik *senlñzen eta esaten* da **ori?**

**Mundua (lenengo lau gaietan ikusl dogun** lez) **asko aldatu da eta** aldatzen jarraitzen dau. Egoera barriak aldakuntzak **dakarrez** personea ulertzeko **eretan eta munduan berak** daukan zeregiña ulertzeko **eran. Eta** ortxe, aldakuntza orreitan, **bein eta barriro sortzen diran larri-une** orreitan, ortxe **dago zioa** jokabide zuzenaren balioak **be larriunean** dagozala **uste** izateko.

Baina ez dira balioak ain larriune aundian dagozenak, **balioak artu eta euren** mailletanjarribeardabezangizonak baiño. Ez da balioen **larri-uneagaur** daukaguna, personen **larriunea ta aldakuntzea baiño, geure iarriunea.** Orain argi ikusi geinke, asieran irakurri dagunaren antzeko jazoerak zergaitik jazoten diran eta erantzunakzergaitikdiran ezbardifiak.

Mundua akdatukeran geu, norkiok aldatu gara.

8. **Gure** mundu **au** danetik Iges **doa**

* Oskar Romero Andrej Torkoesky, Errusiako zine-egille aundia, sortandera **plitikako, babes-billa etorri zan, amairu urteko** bere semea be bere lurraldean **itzita**, **bera lan** ta eritxiak agertzeko eskubidea bein eta barriro laburtzen eutsoezelako: "Gure agintariak ezin dabe ikusi eder-lanik, eder-lana edertasuna dalako eta edertasunak pentsau **eragin eta** Jaungoikoagana daroalako".

* Olako jazokizunak argi dinoskue ba-dagozela munduan dana jokatzeko **gertu** dagozanak eta **gure munduan jazoten dana guztia ez** dala norkien nortasuna beeratzekoa. Euren balioak aundikiro ikusten dabezenak **eta orretara euren bizitze guztia** zuzentzen dabezenak be ba-dagoz. **Eta** auxe da balioen zeregiña:

- **Bakoftxaren Izatasunarl norabldea emon, balio batzuk edo** beste batzuk aukeratuta,
- **Blzl-tankerea eratu: Bakoitxak** aurkitzen **dauzan** balioak, norta-**suna** agertzeko eginbide zeatz **biurtukodira**.
- **Norberaren Izalasuna egl Dlurtu. Norkia izatera ettzeko neuma, bizilzarako** egin dan eginbidean dagozan elburuak lortzea da (bidean **egin bear dira aldakuntzak eginda, tramankulu batzuk be** ez gara-ta) **eta** eginbide **ori** jokabiderako **aurkitu dan** balioagaz batera doan neurrian (au ez da( ez aiztu, buru-barruan bakarrik dagoan gauzea).

* **Bi milla urteren joanean askok eta** askok (aundi-aundiak baiño **ez** doguz ezagutzen) emon dautsoe euren bizitzeari norabidea, bizitza au eratu egin dabe *eta* ***nork'i*** **lez** osotu dira, *oin-arria Nazareteko* Jesus eta bere **mezua** dabela.

Egin **ete** leiken *gauzea e\e* da gaur *Nazaret'eko* Jesus eta **bere** mezua jokabideko balioen oinarri izatea eta esan doguna dana aurrera-bidean jartea?

## 9. Argiblde batzuk

* Uun *Zarra Jesus'egana* elduta amaitu **zan. Jesus eta bere Mezua Itun** Barriren bidez ezagutzen doguz. Ezagutzen dogu ba Jainkoa et Jesus'egan gizon egindako Jaungoikoaren Semea.

**Baiña Biblia ez da jokablderako** legedl bal. **Ez da ona eta txarra zer diran jakiteko liburu bat**. **Egia da, ori bai, bertatik atera geinkezela eta** atera bear doguzaia jokabide **zuzenerako balio** zeatzak, baiña ezin geiniekez **urreratu liburu** Santuetara **arritarren** legedietara **urreratzen garan** antzera. Legeak ba-daukoz, baifia ez da lege-moltzo **bat.**

**Biblia, oinarri-oiñarrian, norki bat** aurkitzeko bidea da **eta norki orren** bidez, bere mezuagaz, (izatez norkia **ta mezua beti batera joan** arren). Jokabide **zuzenaren** bideak, BibJiak, **Biblia'tik ateraten diran** balioen bizitza norki-arteko alkartze orren ondorena da, eta alkartze guztien antzera, alkarrari berbeaemoteabebai.

## 10. Guk, krlstlñauok jokablde zuzeneko balloak zertan jartzen doguzan

* **Alde batetik kristinauok batera** gagoz jokabide-zuzenen balioa onetan ipinten dabenakaz: Kondairaren **aurrera-bidean** gizabidea **osotu ta aurreratu. (Ik. V,** I**X** eta **X** gaiak).

* **Beste alde batetik, kristinauen moral-balioaren bereiztasuna ez da** burubide **bat edo gurari bizi bat, Bereiztasuna persona bat da: Krlsto:** "Legearen bidez legerako il egin na2, Jaungoikoarentzat **biziteko.** Kristo'gaz kurutzean **josita dago, baina bizi naz,** ez neu, **KrisJo bizi da** nigan. **Eta ori oraindino** aragian bizi nazela, **ori** Jaungoikoaren Semea danaren fedean **bizi dot,** onek maitatu egin nau eta bere burua emon dau nigaitik (Gal. 2,19-20),

Jokabide oneri KrIsto-ardatz jokabidea esaten jako. Era askolara agertu lei: Maitasuna, Erreifiua egitea, Kristo'ren antz-bidea, Kristo'ri jarrartzea...

Gure Kristo-Ardatz jokabidea ez doa benetako gizabidearen aurka, bestetara, gizabidea oifiarritu eta aurrerago jarraitzen dau. (Ik. X gaia).

## 11. Arazo osoaren ardatza Kristo'gan dago

Kristiñau-balioaren berezitasuna norki bat da: *Kñsto.* Argiago esateko, tededunaren balioak kanpotik datorkuzan aginduak edo buruz egindako amets utsa barik norki-arteko alkartze biurtzen dauan norki bat.

Guztiok ikasi dogu bizitzan norki-arteko alkartzea zer dan. Azaleko alkartzea ba'da, bizitzea bardin doa aurrera, gitxi edo ezer be ez da aldatzen, baifia alkartzea sakona eta lokarh estuak daukazana ba'da, bear-bearrez eta burubide zuzenez gauza asko aldatuko dira.

**Arazo osoak** KrIsto'gan dauka ardatza.

' Gauza asko dira bizitzen afdatzen diranak, balio asko agertzen edo aurkitzen dira Kristo'gaz benetako alkartzea egiten danean. Bizi-ikasi ori barik jokabiderako kristiñauen balioak, norkiagandik kanpoan geratzen diranak eta asperganiak 'izango litzakez:

- Zakeo zergabatzaillea, iapurra ta entzute txarreko gizona zan. Khsto ezagutu-gurea zomau eban eta basa-iko tandara baten gainera Igon eban, bera ikusteko, beste barik. Kristo bere etxera sartu zan, maia eta maikoa alkar-banatu eben, alkar-izketea ezan eben... bizitzea alkar banatu eben... Eta Zakeo'k alkartze onen ondoren lez, ostu ebana blurtu egiten dau, daukanetik erdiatxiroaiemotendautse: Oso-osoan aldatzen da (Lk. 19,1-10),

Legeak beteten ona zan gazte aberats arek, Kristo'k bera ona zala agertzea nai izan eban, baita obea izateko bidea berari agertzea be. Barru-Barruan ez eban Kristo billatzen, eta onek maitasunez begiratu arren, ez dau bere barrutik urteten gazteak, bera ona dala ziurtzea nai dau, besterik ez. Eta ordua eldu zanean ez ezukan adorerik aldatzeko, aurrerago joateko: Jesus'ek eskinizen dautsona, beretzat aspergarria da (Lk. 18,18-23):

Zekeo'k benetan aurkitu eban Kristo, gazte aberatsak ez: onek egin eb na, garrantzi bako oztopo bat aurkitzea baiño ez zan izan.

## 12. Glltzarrl diran krlstlnau-balloak

Oneik Kristo'gaz alkartzetik datozan ondoren zuzenak baiño ez dir Norki arteko alkartze orre auxe aurkitzera eroaten dau:

- Jaungoikoa Aita dogula aurkitzea ta bizi izatea. Auxe litzake ba nagusia ta lenengoa, Jesus'ek egin euskun Jaungoikoari buruzl lenengo agerpena. Aita izate orretan oinarritzen eban Jesus'i Jaungoikoagazko bere artu-emona.

- Maitasuna, Jaungoikoagaz eta gizonakaz artu-emona izatel jokabide lez. Bere burua eskintzen dauan maitasuna, laguntza e eginbearra dan eta arerioakana be eltzen dan maitasuna: "Oregait gizonak zuei egrtea nai zendukena egin zuek be eurai" (Mal. 7,12).

- Askatasuna, sinistedun guzlien izaera lez. "Askeak izateko aska ginduzan Kristo'k. Jarraitu egizue sendo eta ez zaiteze barriro zapi kuntzara, morroitzaren buztarTipera jausi" (Gal. 5, 1). Eta aske l< (bultzakaden, arauen eta legeen, sendiaren aurrean...) jokatu ebi Kristo^k.

